

Goienkaria

2009ko urriaren 2a > Egubakoitzoa > IX. urtea > 391. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Pertsona
berritzaileak
eta ekintzaileak
behar ditugu
MUN"

Josu Zabala
MUKO
errektorea > 09



G2a

Bisita gidatu
antzeztua bihar
Aramaion > 37

EUSKARA
Kontseiluarekin lanean jarraitzen
gogoa berretsi dute sei udalek > 02-03

EKONOMIA
Danobatek 200 langile kualifikatu
izatera iritsi nahi du, Bergaran > 06

BERGARA
Bedelkarko dendek azoka egingo
dute asteburuan pilotaleku > 19

ONDAREA > ATXORROTZEKO GAZTELUA

Atxorrotz mendiko gazteluaren aztarnak bistaratuko dituzte

AZTARNAK Metro eta erdiko sakoneran daude oinarriak; agerian utzi nahi dituzte sarrerak eta dorre nagusia

ERDI AROKOA Gipuzkoako garrantzisuenetakoia izan zen Eskoriatzako gaztelu hori; egun, Atxorrotzeko ermita azpian dago

INDUSKETA Hiru arkeologok dihardute indusketa lanak egiten; gizarteratzeko asmoz, bisita gidatuak egingo dituzte > 05

ARRASATE > OSPAKIZUNA

Maritxu Kajoi gaur Arrasaten

Txikiteroen zaindariak miraria agindu du aurtengo ere; 20:30 aldera egingo du > 14



AZTERKETA Arantzazuko basilikaren atarian aldamioak jarri dituzte apostoluen eskulturak aztertzeko eta ondoren konponketa txikiak egiteko.

IRATI AGIRREZALDEGI

Aurpegia garbituko diete Arantzazuko apostoluei

Arantzazuko basilikako atarian dauden Oteitzaren apostoluak aldamioek estali dituzte. Foru Aldundiaren eskariz, eskulturen egoera aztertzen dihardute Petra etxeiko langileek, eta gero, Teusekoek babeste lanak egingo dituzte.

Apostoluek, toki laiotzean egonda, hezetasuna dute etsai. Hortaz, hidrofugantea eman beharko diete, babesteko. Asmoa da azaroaren 8rako aldamioak kentzea, kriptaren 25. urtemuga ospatuko dute-eta egun horretan. > 08

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-06
Gutunak > 08
Iritzia > 09
Elkarrikzeta > 10-11
Herriak > 13-33
Kirola > 34-35
Kultura > 39
Sailkatuak > 40
Gazteak > 42
Telebista-Irratia > 43
Zerbitzuak > 44
Berri-zakua > 45
Eskelak > 45
Non-zer > 46-47

ZERBITZUAK > AUTOBUSA

Ospitalean geratuko da autobusa

Laster egokituko
dituzte geltokiak
ospitale aurrean;
bat noranzko
bakotzerako > 04

GERRA > OMENALDIA

Gerran hildakoei omenaldia

Miliziano eta gudarien memoria historikoa bizirik mantentzen, omenaldia egingo diete Elgetako Intxortako ate-a-n domekan, Lau Haizetara Gogoan-ek, Intxorta 1937 kultura elkartea eta Elgetako Udalak antolatuta. > 05

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE | Feel the difference | Ford

Ford Focus Sound berria
13.850 eurogatik.



Joan den zapatuan aurkeztu zuten hitzarmena Kontseiluak eta 22 udal sinatzaileek, Donostiako Miramar Jauregian; argazkian daude Maite Guridi (Bergarako Udal) eta Inaxio Garro (Aretxabaletako Udal).

EUSKARA > HITZARMENA

Kontseiluarekin lan egiteko asmoa berretsi dute udalek

ELKARLANA Ibarreko bost udal eta Aramaiokoa Kontseiluarekin lanean dabilta, eta zapatuan berretsi zuten hori jendaurrean

NEURKETA Kontseiluak herririk herriko 2. neurketa egingo du, eta udalok kontuan hartuko dituzte horren ondorioak

OHIKO LANA Bailarako udalek, beti bezala, euskararen alde lanean dihardute, ikastaroak emanet, helburuak finkatuz...

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Euskal Herriko 22 udalek sinatu dute Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekin lankidetza hitzarmena, eta horietatik sei hemengoak dira: Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Eskoriatza. Hitzarmena askok lehendik sinatura

zuten arren, zapatuan egin zuten ekitaldia Donostiako Miramar Jauregian. Hitzarmen horren helburua da udalon hizkuntza-politika hobetzea, eta, horretarako, bi aldeek konpromiso batzuk onartzen dituzte: udalak bere herriko hizkuntza-politika hobetzeko duen borondatea adieraz-

ten du eta Kontseiluaren dinamikari babesa ematen dio, eta Kontseiluak bere ebaluaketetan antzematen dituen hutsuneei konponbidea ematera konprometitzen da. Kontseilua, berriz, eskura dituen bitartekoak ipintzera konprometitzen da. Tresna horien artean, garrantzitsuenteako bat Kontseiluak egiten dituen neurketak dira. Orain arte, Euskal Herriko 100 herrian egin ditu neurketak, eta bigarren datorren urtean egingo du.

"KONPROMISOA HARTU DUTE"
Edozein modutan, neurketak baino garrantzitsuagoa da momentu honetan, Kontseiluak baloratzenten duenez, udalok erakutsi duten implikazioa. Mario Zapata Kontseiluko Ekintza Planaren arduradunak honela dio: "Udal hauek euskararekiko konpromisoa hartu dute modu argian, eta horrelako hitzarmenak gutxi izaten dira. Guretako, orain hori da azpimarratu beharrekoa, datuen

eta kopuruen gainetik". Aipatu behar da, hitzarmenaren beste alderdi berri gisa, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) ere bat egin duela Kontseiluak egindako proposamenerik, eta UEMAko kide diren herrietako ordezkarri batzuk ere zapatuko ekitaldian izan zirela; tartean, Aramaioko ordezkarriak.

HELBURUAK FINKATUTA
Bien bitartean, Debagoieneko udalek eta Aramaioko Udalak ohi bezala jarraitzen dute euskararen alde lanean, eta momentu honetan, behintzat, hitzarmenak ez du aldaketa handirik ekarriko. Izan ere, udalok, euskara batzordeen bidez, baditzute finkatuta helburu batzuk. Adibidez, teknologia berrien bidez ematen diren udal zerbitzuak, zein udal ekipamendu informatikoak euskaratzetan dihardute udal gehienok; bestalde, herriarrendako euskara ikastaroak antolatzen dituzte.

Arkaitz Biaín

ARRASATEKO EUSKARA
BATZORDEBURUA

**"Ibilbide luzea
daukagu euskararen
alde; elkarlan hau
hor kokatzen da"**

Arrasateko Udaleko Euskara batzordeko buru Arkaitz Biaínak orain arte egindako lanaren jarraipen moduan ikusten du zapatuan egindako hitzarmena: "Arrasateko Udalak oso ibilbide luzea dauka euskararen alde lan egiten; pauso asko eman dira". Horixe da, haren iritziz, orain arteko lorpen handiena, jarraitu den bidea, hain zuzen. "Lorpen bat edo bestea nabamentzea ez litzateke zuzena", esaten du.

Kontseiluareniko lankidetza zelan garatu udal bakoitzak egin beharreko lana izango dela dio, eta batzuetan ezin dela gura adina neurri hartu, "balibabideak behar direlako eta batzuetan baliabide guztiak ez daudelako gure esku". Hala ere, "neurketen emaitzak kontuan hartuko" ditu Arrasateko Udalak, ahal duen neurrian erantzuteko horiei.

Inaxio Garro

ARETXABALETAKO ALKATE ETA
EUSKARA BATZORDEBURUA

**"Azaroan aurkeztuko
ditugu euskara
ordenantzak
berritzeko ideiak"**

Aretxabaletako Udalak euskaran inguruari indarrean daukan ordenantzak 1991. urtekoak dira. Kontseiluarekin egin duten hitzarmena ahalegin horiei gehituko zaie. Honela dio sinadura ekitaldian izan zen Inaxio Garro alkate eta Euskara batzordebu-

LAMAI
rkitektura

hirigintza, birgaitza eta
eraikuntza jasangarria

tel: 677 31 20 57
e-posta: lamaiarkitektura@gmail.com



KONTSEILUA

da, hark esateko duena objektiboa izango delako guk gure burua ebaluatzea baino".

Hala ere, hitzarmenak ez du aldatzen Eskoriatzako Udalaren jarduera euskararen alde: "Guk normalizazioaren bidean jarraituko dugu, orain arte bezala. Euskaraz Zerbitzuaren helburua da Udalak herritarrei haien aukerako hizkuntzan zerbitzua eskaintzeko gertu egotea; eta, bestalde, herrian gero eta gehiago egin dadin euskaraz, eta gero eta jende gehiagok egin dezan".

Pedro Iturbe

ANTZUOLAKO ALKATEA

"Informatika ekipamendua euskaratu nahi dugu hurrengo"

ruak: "Orain arte izan ditugun ahuleziak ikusteko eta hobetu gura duguna lantzko orduan, kontuan izango dugu lankidetza horren haritik datorren guztia".

Aretxabaletako Udalak azaro-ko osoko bilkurau aurkezteko izango ditu gertu Euskara Batzordeak egindako proposamen batzuk, 1991ko ordenantza haiek berritzeko. Neurriok nondik nora joko duten galdetuta, "kultura, kirol eta aisiaaldi" aldetik jo dezaketea dio Garrok, "baina oraindik proposamenak dira".

Merezi duten tarteak izango dute ere teknologia berrieik eka-rritako balibideek, orain 18 urte ez zeudenak.

Mari Carmen Arrieta

ESKORIATZAKO UDALEKO EUSKARA TEKNIKARIA

"Beste eragile batek gure lana baloratzea interesgarria izan daiteke"

Eskoriatzako Udalak azpimarratzen du 2008ko otsailean onartu zuela Kontseiluarekin hitzarme-na egitea. Orain, Kontseiluaren ebaluazioen emaitzen zain dau-de jakin-minez, eta, Mari Carmen Arrieta Euskaraz Zerbitzuko teknikariak dioenez, "kanpoko era-gile batek Udal honen euskara politika neurtzea interesgarria

DATUA

6
HERRI

DATUA

100
NEURKETA

Kontseiluarekin hizkuntza-politikan elkarlana sendotzko hitzarmena sinatu dute Euskal Herriko 22 udalek; tarteak, Debagoieneko bostek eta Ara-maioko Udalak ere.

Maite Guridi

BERGARAKO UDALEKO EUSKARA ZINEGOTZIA

"Aurrerapausoak emateko tresna da hitzarmena, eta ondo baloratzen dugu"

Zapatuko ekitaldian izan zen Mai-te Guridi zinegotzia, eta hauxe diosku: "Udal honek modu positiboan baloratzen du hitzarmena, aurrerapausoak emateko tresna gisa eta Udal honen hizkuntza politikaren pizgarri gisa". Bergarako hizkuntza politikaren inguru honako lehentasunak dituzte, beste batzuen artean: hizkun-tza urraketa aztertu, UEMArekin; EBPNrekin urteko gestio plana; edo etorkinendako harrera eta euskara proiektu bat.

Pedro Iturbe

ANTZUOLAKO ALKATEA

"Informatika ekipamendua euskaratu nahi dugu hurrengo"

EUSKALGINTZA, FORU ALDUNDIAREKIN

Helburuekin aurrera, diru gutxiagorekin

Gipuzkoako Foru Aldundiak euskara hizkuntza politika "sendotu eta indartzeko" konpromisoa azaldu die euskalgintzako eragileei; hori bai, krisiaren poderioz, aurrekontu txikiagoarekin eta "helburuak egokitutu eta lehentasunak ipiniz". Horiek izan ziren joan den egubakoitzean euskaren normalizazioan lanean dabiltsan talde, erakunde eta enpresek Aldundiko Kultura eta Euskara diputatuak, Maria Jesus Aranburuk, eta Euskara zuzendari nagusiak, Estibalitz Alkortak, egin zuten topaketaren ondorio nagusiak. 120 ordezkarri izan ziren; tartean, Debagoieneko hainbat -Goiena, horietako bat.

"PROGRAMA GUZTIEKIN AURRERA EGINGO DUGU"

Alde onean, Foru Aldundiak datozen bi urteotan bere hizkuntza politikak jarraituko dituen 15 helburu eta 71 ekintza definitu zituen eragileon aurrean. "Interes taldeak sustatzea eta erlazioa sistematizatzea, Aldundiaren lidergoa sustatzea eta erakundeen arteko hizkuntza politika bateratzea" dira helburu nagusietako batzuk.

Eta alde txarragoan, ekonomia aldetik bizi dugun "egoera korapila-tsua" honetara egokitzeo "ahalegina" egin beharko dute euskalgintzako eragileok, "herri erakundeon aurrekontuak murriztu beharra izango baita epe laburrean". Hala ere, "programa guztiekin aurrera egiteko" konpromisoa azaldu zuen Foru Aldundiak.

Birziklatu



ontziek bizitza luzea dute

*400 euroko saria

Zure etxearen jasoko duzun inkesta orria edo www.debagoiena.com webguneko inkesta bete eta sar ezazu txartela, horretarako zure udaletxean eta mankomunitatearen bulegoan jarriko diren postontzietai. Iku kaxen kokapena www.debagoiena.com webgunean.

*Sari +

Urriari, GOITBko Magazinea saioan izango den lehiaketan parte hartu eta sari gehiago jasotzeko aukera izango duzu.

Debagoinen bizi diren adin nagusikoak eta bertako irabazi asmorik gabeko elkarrekin haritu ahal izango dute parte lehiaketa hauetan. Oinarri guztia www.debagoiena.com webgunean.

Parte
hartu **birziklatuz**

irabazi* kanpainan eta sari ederra eskura dezakezu!
oinarriak: www.debagoiena.com

400
€

SARTU



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Plastiko, lata eta brik ontziak


ECOEMBES
BIRZIKLATZEKO BEREIZTU



Zerrajerako etxeen parean, urbanoa gelditzen den tokian egingo du geldialdia 'Bertakoak' autobusak.

GOIENKARIA

ZERBITZUAK > AUTOBUSAK

Lurraldebus ospitale ondoan geratuko da aurrerantzean

Bi geltoki egokituko dituzte ospitalaren inguruan: bata egingo dute Zerrajerako etxeen parean

Erabiltzaileek egindako eskaerari erantzuna eman gura dio Lurraldebusek geltoki berriein

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE
Lurraldebus autobus zerbitzuko autobusak eskualdeko ospitale ondoan geldituko dira aurrerantzean. Hain zuzen ere, *Bertakoak* lineako autobus guztiek bi geldialdi egingo dituzte ospitale inguruan. Geltokietako bat Zerrajerako etxe berrien parean –egun Arrasateko urbanoa geratzen den tokian– egingo dute. Bigarren geltokia behin-behineko lekuaren jarriko dute. Arrasateko Udala bigarren geltokirako leku aproposena aztertzen dabil. "Bergara-

tik eta Oñatitik datozen autobusak non geratuko diren aztertzen gabe, errepiide bazterrean edo Nafarroa etorbideko biribilgunean.... Baino oraindik ez dugu ezer zehaztu. Eskoriatzako autobusak Zerrajeran geratuko dira, urbanoaren geltokian", esan digute Arrasateko udal iturriek.

Ospitale aurrean egokituko dituzten geltokietan *Bertakoak* lineako autobus guztiak geratuko dira. Hau da, Eibar-Eskoriatza, Bergara-Eskoriatza eta Oñati-Arrasate lineatako autobusak.

ERABILTZAILEEN ESKARIZ

Bertakoak lineatan geldialdi gehiago jartzearen erabakia era-biltzaileek egindako eskaerari erantzuna emateko hartu du Lurraldebusek. "Herritarrek pertsonalki eta hainbat udalek eskaerak egin dituzte ospitale ondoan geldialdiak egiteko. Debagoieneko herritar asko joaten da ospitalera eta aparkaleku arazoak egoten dira egunero. Autobusa ospitale ondoan geratzen bada, aparkaleku arazoa konponduko genuke, hein handi batean", esan digute udal iturriek.

Oraindik ez dakite noiz hasiko diren Lurraldebuseko autobusak ospitale ondoan gelditzen.

AUTOBUSAK, TXAGORRITXUN

Bestalde, erabiltzaileen eskaerei erantzunez, Pesak geldialdia egingo du aurrerantzean Txago-

rritxuko ospitale ondoan; hain zuzen ere, Lakuan geratuko da. 07:00etan, autobidez zuzenean doan Eibar-Bergara-Arrasate-Gasteiz lineako autobusak geldialdia 08:10ean egingo du Lakuan, astelehenetik egubakotzera. Linea horretako azken geldialdia Gasteizko autobus gelotoki nagusian egingo dute.

LURRALDEBUS TXARTELA BIZKAIAN

Lurraldebuseko txartelak bi urte bete ditu, eta PSE-EE alderdiak Lurraldebuseko txartela Bizkaibus-en A-3912 linean erabili ahal izateko ekimena abiarazi du. Alderdi sozialistak egindako proposamena aho batez onartu dute Bazaar Nagusietako alderdiek.

Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek hitzarmena sinatuko dute ekimena martxan jartzeko.

AZPIEGITURAK > TRANBIA

Aralarrek eta Alternatibak esan dute Debagoieneko tranbiak lehentasuna duela

Alternatibari mozioa onartu egin diote eta Aralarrek interpelazioa egingo du osoko bilkuran

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Debagoieneko tranbiaren garantzia eta beharra aldarrikatu dituzte Alternatibak eta Aralarrek, Eusko Jaurlaritzak esku artean dituen proiektuetan tranbia ez dagoela ikusi dutelako. Alternatibak mozioa aurkeztu zuen Bazaar Nagusietan eta Aralarrek interpelazioa aurkeztuko du Legebiltzarreko osokoan.

Alternatibak Gipuzkoako Bazaar Nagusietan aurkeztutako mozioa onartu egin dute EAJ, Hamaikabat, PP, Aralar eta Alternatibaren aldeko botoekin. Mozio horretan tranbiaren beharra azpimarratzen dute, eta Debagoieneko tranbiari lehentasuna ematea eskatzen dute. "Beharrezko da Debagoieneko tranbia, besteak beste, herri arteko lotu-

rak eta herri barruko loturak egiteko. Mugikortasun arazoa konpondu egingo lirateke", esan digu Alternatibako kide Ander Rodriguezek.

Bazaar Nagusietan onartutako mozioa Legebiltzarreko bidaiko dute, bertan azter dezaten.

ALARAREN INTERPELAZIOA

Era berean, tranbiaren garantzia azpimarratzeko interpelazioa aurkeztuko du Aralarrek Legebiltzarreko osokoan. Iñaki Arriola sailburuari galdetuko diote ea tranbia euren proiektuen artean dagoen, eta hala bada, zenbateko lehentasuna duen. "Euskadi 09 programaren barruan ez dute tranbia sartu. Aldiz, Donostiako metroari garrantzi handiagoa eman diote. Hori salatuko dugu", esan digu Aralarko kide Dani Maeztuk.

ESANAK

"Tranbia beharrezkoa da herrien arteko eta herri barruko loturak egiteko; autoa gutxiago erabiliko genuke"

Ander Rodriguez > Alternatiba

"Eskualdeko mugikortasun arazoa larria da, baina Jaurlaritzak ez du tranbia lehentasunen artean sartu"

Dani Maeztu > Aralar

> ERAKUSKETA Arrikrutzi buruzko informazioa eta argazkiak Donostian

Espaniako Koba Turistikoen Elkarrekin (ICTE) erakusketa zabaldu du gaur Donostiako Garbera merkataritzagunearen sarreran, urriaren 12ra arte. Estatuko hainbat kobaren gaineko informazio eta argazkiak bildu dituzte; tartean, Oñati Arrikrutz kobaren informazioa jaso dute. Guztira, 16 modulu jarri dituzte –koba bakotzeko bat– eta kobaren gaineko informazio eta argazkiak daude.

Arrikrutzearen batera, Kantabria, Huelva, Palencia, Burgos, Leon, Valentzia, Alacant, Castello, Bizkaia, Malaga eta Nafarroako kobak bildu dituzte. ICTEren helburua Espaniako Estatuko kobak ezagutzen ematea da.

> POLITIKA Elkarlan akordioa egin dute pintaketak eta kartelak kentzeko

Euskadiko Udalaren Elkarrekin (Eudel) eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak terrorismoaren biktima "umiltzen" dituzten kartel eta pintaketak kentzeko elkarlanerako akordioa egin dute. Helburua da terrorismoa goratzen eta omentzen dituzten legez kanpoko pintaketak eta kartelak plaza eta eraikinetatik kentzea. Era berean, bi erakundeen arteko elkarlanarena presoen argazkiak dituzten kartelak kentzera zuzenduko dute. Ertzainek eta udaltzainek egingo dute lan hori. Bestalde, jaietan jartzen dituzten txosnen gainean "arreta berezia" jartzeko eta Biktimen Legea betetzen ez dutenei txosna jartzeko baimenik ez emateko eskatu diente udalei.

> ZERBITZUAK Autobus zerbitzuak sendotuko dituze gaur Arrasaten

Maritxu Kajoi eguna dela-eta, Pesa autobus konpainiak gaur gaueko autobus zerbitzua indartu egingo du.

Eibar eta Eskoriatza arteko ibilbidea egingo duen autobusa 00:00etan 06:00etara bitartean, orduro, puntuaren aterako da Eibartik, eta Bergarakitik erdian pasako da. Eskoriatza-Eibar lineako autobusa ordutegi berean irtengo da.

Bestalde, Oñati eta Arrasate arteko ibilbidea egingo duen autobusa 00:00etan, 01:00etan, 02:00etan, 03:30ean, 04:30ean eta 06:00etan aterako da Oñatitik. Gainera, 02:00etako eta 04:30eko autobusak Gatzagaraino joango dira.

ARKEOLOGIA > ATXORROTZEKO INDUSKETA LANAK

Atxorrotzeko gaztelua berreskuratzen dabilta

Hilaren 15a arte egingo dituzte idusketa lanak eta bisitak antolatu dituzte lanak ikusteko

OIHANA ELORTZA > ESKORIATZA

Atxorrotz mendiko gaztelua berreskuratzen dabilta. Atzo, eguna, hasi zituzten indusketa lanak, eta hilaren 15a arte ibiliko dira egunero hiru lagun azterketa arkeologikoa egiten.

GAZTELUAREN OINARRIAK

Atxorrotzko ermita azpian dau- de Erdi Aroko gazteluaren oinarria, eta horiexek bistaratuko dituzte Larrate indusketa enpresako aditurek. "Metro eta erdiko sakoneran daude oinarria, gutxi gorabehera. Indusketa lan hauekin gura dugu agerian utzi gazteluko sarrerak zeintzuk ziren eta dorre nagusia non zegoen, adibidez", dio Larrate enpresako Iñaki Sagredo historialariak. "Gaz-

telu horretan egin ziren azken azterlanak Ignacio Barandiaranek zuzendu zituen 60ko hamarkadan. Harrezkero ez da ezer egin, eta oinarriekin batera agertuko diren zeramika piezak edo bestelako elementuak laborategira eramango ditugu ikertzera. Urtebeteko lana dugu", gainetan du Sagredok.

BISITA GIDATUAK

"Indusketa lan hauek gizarteratu egin gura ditugu, eta, besteak beste, bisita gidatuak antolatu ditugu. Azaroan, adibidez, erausketa jarriko dugu Ibarraundin, eta hitzaldiak egingo ditugu urtea bukatu aurretik", aurreratu du Pedro Lasagabaster Eskoriatzako alkateak.

Lanak gertutik ikusteko bisita gidatuak egingo dituzte urriaren 12an eta 17an, 10:00etan. Ibarraundin eman behar da izena.


ESANAK

"Indusketa lanak gizarteratuko ditugu, bisita, erakusketa eta hitzaldiekin"

Pedro Lasagabaster > Alkatea

"Aurkitzen ditugun elementuak eraman egingo ditugu ikertzera"

Iñaki Sagredo > Historialaria



Udaleko, Ibarraundi museoko eta Larrate enpresako ordezkariak, Aitzorrotzko gazteluaren margo batekin.

etxeko leihotik



Goiatz Arana > 'goarana@goiena.com'

Zortzi t'erdietan, Maritxu Kajoipean!

A rtikulu honek argia ikusten duenerako, beharbada, lanean ariko dira Arrasateko ile apaingegietan. Edo azken osagarriak non eta nola eskuratu pentsatzen ariko da bakarren bat. Gaur urriaren 2a da, urriko lehen egubakotza, zerrajeroen herrian Maritxu Kajo ospatzeko eguna.

Esan beharrik ez dago txikiteroen zaindaria dela Maritxu Kajo. Txikiteroen; hau da, tabernaz taberna txikitak -ardoak- edaten dituztenena. Bainan zenbat ibiltzen dira, baina, gaur egun txikiteoan? Garai batean baino askoz ere

"Atzean geratu dira tabernak txikitak betetzen ziren egunak"

Baina berdin dio. Maritxu Kajoik guztiak zainduko ditu: txikitak edaten dutenak eta ez dutenak, garai bateko jantzi dotoreak nahiz gaur egungoak aukeratzen dituztenak...

Lore eskaintza egitera hurbilduko zaizkio denak edo ia denak eta Maritxu Kajoik mirari batekin emango dizkie eskerrak.

> **Herri Eguna** ospatuko dute Oñatin, arrastearrek ajeari buelta ematen dioten bitartean. Bainan txantxikuek ere, horrenbeste jaiegunekin, lanak izango dituzte euren onera etortzen San Migel jaiak bukatutakoan!

> **Intxortako** miliziano eta gudariei omenaldia egingo diente etzi Elgetan. Berandu da joan zirenenetako, ez daude hemen ikusteko. Bainan egin zutenaren errekonozimendua jasoko dute haien ondorengoeik. Bada zerbait.

MANKOMUNITATEA > ZABOR TASA

Datorren urtean ez dute zabor tasa igoko

Bi lan-poltsa betetzeko deialdia egingo du laster Mankomunitateak

O.E. > ARRASATE

Datorren urtean, 2010ean, zabor tasa ez igotzea proposatu die Mankomunitateak Debagoieneko udalei. Orain, udal bakotzak erabaki behar du proposamen hori onartu edo ez, baina udalen joera izan da Mankomunitatearen proposamenari kasu egitea. Oraingo tasekin gastuak

ordaintzea posible delako era-baki du Mankomunitateak proposamen hori egitea. Aurtengo, 2009, urtarrilean %10 igo zuten zabor tasa eta bigarren seihilekoan, ordura artekoaren %20,1. 18.000 tona zabor batzen dira Debagoienean urtero.

Bestalde, zabor tasa ez igo-tearekin batera, lan-poltsen deialdia egitea ere onartu zuen Mankomunitateak iraileko bileran. Horrela, Epeleko eta garbiguneetako zaintzaileen eta turismo teknikarien lan-poltsak betetzeko deialdia egingo du laster.

MEMORIA HISTORIKOA > OMENALDIA

1936an fusilatutako bost auzokideen aldeko meza egingo dute Osintxun hilaren 18an

Beste ekimen batek gerran hildakoak omenduko ditu etzi, Elgetan

O.E. > BERGARA

1936ko urriaren 20an fusilatutzen auzoko bost gizonezkoen aldeko meza egingo dute urriaren 18an Bergarako Osintxu auzoan. Bost auzokideak ziren: Ricardo Zangitu, Jose Garaikoetxea, Rufino Akizu, Tomas Iñarra eta Ildefonso Iñarra.

Osintxuko bi emakumek deitu dute meza, eta gerran fusilatutako osintxuarren alde egiten den lehena da. Meza auzoko elizan izango da, urriaren 18an, 12:00etan.

2011 EKITALDI GEHIAGO

Luis Mari Alberdi auzo alkatearen esanetan: "Auzo batzordeak ere beti nahi izan du zerbait egitea hildako horiek gogora ekarazteko, baina orain arte ez dugu ezer egin". 2011n, gerraren 75 urtemuga beteko da eta orduan auzoko hildakoak gogora ekartzeko ekitaldia egingo dutela aurreratu du auzo alkateak.

OMENALDIA 'INTXORTAKO ATEA'-N
Bestalde, domekan, urriak 4, gerran hildako milizianoen eta

gudarien memoria historikoa bizirik mantentzeko omenaldia egingo dute Elgetako Intxortako atea-n. Lau Haizetara Gogoan-ek, Intxorta 1937 kultura elkartearak eta Elgetako Udalak antolatu dute omenaldia. Gerra bizi izan duten eta oraindik bizirik dauden guztiek daude omenaldira gonbidatuta: borrokariak, zibilak zein senitartekoak.

Omenaldia 12:00etan hasiko da Intxortako atea-n eta 14:00etan herri bazkaria egingo dute Espaolia Kafe Antzokian.


ONDAREA > ARANTZAZUKO BASILICA

Arantzazuko basilikako apostoluak babesteko lanak egiten hasiko dira

Petra enpresak Aldundiaren eskariz apostoluen zaintzaren gaineko azterketa egin ondoren hasiko dira eskulturak babesteko lanetan Teusa etxeakoak

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI
Arantzazura azkenaldian joan direnek basilikaren aurrean aldamioak ikusi dituzte. Zertarako? Arantzazuko apostoluen eskuulturei konponketa txikiak egiteko.

Orain dela bederatzi urte zaharberritzelan berezia egin zutela azaldu digu Juan Inazio Larrea frantziskotarrak: "Apostoluek pitzadura batzuk dazukate, Markinatik ekarritako harriak oso gogorra izan arren zain asko dituelako. Neguan batik bat eguzkirkirik sartzen ez den tokian daude apostoluen irudiak, eta zain horietatik sartzen da ura eta gero izoztu eskulaturak pitzatzuz. Hortaz, tratamendu hidrofugoa eman zuten, ura harrian sar ez zedin".



Aldamioak, basilikaren atarian. I. A.



Petrako Dolores Sanz eta Izaskun Benito azterketa egiten. I. A.

Azaroaren 8rako aldamioak kenduta

Lanek azarora arte iraungo dute; hori da, behintzat, aurreikuspenek diotena. Izan ere, azaroaren 8an Arantzazun ospakizun berezi bat egingo dutenez, ordurako aldamioak kenduta egon daitezen nahi dute. "Aurten betetzen da basilikako kripta amaitu zuteneko 25. urteurrena eta apostoluetan ez ezik kriptan ere berrikuntza txiki batzuk egiten dihardute; argiztapenean eta diseinuan, besteak beste. Urteurren hori ospatu nahi dugu inaugurazio batekin. Nestor Basterretxea ekartzea da asmoa, baita Arantzazuko adiskideak hemen elkartzea ere", esan digu Juan Inazio Larrea Arantzazuko frantziskotarrak.

AZTERKETA

Bederatzi urteren ondoren, berrikuspena egiteko unea heldu da eta horretan dihardute. Foru Aldundiaren eskariz, aurrez, apostoluen zaintzaren gaineko azterketa egiten dihardu Petra etxeak. "Aztertzen ari gara nola dagoen harria eta zein tratamendu ipini zuten aurrekoek, oraingo lanak ahalik eta ondoen egiteko", esan digu Petra Dolores Sanzek.

Hasiak dira azterketa egi-ten, eta gero, Teusa etxea ardu-ratuko da behar diren ukituak egiteaz. "Ikusi behar dugu mer-ka-tuan nolako hidrofuganteak dauden, zaila delako harriari kolorea aldatuko ez duen hidro-fugante ona aurkitzea. Apostoluak babestu nahi ditugu eta harriak apurtzen diren tokie-tan morteroa ipini, baina behe-tik ez da ezer igarriko", dio Dolores Sanzek.



Ordezkari politikoak eta enpresakoak, aurrekua ikusten.

LEIRE KORTABARRIA

EKONOMIA > DANOBAT RAILWAY SYSTEMS

Sektore berrien alde egin du Danobatek

Lantegiaren inaugurazioan, balio erantsia duten sektore espezializatuekiko apustua berretsi zuen

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Berrikuntzaren, goi mailako sektoreetan espezializazioaren, eskaintza integralaren eta emplegu kualifikatuaren aldeko apus-tua berretsi du Danobat Group-eko Danobat Railway Systems-ek (DRS) Mekolalde industrialdean astelehenean inauguratu zuen lantegiarekin eta hantxe erakutsi zuen lorpenarekin: Errusiako TVSZ trenbide enpresarendako egin duen treneko ardatz muntauak egiteko munduko lerrorik aurreratuena.

Patxi Lopez lehendakariak inauguratu zuen lantegia, eta han batu ziren euskal erakundeetako zein enpresako ordezkariak.

PUNTAKO LANTEGIA ELGOIBARREN

Errusiako egin duten lerroak 63 milioi euroko kostua izan du; instalazio berriei 10.000 metro koadro hartzen dute, 12 milioiko ibertsioarekin eta denbora erre-korrean eginda; 65 langile kualifi-katuk dihardute han eta hiru urteren buruan 200 laguneko lan-taldea aurreikusten da.

Horrez gain, Danobat Group-ek beste proiektu baliagarri batzuk ditu dagoeneko, zuzenda-ri orokor Rafael Barrenetxeak jakinarazi zuenez: 2010erako ger-tu izan nahi dute Elgoibarren sor-gailu eolikoetarako palak modu mekanizatuan egingo dituen munduko lehenengo lantegia. 10 milioiko ibertsioarekin egiten dabilta hori, eta 20 lanpostu sortuko ditu. Horrekin lotuta, etor-kizunean sektore eolikoan, aero-nautikoan eta trenbideenean sar-tzeko erabakia agertu zuen Danobat Taldeak. "Trenbidearen

sektorea %20 igo daiteke datozen urteotan eta sektore eolikoan %15era ailegatu nahi dugu", iragari zuen Barrenetxeak.

BATZUK, %20AN BAKARRIK

Inaugurazio hitzaldian, Lopez lehendakariak esan zuen "indus-triak izan behar" duela Euskadi krisitik aterako duen "motorra", eta euskal makina-erremintaren

pisua gogorarazi zuen. Danobat Taldeko zuzendariek esan zuten "eskabide-zorro ona" dutela, baina onartu zuten mundu osoan sektoreak ohi baino bezero gutxiago lortu dituela azken urte erdian.

Makina-erremintaren sektore-rea ere igartzen dabil krisia; enpre-sa batzuek %20ko aktibitate-portzentajea dute. Ondoan dabiltsanak trenbidearen sektorean espezializatzen dabiltsanak dira, eta Danobat Railway Sys-tems da horren adibide bat.



Lehen planoan, lehendakaria eta Danobateko arduradunak.

L.K.

DATUAK

63
MILIOI EURO

Errusiako TVSZ enpresak Danobat Groupi egin zion eskaerak 50 milioi euroko hasierako aurrekon-tua zuen, baina azkenean 63 milioikoa izan da, Espainiako makina-erremintako handiena.

200
LANGILE

Mekolaldeko lantegian 65 lanpostu kualifikatu sortu ditu Danobat Railway Systemsek eta hiru urteren buruan 200 langile izatera ailegatu nahi dute, denak kualifikazio handikoak.

**CURE WEB GUNEARI BIZITASUNA
FALTA OMEN ZITZAION, ETA JON
SARTU DUGU BARRUAN.**



Aholkulari pertsonala,
bizi-bizi eta aurrez aurre,
behar duzun guztirako.
Telefono, bideokonferentzia
edo txat bidez.

10 etatik 10 etara
bezero izan nahiz ez
gaztekutxa.net

zer nahi duzu bihar?

**zabalik**

Maite Aristegui

Zer sinistu?

kara eta beldurra baliatzen dituzte gobernuak jendea kontrolpean izateko", Tim Robbins aktore eta zuzendari amerikarrak gure artean aste honetan esandako hitzak. Eta beste halako egia borobil batzuk ere bota ditu: "Errealitatearen berri izan nahi duenak hobe du telebista itzaltzea" edota "hitz egiteagatik bakarrik sartzen dute kartzelan jendea gaur egun". AEBetako gizarte eta politikan pentsatzen ariko zen, baina bertakoa ere majo islatu du. Hainbat gaitara aplika daiteke, baina, esaterako, udaberrian hasi ziren A gripearren arrisku eta mehatxu beldurgarriaz izua zabaldu eta bandoa jotzen. Orain badirudi gero eta argiago gelditzen ari dela estafa bat baino ez dela eta lasaitasunerako deia datozkigu nonahitik. Bainan batzuen negoziorako tresneria martxan da.

Egunotan gorputzari entzuten ohitura dagoen Eneko Landaburu sendagile higienistari irakurriak: "Ez da batere osasuntsua entzuten dugun dena sinestea, estatistiketan nahastu eta gezurra esateko sekulako artea baitago. Industri farmaceutikoen pertsonen ongizatea baino askoz gehiago maite du dirua. OMSko espertoak kongresuak, ziurtatua dute salmenta ederra (dagoeneko Espainiako Gobernuari atera diote 333 miloi euro). Eta

gripea ez da ez kutsakorra ez eta arriskutsua ere, geure gorputzak argi jokatuz arriskuari erantzuteko barrutik eragindako erantzuna baizik. Arriskutsua gerrak, kutsadura, elikadura modernoa, bizitza honetako tentsioa, pobrezia... dira". Argi dago norbait engainatzeko onena beldurra eta presa sartzea dela, pentsatzen ez jaritzeko. Honetan eta beste hainbat gaitan, ez dezagun ezer ziurtzat jo. Entzun eta jarrai ditzagun Naturaren bihotz taupadak, bera baino egia dioen bakarra. Boikota multinazional farmaceutikoei. Nork bere barruko ahotsa isilarazten badu, zer geratzen zaigu?

usteak uste

Mireia Bikuña

Stieg Larssonen trilogiari buruz

O porren aurretek atal honetan idatzi nuen Stieg Larssonen trilogia irakurtzeko asmoa nuela udan. Irakurri dut eta asko gustatu zait. Bainan irakurritako kritika batzuekin ez nator bat. Zioten lehen liburua ona zela eta hirugarren oso ona. Aldiz, bigarrena ez zela horren ona. Ba, niretzat bigarrena eta hirugarrena oso onak dira. Lehenak balio du pertsonaiak aurkezteko eta trilogiako argumentua zabaltzeko, baina lehen 100 orriak oso astunak dira. Zuek zer diozue?

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendarri nagusia** Inazio Arregi

Zuzendarria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belaustegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edi Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarriko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortz Martín, Ixasoz Bereizbar, Aintzane Muruamendia **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Galintzaran, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09

Posta-e: public@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** I577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**marrazkiz**

Unai Busturia

**blog-top**

Demokratak, berriro. 225 milioi

Imanol Murua Uria
www.berria.info/blogak/imanol

Hedabide digital batean irakurria: abuztuan Frantzian ETAren 14 lehergai gordeleku atzeman zituen operazioan parte hartu zuten poliziea dominak jarriko dizkie bihar Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako Barne ministroak. Haietako batzuei, arduradunei, Bereizgarri Gorriko Gurutzea jarriko diete. Beraz, bizitza osorako pentsioa izango dute hemen-dik aurrera, gaur egun jasotzen duten soldataren %10 inguru gehiago. Operazioan aritu ziren polizia arruntak kexu dira, beraiek Bereizgarri Gorriko Gurutzeak eta bizitza osorako pentsiorik jasoko ez dutelako. Baino hori beste kontu bat. Kontua da aste honetan Rodolfo Aresek jakinarazi duela ETAren aukako borroka dela-eta Jaurlaritzak 225 milioi euro gastatzen dituela urtean. Ez

dakigu kopuru horretan bizitza osorako pentsiorik baden, baina arazo baten neurria ematen du behintzat: jende gehiegiri ez zaio komeni gatazka madarikatu hau bukatzea. Dirua dirua baita..

Anbulatorioa

Nahikari Ayo
www.goiena.net/blogak/begietatik

Asteanean lagun batekin joan behar izan nintzen anbulatorioa. Sartu bezain laster, mugikorrari soinua kendu nion. Iruditen zait arruntena dela, horrelako leku batean itzaltzea. Berbetean ibili ginen, baina oso baxu.

Txikitán amak erakutsi zidan itxaron geletan isilik egon behar dela eta formal-formal. Ba ez... Gaur egun, ez da horrelakorik gertatzen. Neska bat sartu zen eta telefonoa etengabe zebilen joka. Ez zion soinurik kendu.

Amama, ama eta alaba sartu ziren. Ozen hitz egiten, mugikorretik hitz egiten,...

Gora gaixoekiko errespetua!

koplak

Xabier Igoa

Betsolari Txapelketa Nagusia 2009

Zestoan hasi behar da laister "mendi errusiar" onena, abenduaren 13an BECen bukatuko dena!

Lasai guretik pasatuko da hauxe behar den erara azaroaren 7an dugu eta tokia Bergara.

Errusiar mendi gisara dator ta jadanik hemen dago baina nerbioak seguru daude Igeldon baino gehiago!

Gora ta be(h)e)ra, be(h)e)ra ta gora desnibelak nabarmenak, Bainan azkenean irabazten du beti erregularrenak!

Gora ta be(h)e)ra, be(h)e)ra ta gora tokatzen zaigun bagoian nibela behintzat seguru aski beti egongo da goian!

Nahiz gustokoa ez izan edo horixe bera zuk uste azken batean igoko zara edo igoko zaituzte!

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Omenaldia Intxortako miliziano eta gudariei

Oxel Erostabarre
(Elgetako alkatea)
Elgeta

Urriaren 4an, Intxortako Atea eskulturaren aurrean elkartuko gara; gogoratzeko, ideologia desberdinak miliziano eta gudariei errepublikaren defentsan erakutsitako mugarrak gabeko konpromisoa. Intxortan, Euskal Herrian eta baita estatuko hainbeste eta hainbeste herrian, armetan askoz ere gehiago zen etsaiaren aurrean, herriak berak lortutako eskubideen defentsa egin zutenak gogoratzeko.

Herriak lortutako eskubideen defentsan jardun zuten askorentzako, berandu dato urriaren 4an egingo dugunaren moduko omenaldia eta aldarrikapenak. Ezin da gehiago berandu fusilatu, desagertutakoenean, goseak eta gaixotasunak frontean hildakoen errolda ofiziala. Eta ezin zerrenda horretatik kanpo laga preso hartu, exiliatu eta errepreszialitu zituztenak. Guztia biktima dira gureztako. Eurek eta euren familiek merezi dute, irabazia dute, gertatutakoaren egia ezagutza, genozidio hura egin zutenak justiziaren aurrera eramatea eta erakunde publikoek kalteordain neurriak ezartzea. Gure herriaren kontra altzatutakoek aurrera eraman zuten genozidioaren biktima guztiak, jaso bezate lerro hauen bitartez, elgetarron berotasuna. Jakin bezate lan egingo dugula Egiaren batzordea martxan ipintzearen alde.

Faxismoaren oinordekoak, hemen ditugu berriro ere. Hemen ditugu, gureztako hain bereziak diren leku eraso eginez. Aurrerago ere, eraso horiek jarraituko dutela aldarrikatuz. Gertatzen ari denaren aurrean erantzun bateratua eman behar dugu. Argi utziz memoria historikoa berreskuratzeko ekimenekin jarraituko dugula. Urriaren 4an Intxortaren magalean elkartuko gara egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatzeko eta aurrerago beste hainbat eta hainbat lekuetan elkartuko gara. Faxismoa betiko atzean laga nahi dugulako.

Lerro hauei bukaera emateko, hainbat eragilek elkarlanean egingo dugun

ekitaldi honetara gonbidatu gura ditut Intxortako gudari eta milizianoak eta haien senide eta lagunak, baita dagoeneko gure artean ez dauden familiartekoak eta lagunak. Urriaren 4an, 12:00etan, Intxortaren Atean elkartuko gara 1936an faximoa gelditu zutenak gogoratu eta etorkizuneko euskal errepublika aldarrikatzeko.

Hizkuntza

Ainhoa Perez
Arrasate

Hizkuntzaren aukeraketa librea bermatzeko talde bat dabil bazterrak nahasten, zenbait hedabide eta alderdi politikoren laguntzarekin. Eskatzen dute aukera izatea euren umeak A eredu matrikulatzeko, esaterako, Bergaran. Nafarroan, ostera, ukatu egiten zaie D eredu ikasi nahi duten ume askoren gurasoei. Horiendako ez da aukeraketa askatasunik.

Elkartasuna ez da delitua

Saioa Agirre
Aretxabaleta

Aretxabaletako Ezker Abertzaleak zapatu gertatutakoaren irakurketa zabaltzen du testu honen bitartez.

Atxabalantzan zapatu gertatzen da, eta horrek hainbat errepikatu dira: Gernika, Lekeitio, Hernani.... PNV eta PSOEren helburua elkartasunarekin lotutako ekimen guztiak desagerraztea da. Atxabalarrrok San Migel jaietan bizitakoa helburu horren isla da.

Zapatuan, Eusko Jaurlaritzak Ertzaintza Atxabaltara bidali zuen herriko jaiak pikutara bidaltzera. 12:00 aldera ertzainak frontoira gerturatu ziren, baziarien usainera. Bertan, herritar bat txakurra paseatzetan zebilea berarekin sesioan hasi ziren eta atxilotu egin zuten. Orduan herritar batzuk egoaren berri jakiteko frontoira gerturatu zirenean, identifikari eta atxilotu egin zituzten.

Lau atxilotuek Bergarako komisarian egon behar izan zuten gauera arte. Atxilotutako hiruri, presoekiko elkartasuna adierazten zuten pegatinak

soinean eramatearren, terrorismoa goraipatzea leporatzen diete. Momentu honetan atxilotuak jasoko duten zigorraren zain daude. Bazkariaren asmoa bakarra zen, euskal preso politikoi elkartsuna adieraztea. Baina ez dute lortuko elkartasun keinuak isilaraztea.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu herri bazkaria aurrera eramateen lagundu zuten guztiei. Baita ere, eguerdi eta arratsaldeko mobilizazioen parte hartu zutenei.

Euskara sakratua

Jon Otero Uribarren
Arrasate

Artikulu hau soilik Jainkoan sinisten dutenendako da. Niretzat bi arrazoi edo frogadaude Jainko existitzen dela: bat, ortzia bukaezina da, infinitua, Jainko bera bezala, bukaezina da Jainko; bigarrena, nork sortu zuen bizia? Mirari bat da bizia, eta Jainkoak sortu zuen.

Behin argi dagoela Jainkoan fedea, pertsonalki Panteista naiz, aipatu dezagun hau.

Oso aspaldiko Euskal Herriak, Vasconia deitzen ziona Krutwig-ek, eremu zabala zuen, Bordeletik Burgos ataraino, eta Aran haranetik Santanderaino. Esparru oso horretan, euskara mintzatzen zen, orain dela bi mila urte. Denboran atzeria joanda, gaurko mugetaino. Baina orain dela bi mila urte zenbat biztanle zituen Vasconia handi hark? Gutxi, oso gutxi. Denak ziren euskal hiztunak, baina biztanle gutxi zegoen, eta denen artean euskara mintzatzen zen. Gaurko Euskal Herrian hamar bider gehiago biztanle daude, eta euskal hiztunak %27 inguru. Orduan, esan nahi dut, orain dela bi mila urte Vasconian x egiten bazeen euskaraz, oraingo Euskal Herrian ere x zenbateko berdina egiten da euskaraz. Euskara Jainkoaren hizkuntza sakratua da. Ez ahaztu, kristauok, garai baten Jesukristo bizi omen zenean, iraultza egin zuela, jentiltasuna ezabatuz eta kristautasuna ezarriz, baina Jerusalengo hizkuntza, arameoa, galdu egin zen. Prezio handia ordaindu zuen.

Euskarak ez du egingo ez gora ez behera. Beti x hitz egingo da, euskara hizkuntza sakratua delako. Gora euskara askatua!

Goienkaria astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa Iraileko irabazoleak

**Sariak irabazteko
HARPIDETU!**
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

ZIRA



Andoni Altzelai Guridi
(Arrasate)

AQUARIUM-ERAKO BI SARRERA



Ekaitz Osa Zabaleta
(Oñati)

UMEENDAKO LIBURUAK



Mikel Lasa Palacios
(Bergara)

PENDRIVE BAT



Bittor Bengoa Altuna
(Zarautz)

SARI NAGUSIA IRAILETIK AZARORA BITARTEKOIA PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



AHTEC NETBOOK LUG NO11
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270
Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3
Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



- Partikular eta enpresei lagunza teknikoa.
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefona:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Joan den astean egin zuen lehenengo aldiz MUk ikasturte hasiera ekitaldia Eskoriatzan, Huhezi fakultatean. Unibertsitatearen erronkez, krisiaz...

dihardu Josu Zabala Mondragon Unibertsitateko errektoreak, eta Bolognari buruz dio "Euskal Herriarenak hobetzeko proposamena" dela.

Josu Zabala > Mondragon Unibertsitateko errektorea

"Pertsona berritzailak eta ekintzaileak behar ditugu"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Arrasateko esperientzia kooperatiboak urteak daroatza pertsonak hezten. 1997an, osteria, unibertsitatera jauzi egin eta MU sortu zuten. Josu Zabala da MUren laugarren errektorea, 2007a ezkerro. Hari tokatu zaio Bolognara egokitzea, MUren urteak deroatzaten arren Bolognaren filosofiarekin lanean.

Joan den astean egin zenutu ikasturtearen irekiera ekitaldia. Zer moduz?

Beste urte batzuen antzera, ohiko bidetik. Desberdintasun nagusiak bi dira: batetik, lehenengo aldiz gure fakultate batean egin zela ekitaldia eta, bestalde, lehendakaria berria zela. Jende asko, toki polita, klaustroan, eguraldi zoragarria...

Zergatik lehen aldiz Huhezin?

MUren ohitura da ikasturte hasiera ekitaldia herri ezberdinietan egitea urte bakotzean eta txandakatzen joatea. Orain arte Arrasaten eta Oñatin egin izan dugu, Goi Eskola Politeknikoa eta Enpresa Zientzien Fakultatea dauden herrieta. Amaia eta Santa Ana antzokietan egin izan dugu. Eta aurren, lehen aldiz, Huhezin; hau da, fakultate batean. Eskoriatzakoek eskatu zuten egitea fakultatean, baina iaz arte, arazoa zen areto estalpedunik ez zegoela han ekitaldi hori egiteko. Iaz berritu eta egokitu egin zen kapera eta horregatik erabaki zen Huhezin egitea. Eguraldi ona egin zuenez, klaustroan egin genuen, toki zoragarrian.

Lehendakaria, Hezkuntza sailburua, MUko buruak, irakasleak... baina ikaslerik ez.

Ohikoa da ikaslerik ez egotea horrelako ekitaldieta. Ekitaldi erabat instituzionalak dira. Gondidapena egiten zaie irakasleei, eragile sozialei, agintari politikoiei, ikasleen ordezkariei...

Ikasturte hasiera ekitaldiko diskurtsoan aipatu zenuen askoren iritziz egungoa ez dela ekonomia eta finantza-krisia soilik, balio-krisi orokorra bai-zik. Hala uste duzu?

Finantza edo ekonomia krisiaren sorreran, balio krisia dagoe-la diote. Balioak ez dira gauza estandarrak, aldakorrak dira denboran eta espazioan. Gure balioak, agian, ez dira asko aldatu edo eboluzio txikia izan dute: elkartsunak, errespetuak, konfiantzak, konpromisoak... hein batean, zenbait erakundetan jarraitzen dute. Hala ere, balioak aldatzen doaz. Ez da kasualitatea, esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak berak eta beste hainbat erakundeak hausnarketa egiten jardutea gure jendarterako balio batzuk berreskuratu beharaz.

Zer behar da krisi ekonomikotik ateratzeko? Balio horiek aldatzea nahiko da?

Krisia sakona da eta balioak ez dira aldatzen egun batetik bestera. Balioak berreskuratzea epe luzeko kontua da. Krisi honek

argi eta garbi erakutsi du, nahiz eta ondo formatuta egon, industria enpresak eta ondo kokatuta egon, azken urteetan lan ona egin dutelako, bada, ekonomia globalarekiko mendekotasun handia daukagula. Gure industria-enpre-sa ehuna merkatu globalarekiko menpekoa da. Frantzia, Alemania, Ameriketako Estatu Batuak... krisitik irteten ez diren bitartean, gu ez gara aterako. Orain, espero dut nahiko txukun eta azkar ateratzea, nahiz eta argi daukadan lehengo egoerara ez garela bueltatuko. Gure erronka nagusia da krisitik ahalik eta azkarren irtetea eta horretarako ezinbestekoa da indar politikoek, unibertsitateek, beste eragileek, batera jardutea eta alda-keta sakonak egitea.

Bolognara edo Goi Hezkuntzako Europar Eremura egokituta eskainiko ditu titulazioak aurrerantzean MUk. Esan dezakegu MUk aurre hartu diola zetorenari?

Bologna kontu zaharra da. 1998an ekin zitzaion prozesuari. Xelebrea da: urte hauetan guztietan ia ez da aipatu ere egin Bologna; osteria, azkeneko bizarri urteetan, askotan. Katalunian eta Madrilaren honen harira unibertsitarioek sortu dituzten istiluak, izan dira beste arrazoi batzuengatik, arrazoi politikoengatik, kasu askotan. Espanian astiro egin dute Goi Hezkuntzako Europar Eremura egokitza-pena; gobernu alda-ketak direla, beste arrazoi batzuk direla...

"Krisi honek erakutsi du ekonomia globalarekiko mendekotasun handia daukagula, nahiz eta ondo formatuta egon"

MU-REN BEREZITASUNA

"Beste unibertsitate batzuetatik desberdintzen gaitu jende eta erakundeen konpromisoak"



Josu Zabala, Mondragon Unibertsitateko errektorea, Goiena Telebistan.

Diozunagatik, onura asko, hortaz?

Onura asko dauzka Bolognak. Lehen esan dudan moduan, MUren urteak daramatzagu Goi Hezkuntzako Europar Eremura egokitzeko lanean. 2001 eta 2002. urteetan sensibilitatea izan zuten hainbat pertsonak European esaten zihardutena ulertzeko eta hemen ezartzeko: ikusi, ulertu, planifikatu eta abian jartzeko. Implementatze lan honeitan, MUren, fakultate ezberdinetan, aldaketa prozesu sakona egin dugu, Bolognaren filosofia barneratuz. Hala, hemen indarrean jarri denean, gure egokitza-pen lana eginda geneukan. Zoritzarrez, unibertsitate askotan aldaketa hori ez da egingo eta azaleko aldaketetan geratuko da kontua. Irakasleen jokae-rak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, azterketak... zenbateraino aldatuko dira? Hori da erronka. MUren egin den aldaketa eta beste batzuetan egin dena berdina da? Tituluei izenburua aldatzea nahiko da? Horiek dira erantzun beharreko galderak. Importantea da jakitea zenbateraino barneratu duen aldaketa unibertsitateko egiturak, pertsonak-eta...

BOLOGNA

"Unibertsitate askotan aldaketa hori ez da egingo eta azaleko aldaketetan geratuko da kontua"

BASQUE CULINARY CENTER

"Zenbait profesionalek beste irteera batzuk nahiago dituzte, sukaldari izatetik haratago"

Joan den asteko ikasturte hasiera ekitaldian nabarmendu zenutene titulazio berritzai-le bat eskainiko duzuela aur-tendik aurrera: Lidergo Ekin-tzailea eta Berrikuntza Gradua. Zer izango da titulazio hori eta zeini zuzendua?

Hemengo jendarteaek ekintzaileak behar ditu, berritzailak izan behar dugu. MUren graduondokoak-eta izan ditugu ekintzaileak formatzeko, baina Lidergo Ekin-tzailea bere osotu-sunean titulu berria da. Hau da gradu bat, non ikasleek hasiera-hasieratik proiektu bat har-tu eta bukaerara arte prozesu



guztia kudeatzen duten. Lau urte, lidero ekintzailea lanzen. Finlandian, azken 10 urteetan hau lantzen dihardute eta hango unibertsitateekin harremanetan gaude azken lau urteetan. Hiekin batera jardun dugu titulu hau definitzen.

Zeini bideratuta dago?

Ingeniari edo administrari izan ez eta ekintzailea izan nahi duenari; bere proiektu propioak aurrera atera nahi dituenari.

Zein da MUren ezaugarri nagusia, beste unibertsitate batzue-

tatik berezi egiten duena, eta zer eskaintzen du besteek eskaintzen ez dutena?

Titulazioei dagokienez, aurten abiatu ditugun biak; osterantzean, beste unibertsitate batzuen aldean gureak ez dira ezberdinak. Beste unibertsitate batzuetatik

desberdintzen gaituena, argi eta garbi, zera da: inguruko jende eta erakundeen konpromisoa unibertsitatearekiko, gure funtzioarekiko eta gure misioarekiko. Eta konpromiso horrek beste desberdintasun batzuk badakartzan: etorkizunari aurre egiteko, kudeatzeko moduak aldatzeko dohaina eta konpromisoa edukitza. Bolognara egokitza ez gaitu inork behartu; etengabe formazioa gure unibertsitatearen ikur garrantzitsua izan da beti; ikerketa ere bai... Hori guztia egiteko jokabide eta konpromisoa behar da, beste unibertsitate batzuetan aurkitzen ez dena. Daukagu konpromiso bat gure unibertsitarioak atera daitezen ondo prestatuta, heziketa egokia jasota. Bai teknikoki, baina baita balioen aldetik ere. Bestalde, argi dago, kooperatiba izateak ere bereizten gaitu.

Eta zein da MUko ikaslearen tipologia? Sexuari, jatorri geografikoari dagokionez...

Askotan ez da azpimarratzen, baina MU urtero 3.500 profesional pasatzen dira heziketa ez arautua jasotzeko: graduondokoak... Bestalde, eremu geografikoari dagokionez, gurea da unibertsitate erabat gipuzkoarra: %66 inguru; Bizkaitik dator %24; eta Arabatik, %58; gainerakoak, batez ere, Nafarroatik. Sexuari dagokionez, Oñatin, Empresa Zientzietan, %63 dira emakumezkoak; Huhezin, Eskoriatzan, %73 dira emakumezkoak; Ingeniaritzan, %29 dira.

Basque Culinary Center da MUren proiektu estrategikoa bat. Zer izango da?

Apustu berritzalea da. Aspaldiko egitasmoa, baina orain mamitu da. Hemengo sukaldariekin badute ospea munduan, erreferente dira, eta zerbaitek egiteko nahia zuten. Proiektua gure eskuetara eterri zenean, halako bertute batzuk ikusi genizkion, gure unibertsitatearen ohiko jardunetik aldentzen delako. Bestetik, aberatsa iruditzen zaigu: elikadura, osasuna, jakien kontserbazioa, sukaldaritzaritza bera...

Sukaldaria eskola soila baino gehiago izango da?

Sukaldaritzaritza eskolak badau, baina denak dira Lanbide Hezkuntza mailakoak. Eta ikusten dugu hutsune bat horretan, zenbait profesionalek beste irteera batzuk nahiago dituztelako, sukaldaritzaritza mailakoak-eta. Hortik gure eskaintza berri hau. Ospitaletan, eskoletan, lantegietan... zenbat janari ematen dira? Eta hori kudeatzeko sukaldaritzaritza mailakoak-eta. Hortik gure eskaintza berri honekin, ofizio honetan jauzi kualitatiboa eman nahi dugu, sukaldaritzaritza profesionalera dedikatzeko oso maila handian, edo goi mailako jatetxeak kudeatzeko: marketina, komunikazioa, ikerketa... Erreferenteak badaude: Ameriketako Estatu Batuetan, esaterako, mundu osoko 3.000 ikasletik gorako sukaldaritzaritza mailakoak-eta.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.

Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

RENOVE PLANA

Sukaldeko altzariak
1000€ merkeago



1200 b/min
8 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2812

360 €

FAGOR



1200 b/min
7 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2712

315 €

FAGOR



1000 b/min
6 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA 3F-1610

230 €

FAGOR



1000 b/min
5 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-110

175 €

aspes




144
x
55
x
60

A+ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA AFD-145

210 €

aspes



A+ Sailkapen energetikoa

INDUKZIOA IF-3F/X

475 €

FAGOR



A+ Sailkapen energetikoa

LABEA ETA BITROZERAMIKA

285 €

RENOVE PLANA

GARBIGAILUAK

ONTZI-GARBIGAILUAK

HOZKAILUA

IZOZKAILUA

LABEAK

A -85 €

A+ -105 €

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batzak besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ 70%
A 45%
B 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperativistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik. Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

"Giro alaia, jende jatorra
eta noski jantzi dotorea"



Amets
Ederra
Branka
Rumba Txoko
Iamai Itzala
Monte Bengoa Ostantz
Okorategi



Herriak

Arrasate > 14-18 Bergara > 19-22 Aretxabaleta > 24-26 Oñati > 27
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Gatzaga > 33



> BERGARA
Simon Arrietaren lan ezezagunak batu dituzte erakusketan > 21



> ARETXABAleta
Labordetaren eta Belcebluesen kontzertuak izango dira urrian > 25



> ANTZUOLA
Antzuola-Aiherria: senidetzearen 25. urteurrena ospatuko dute > 30



> ARAMAIO
Arkitektura ikasleak datoz hiri-antolakuntza ikustera > 32

BERGARA > OMENALDIA

"Eskerrik asko eta besarkada bat, denoi; besterik ezin dezaket esan"

PELLOREN EGUNA

Pello Garitanoren omenaldira joateko txartelak salgai daude

LAN HANDIA

Kiroletan, musikan, jaietan... egin duen lanagatik da ezagun

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Urriaren 18rako badaukate plana berigarar askok, Pelloren Eguna izango da-eta. Herriko eragine eta saltsero alai Pello Garitano herriaren alde egindako lana eskertzeko antolatu dute omenaldi hori. Meza egingo dute 11:00etan Labegaraietako parroki; pilotaleku, 12:30ean, Bergarako Udal Musika Bandak kontzertua egingo du eta 2. zatia Pellori bereziki eskainita izango da; gero, 13:30ean, triki-poteoa zahar eta gazteendako; eta 15:00etan, pilotaleku bazkaria, musika eta dantzaldia.

Urriaren 12a da txartelak eros-teko azken eguna, Lazkano zapata-dendan eta Ariznoa tabernan. 20 eurotan, txartela eta Pelloren Eguneko zapia ematen dituzte.

BIZIKLETA ETA MUSIKA MAITE

Txirrindularitza da Pello Garitanoen zaletasun bat, eta Lokatza taldean dabil, batez ere, lasterketak finantzatzeko publizitate bila. Mikel Larrañaga Lokatzako kidearen esanetan, "bera semeengatik hasi zen, orain 15-20 urte, jende gutxi zegoenean. Zerbait behar bida, lagunduko dut, zuen ahotan. Bere jarrafa ezin hobeat letra larritz nabarmendu behar da".



Motorrean eta txapelarekin, horrela sarri ikusten dute bergararrek Pello Garitano.

LEIRE KORTABARRIA

Pello Garitano > Omendua

"Ekainean 70 urte bete ditut, eta oraindik gaztea naiz"

L.K. > BERGARA

Hasieran urduritasunez hartu bazuen ere, orain pozik dago Pello Garitano hilaren 18ko omenaldiaren zain. Hitz eta oroitzapen onak besterik ez du.

Zelan izan zenuen omenaldiaren berri?

Semeak esan zidan hilaren 18rako planik ez egiteko, omenaldirako kontu bat izango da, ba?", baina erantzun zidan "zerbait herrikoia" izango zela; lana oso aurreratuta zegoela eta ez zegoela atzera bueltarik. Prentsan agertu da, kartelak ipini dituzte... Ez dakit hainbeste merezi dudan. Eskerrak, denoi, eta besarkada handi bat; besterik ezin dut esan.

Lokatza, hainbat abesbatzatan, jaiak antolatzen... Leku askotan ibili zara. Ze oroitzapen dituzu?

Oroitzapenak, denak onak ditut. Lokatza, dirua jirautear behar nuen; gustura egiten nuen lan hori, niretako denbora-pasa zen. Danborradan 50 urte daroat parte hartzen. Umeekin gustura ibiltzen naiz; helduek baino arretxa handiagoa ematen dute. Eta abesbatza batzuk laga behar izan ditut, baina oraindik batzueta segitzen dut.

Erretiratu zinenetik, gehiagorako astia izango duzu?

Bada, eguna etxafuegoa letxe pasatzen zait. Goizean, igerilekura noa, bazkaria egin, erresidentziari bisita egunero, iloben bila joan... Eta arratsaldean, Lokatzako batzarrak, entseguak, ortua... Eguna beteta izaten dut! 70 urte egun ditut ekainean, eta oraindik gaztea naiz. Orain, San Joxepeko erretiratzen abesbatzan ere banabil, eta danborradan ere jarraituko dut lanean. Deitzen didaten leku-tara joaten segituko dut.

Bizikletari mutikotatik hartu zion gustua Pellok—"orduan, mutikootbizikleta, pilota eta futbola besterik ez geneukan", dio-, eta baita kantuari eta musikari ere. Txikitak solfeo apur bat ikasi zuen, baina gainerako guztia zale-tasunak eta jardunak erakutsi diote. Hainbat abesbatzatan ibilitakoa da: Lagun Artea taldea, gaztetan, Don Nikomedes apaizak zuzenduta. Handik sortu zen Alai gizonezkoen otxotea, eta gerora, Aritzeta korala; horietan biotan ibilitakoa da, eta Alai Taldean jarraitzen du Garitano. "Jende gutxik daki gauza bat da Bergarako Orfeoiaren zuzendaritzan ere ibili zela", gogoratzen du lagun eta kantuaren ere lagun duen Joxe Arrieta. Mutikotatik ibili dira kantuaren: "Labegaraietako tiplea zen. Elizan hasi ginenean kantuaren, orduan egiten zen bezala. Aritzeta, tenore izan zen. Sorreratik ibili zen han ere". Garitano "mutil alaia da, leku guztieta buru-bela-rrri ibiltzen dena", dio Arrieta.

DANBORRADA BERPIZTU

San Martinetako danborradan ere ikusiko dute askok Garitano, bai danbor-jole, bai umeen danborradako zuzendari gisa. "Umeen danborrada ezingo genuke bera barik antolatu. Beste inork baino lan handiagoa egiten du, eta sekulako pazientziarekin, 250 ume inguru antolatzeko", dio Udaleko Hezkuntza teknikari Nagore Narbaizak.

Helduen danborradako emakume barrika-joleen taldea Garitanoen eraginez sortu zen. Rosa Narbaiza taldeko zuzendariak dioenez, "Pellok lan handia egin du sanmartinetako danborrada berpizteko. Alaia, saltseroa eta denok dantzan jartzten gaituen pertsona da; oso pertsona beharrezkoa herriaren bizitza".

"Jende gutxik daki Orfeoian ere ibili zela Pello; kantuaren eta zuzendaritzan"

Joxe Arrieta > Kantu-kidea

"Umeen danborrada hark antolatzen du, eta pazientzia ikaragarria dauka"

Nagore Narbaiza > Udal

"Alai Taldean eta leku guztieta motorra da, beti gertu, beti denok bultzatzen"

Aitor Eraña > Alai Taldeko kidea

"Borondate handikoa da, eta oso alaia; herriko bizitzan, ezinbesteko pertsona"

Rosa Narbaiza > Danborradan dabil

"Lokatzarekin denetariko lanak egin ditu, eta beti dago laguntzeko gertu"

Mikel Larrañaga > Lokatza taldea

ESANAK

OSPAKIZUNA > MARITXU KAOI 2009

Eskapulario eta traje, txikiteroen zaindariak hartu du Arrasate

33 urte beteko ditu aurten Maritxu Kajoik; dotorezia eta parranda protagonista izango dira gutxienez 24 orduz

'Eskapulaixue txintxilik eta dotore-dotore jantzie' irteteko dei egin dute Maritxu Kajoi Komisiñokuek

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Dotoreziak eta parrandarako gogoak hartu ditu Arrasateko kaleak. Goiz osoan txikiteo jatorra egin ostean, arratsaldeko lehen orduetarako jatetxe zein elkartetako mahaien bueltan eseriko dira Arrasateko koadrilla gehienak. Lehen, afaria egitea zen ohikoena, baina azken urteetako jaiaren masifikazioak otorruda aurreratzera behartu ditu koadrilak. Horrek eragin du



Aurkera eskapulario gorriaren bertsoa Mikel Laboarena da.

daitezkeela-eta. Maritxu Kajoi Komisiñuek, baina, jaia lasaitasun giroan egiteko nahia erakutsi du. Hala, arrasatearrei eta Arrasatera etorriko direnei "eskapulaixue txintxilik eta dotore-dotore jantzie" irteteko dei egin die. Eta noski, gogora ekarri dute Maritxuk "ikaragarri" eskertzen duela loreak jasotzea.

Izan ere, lore eskaintza, dioite Komisiñokuek, "urteko parrandak eskertzeko, krisiak txikiteoa ez zapuzteko eta datorren urtean denok egon gaitezen eskatzeko" egingo dute. Horren harira, jakinarazi dute aurten ere Maritxuk miraria "agindu" duela. Hain zuzen, 20:30 aldera helduko da une magikoa, lore eskaintzaren ostean.

AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA
Hainbat dira Debagoinetik eta kanpotik Arrasatera etortzen direnak. Hala, zerbitzu berezia izango da honako autobus linea hauetan: Eibar-Eskoriatza, Eskoriatza-Eibar, Oñati-Gatzaga eta Eskoriatza-Oñati. Gauerrian hasi eta 06:00ak arte egongo da zerbitzua.

Arizmendiko 'Merkatu txikia', aurten Indiarako

Arizmendi ikastolak antolatu eta 4. eta 5. maitetako ikasleek aurrera eroan duten Merkatu txikia-n ateratako dirua Indiako Gujarat estatuko Nana Kantaria kontsultategira joango da aurten. Hirugarren munduko herrialdeei begira antolatzen da ekimena.

Ezkerreko irudian, Arizmendiko Elisa Maiztegi Yossi ahizpari dirua ematen. Eskuinaldean, diruaren helburu den kontsultategia.



GOIENKARIA

bere ustez

Antton Mendizabal

Frankismoa itzuli da

Frankismoaren garaian bizi eta borroka egin dugunok erraz antzematen dugu egoera berria. Egungo egoera frankismoaren azken urteetan ezagututako berbera da. Komunikabide ia guztiak -prentsa, irratia eta telebista-, estatuaren menpe eta politikoki gidaturik.

Nazionalismo espainiar imperialista, jaun eta jabe nazio zapalduen aurka. Jakin, eskubide demokratiko eza eta adierazpen demokra-

"Komunikabide ia guztiak, estatuaren menpe eta politikoki gidaturik"

tiko eza. Ertzaintza eta polizia forala antzinako brigada politiko-soziala ordezkatzen. Egungo hiritar desideologizatuak, diruzaleak eta individualistak osatzen duen *maioria demokratikoak* frankismoaren garaiko *maioria isila* ordezkatzen du. Haudeskundeak dira demokrazia horretan aitzarna demokratiko bakarra eta Alderdien Legeak erakutsi digunez, horrek ere ez du Spainian funtzionatzen.

Bilakaera antidemokratiako zilegitasuna eman dioten alderdi politiko *demokratiko* horiek demokrazia mugatu batean geundela esaten zuten. Gaur, argudio horren oinarri eza agerian gelditu da. Frankismoa ez da benetan itzuli. Bilakaeraren ardatza izan da. Frankismoa beti egon da.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
Garcia Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 beheha (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ERLIJIOA > FRANTZISKOTARRAK BADOAZ

Agur meza esango dute San Frantziskon domeka eguerdian

12:30erako egin dute hitzordua eta gainerako elizetan ez dute mezak esango ordu horretan

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko frantziskotarrei dagoeneko iritsi zaie ordua: domeka mezen ostean anaidiaren eta San Frantzisko elizaren ateak itxi, eta badoaz Arrasatetik.

Joan aurretik, baina, agurtze-ko meza berezia esango dute. Domekan izango da hori, 12:30ean. Donostiako Gotzaindegiako bikario nagusietako bat etorriko da, besteak beste.

Eta jendetsua izango dela ere aurrera daiteke; izan ere, ordu berean Arrasateko gainerako elizetako mezak (San Juan parro-

kiakoa, San Andreskoa eta Santa Teresakoa) bertan behera utzi-ko dituzte, eliztarrak San Frantziskoko mezatara joan daitezzen.

Agur ekitaldiekin bukatze-ko, elkarrekin baziak zera joango dira Elizako ordezkariek (fran-
tziskotarrak barne, jakina) eta gaur egun San Frantziskon pas-
toralgintzan dihardutene katekista eta bestelako gertukoak. Ira-
garritakoaren arabera, 50 bat lagun elkartuko dira batzokian.

Dena den, esan beharra dago, baita ere, berez, domeka iluntzean bukatuko dutela Arrasateko

zereginan frantziskotarrek, 19:00etako ohiko meza betiko moduan esango dutelako; "eta domekara bitartean normal esango dituzte meza guztiak", azaldu du Jon Molina parrokoak.

HAUSNARKETA EGIN BEHAR

Ez dagoena batere argi da zer geratuko den domekak aurrera; batetik, San Frantziskoko meze-
kin (hasieran mezak esaten segi-
tuko zutela aditzera eman zuten); eta bestetik, eraikinarekin eta eraikin barruko materialarekin.
"Oraingo, itxi egingo dute San Frantzisko, baina hausnarketa serioa egin behar dugu aurrera begira", dio Molina parrokoak.

ERAKUNDE ASKO TARTEAN

Izan ere, herri erdian dagoen halako eraikin batek duen garrantzia gainera, San Frantzisko elizak altzorrak gorde-
tzen dituela ere kontuan hartu behar da. Adibidez, erretaula edo organoa bera. "Oraingo,
dauden lekuak geratuko dira, eta ez da batere erraza izango era-
bakirik hartzea; izan ere, hori ez da bakarrik Elizaren kontua.
Adibidez, erretaula beste leku batera eraman gurako bagenu,
lehenengo, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin berba egin behar-
ko genuke, frantziskotarren jabe-
tza den arren, ondare artistikoa ere badelako".

Hain justu, aldare nagusiko erretaula hori 1965ean eraiki zuten Jacobo de Ayesa eta Rafael Sarralde arkitektu bergara-

rrek. 74 intxaurrendoren enbo-
rrak eta bost gaztainondoren pie-
zak erabili zituzten. Txurrige-
resko estiloko da erretaula. Gai-
nera, erretaularen azpian, ezkutuan, XVI. mendearen

amaieran edo XVII.aren hasieran
pintatutako beste erretaula baten
aztarnak daude.

San Frantzisko parroquia eta
komunituaren sorrera, berriz,
1575ean aurkituko dugu.



Aingerutxo jantxitako neskatalak, prozesioaren aurrean.

ISABEL ARANBURUZABALA

Arantzazuko Ama ekarri zutenekoa

Arantzazuko Amaren irudia San Frantziskora lehenengo aldiz ekarri zuteneko argazkia da horixe, 1954. urteko. Maalako Errabal inguruan ateratako da. Justu ezkerrean ikusten den pareta Banco Guipuzcoanore-
na da eta haren atzean ikusten den etxea, Zeziaga. Eskumako etxea,
berriz, da oraingo Monte tabernarena. Irudia eramatzen dabiltsanak
garaiko pilotari ezagunak dira: aurrean ezkerrean Arriaran II.a dago eta
eskuman Joxe Etxeberria Zurdo de Mondragon. Zurdo-ren atzean, berriz,
Tadeo Azkarate Mondragones dago eta irudia daraman azkena Arriaran
III.a da (ez da argazkian ageri).

ALDEDI

Biteri etorbidea 8 ARRASATE Tel.: 943 79 13 05

ZERBITZUAK > GARAGARTZAKO IBILGAILUAK MANTENTZEKO EREMUA

Garagartzako Ibilgailuen Eremuan "ezin da autoak konpontzeko lanik egin"

Horixe erantzun dio, besteak beste, Arrasateko Udalak Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari

UBANE MADERA > ARRASATE
Eusko Jaurlaritzaren errekerimendu bati erantzun behar izan dio Arrasateko Udalak, Garagartzako Ibilgailuak Mantentzeko Eremua dela-eta. Labur esanda, Jaurlaritzak gura du argitu ea

Garagartzako eremuaren erabileraren desleiala izan daitekeen inguruo automobilaren tailerrekoiko.

"Tailerren aurkako egintza desleialak sustatzen ditu"; hori da, besteak beste, salatu dutena.; diotenez, partikularrek "autoak

konpontzeko edo mantentzeko edozein ekintza egin" ditzakete-lako gune hartan.

GARBITU ETA OLIOA ALDATU

Bada, hori gezurtatu du Udalak eta, besteak beste, hau adierazi du: Garagartzako eremuan bi lan egin daitezke: autoak garbitu eta autoen olioia aldatu. Hortik aurre-ra, ezin da beste konponketarik

egin, "ez dagoelako konponketak egiteko mediorik, makinarik edo erremintarik. Tailer batekin duen antzekotasun bakarra da biltegia duela (olioak batzeko). Eta, era berean, biltegi hori, kutsadura prebenitzeko bestelako neurriekin batera, da beste edozein gune partikularretatik (garaje bat, adibidez) desberdintzeko elementu bakarrak", gaineratu du.

Bedoña Batu elkartekoak Irulegin

Irulegin (Nafarroa Behere) izan dira Bedoñako 23 lagun, Bedoña Batu kultura elkartearren eskutik. Hango bodega ikusi, Garazira joan eta Ainhoan ere izan ziren.

Bestalde, iragarri dute Gabonak bitartean hainbat ikastaro egingo dituztela; tartean, ingeles eta pilates eskolak. Eta kaletarrendako ere zabaldu gura dute aukera: 943 79 20 24.



BEDOÑA BATU

oharrak

ODOL EMAILEAK

> Urriko hitzorduak

Urrian ere etorriko dira odol ateratzeak egitera, anbulatoriora: urriaren 6an eta 8an, 16:15etik 20:00ak arte.

KINTOAK

> 1958koek, bazkaria

Azaroaren 7an egingo dute bazkaria 1958an jaiotakoek, Baster-Alden. Gero dantza izango dutela ere iragarri dute. Joan gura izanez gero, honako kontu korrontean sartu behar dira 60 euro: 3035 0001 59 0011 14443 8.

KINTOAK

> 1949koek, ibilaldia

1949an jaiotakoek egun osoko ibilaldia egingo dute urriaren 24an, zapatua.

Izena eman behar da Lore edo Zabaleta lurrin-dendetan, lehenbailehen, autobusa hartz ahal izateko jende kopuru jakin ahal izateko. 20 euro aurreratu behar dira.

IKASTAROAK

> Pilates, Musakolan

Pilates ikastaroa antolatu du Aukeak, hastapen ikastaroa. Urrian hasi eta astelehen eta eguztineroko izango dira eskolak (19:30-20:30), urriaren 5ean, 7an, 13an eta 14an. Izena emateko: 943 77 16 77 edo Musakolara joan.



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatzz.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



Zerutik datorkio ahotsa Dayna Kurtz musikariari; emanaldi hunkigarria eskainiko du. Etzi, Amaia antzokian (19:30). GOIENKARIA

MUSIKA > JAZZ, SOUL ETA FOLK AMERIKARRA

Dayna Kurtz: jazz izarren ahotsa duen 'errepiideko animalia'

Musikari amerikar ospetsuaren ahotsak ikusleak hunkituko ditu etzi Amaia antzokian, 19:30ean

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Errepiideko animalia. Halaxe deskribatzen du bere burua Dayna Kurtz musikari amerikarrak. Izan ere, 90eko hamarkada osoa egin zuen AEBetako areto txikieta barrena, ezezaguna zen ikusleen aurrean. Jazz, country eta folkaren izar handien antzera. Eta izar horien antzera, ezagutzea eman denean arrakasta aurkitu du. Erabateko arrakasta. Kurtzen ahotsa eta haren guitarra jotzeko era ez dira gutxiagorako.

Bada, Dayna Kurtz Arrasatenko Amaia antzokian izango da domekan (19:30), azken lana aurkezteko: *American Standard*.

2006an kaleratu zuen *Another Black Feather* diskoaren jarrai-pena da disko hori. Duela 20 urte inguru murgildu zen musikaren *errepiidean* eta urteotan hainbat lan kaleratu ditu. Lehen urteetan ateratak gehienak kasetean ateratzen zituen kontzertuetan saltzko, merkeagoak baitziren. Hala ere, aurrez aipatutakoez gain, *Postcards From Downtown* da lanik aipagarriena, lan hark ezagutazti baitzuen harribitxia.

AHOTS SARKOR ETA HUNKIGARRIA
Kurtzen ahotsak hunkitu egindo du ikuslea; ahots sarkorra, berezia du Kurtzak, erregistro asko-

tarikoa. Finean, haren ahotsa jazzaren, folkaren eta soularen izar handienekin konparagarria da, erabat. Agertokian guitarra du lagun, baina hauxe dio: "Abestu zein guitarra jo, biak ditut gusako; baina gutxiago pentsatu behar izaten dut abesteko".

MUSIKA > SAIO ELEKTRONIKOAK

Hiru DJ saio Maritxu Kajoiko gaupasa girotzeko

Sampry tabernan, Whiskerian eta Hiru aretoan egongo dira DJ saioak, gauerdian hasi eta goizeko ordu txikietara arte

J.B. > ARRASATE

Azken urteotan ohitura ari da bihurtzen Maritxu Kajoi egunean musika elektronikoa eskaintza zabala izatea. Eta ez hori bakarrik: egun, arrasaten arrendako hain berezia den egun horretako zuzeneko musika eskaintzan, musika elektronikoa protagonista nagusia dela baiezta daiteke. Txikiteroen zaindari kutuna doinu berrietara —ere— ezin hobeto moldatzetan den seinale.

Aurten, herriko hiru txokotan izango dira disco jartzaleen saioak. Hala, Sampry tabernan Pablo Akarosek eta Papik egingo dituzte DJ lanak. Emanaldia 00:30ean hasiko da.

Bestalde, Whiskerian ere ez da dantzarako aukerarik falta-ko; bertan, Arce, Raul, Guto eta Armen izango dira. Azken emanaaldi horiek 01:00etan hasiko dira.

UHOLDE ELEKTRONIKOA HIRUN

Emanaldi aipagarriena, baina, Hiru aretoan antolatu duten jaialdi elektronikoa izango da. Izan ere, musika estilo hori jorratzetan duten zazpi musika egilek hartuko dute parte, 00:00etatik 14:00etara. Hona hemen Hiru aretoko agerto-kian izango diren protagonistak: Ima Txill Aut, Balza Kpk, Txef_A Flumo, Pablo Akaros —Sampry tabernan egon ostean izango da Hiru aretoan—, Koldo Intermusic, Haitz Nothing Without eta Asier & Ibok. 14 ordu iraungo duen uholde elektronikoko horretan barneratzeko 10 euro besterik ez da ordaindu behar. Eta gainera, lehen tra-goa doan izango da.

Hortaz, guztira dozena bat DJ saio izango dira Maritxu Kajoi gauean.

www.citroen.es

CITROËN C3 PICASSO BERRIA. SPACEBOXa



LEKUA APROBETXATZEKO
ERARIK EGOKIENA.



Kontsumo mistoa (l/100 km) / Emisioa: CO₂ (g/km): C3 Picasso: 4,7- 6,9 / 125 - 159
CRÉATIVE TECNOLOGIE

Talleres Chapime, S.C.L.

Debagoineko Citroën Kontzesionario ofiziala.

San Andres auzoa 5. Arrasate | Tel.: 943 79 45 22

Tailerreko ordutegia: Astelehenetik egubakoitzera: 8:00-13:00 eta 15:00-19:00
Zapatuetan, enpresa eta langile autonomoei zuzendutako matentze lan zerbitzua.
(Aurrez deitu)

Dantza ikastaroak Arrasaten

- Saloi-dantzak
- Sabel-dantza
- Funky eta Hip-Hop dantzak
- Dantza flamenkoa
- Umeendako dantza ikastaroak



Tituludun irakaslea: Marian Barragan



Matrikula epea zabalik!

Anima zaitez!

677 05 30 02

SASKIBALOIA

Ointxe! hasi da lanean Gabonetako torneoarekin

X.U. > ARRASATE
Ointxe! saskibaloi kluba dagoeneko hasi da Gabonetako bigarren saskibaloi torneoa prestatzen. Iaz egin zuten txapelketa hori lehenengo, eta, orduko arrakasta ikusita, aurten ere zuzendaritzako kideak animatu egin dira.

Joan den astean batu ziren Ointxe!-ko ordezkariak gazte mailakoa izango den torneoa antolatzen hasteko, eta aurten helburua garbi dute: "Ahalk eta maila goreneko saskibaloi taldeak gonbidatzea, torneoa ikusleendako erakargarria izan dadin, eta etorkizunean saskibaloi izar izango direnak bertatik bertara ikusi ahal izateko". Klubak 9.000 euroko aurrekontua du torneoa prestatzeko, eta taldeak dei egin die instituzio eta ibarreko eragileei, krisi sasoian ere kirolaren alde esfortzua egiteko".

> ATLETISMOA
Arrasateko atletak Bidasoarekin lehiatuko dira

Castellon egingo dute asteburuan Espaniako kadete mailako txapelketa, eta Arrasateko taldeko Izar Gorroñogotia eta Maialen Ruiz de Azua Bidasoarekin izango dira lehian.

Bidasoa atletismo taldearen filiala da Arrasate Kanzpanzar, eta bi atleta horiek ekarpen polita egin zuten Bidasoa Espaniako txapelketa sailkatzeko.

MENDIA > BESAIDEREN HAMABOSTALDIA

Espeleologia, hamabostaldiak eskainiko duen berritasun nabarmenena

Besaide mendi elkarreka gertu du datorren martitzenean hasiko duten mendi hamabostaldia

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Datorren martitzenean, hilak 6, hasiko du Besaidek mendi hamabostaldia, eta ondoko koadroak erakusten du hitzorduz beteta datorrela. Urtero moduan, aste barruan ikus-entzunezkoan izango dira protagonista. Hasteko, Marimendi taldeko emakumeek taldearen eta aurten egitasmoen berri emango dute; eta horren batera, 2006an Montblanc igo zutenetik egindako bideareen gainean ere mintzatuko dira.


Urriaren 8an, berriz, Alberto Zerainek *Gau izoztuak Kanghen mendian* lana erakutsiko du: "Gainontzekoei ezer kendu barik, ikus-entzunezko potentzia izango da hori", adierazi du zuzendaritzako kide Roberto Morenok. Bigarren astean, hilaren 13an Bilboko espeleologia taldeko kideak etorriko dira Kulturateera, eta hilaren 15ean Jakoba Errekondok eta Asier Galdosek harituko dute errelebua, Euskal Herriko paisaien gainean berba egiteko.

ESPELEOLOGIA SUSTATZEA

Aurtengo mendi hamabostaldiako berritasuna, baina, zuzendaritzak espeleologia sustatzeko

egiten dabilen ahalegina da. Batez, Bilboko espeleologia taldea Arrasatera gonbidatuz, eta bestetik, hilaren 24an egingo duten irteera antolatuz: "Arrasateko gazteei zuzendutako irteera da, 14 urtetik gorakoei. Arrasaten badago espeleologia talde bat, lehenago indar handia izan zueña eta eurei eskatu diegu lagunza gazteekin Koba Haundira joateko, eta espeleologia zer den irakasteko; irteera oso ederra izango da", adierazi du Morenok.

Urriaren 10, 11 eta 12rako mendi irteera antolatu dute Pirinioetara, baina aipatzeko da urriaren 24rako Arrasateko bide zaharretatik antolatu duten irteera: "Arrasatear guztieiz zuzendutako irteera da, izan ere, herri inguruan baditugu dagoeneko erabiltzen ez diren bideak, ezagutzen ez ditugunak bidezidorak, eta horiek ezagutaraztea da asmoa". Gainera, Beasaidek proposamena egin dio Udalari bide horiek txukuntzeko eta markatzeko. Urri amaiera eta azaro hasierarako orientazio ikastaroak antolatu dituzte Besaidekoek, bai iparrorratzez eta baita GPS bidez ere. Eta, hilaren 17an mendiko bizikleta irteera izango da.



Besaide ahalegina egiten dabil espeleologia sustatzeko.

GOIENKARIA

Egitaraua, eguna-ordua

EMANALDIAK

19:00etan, Arrasateko Kulturaren, areto nagusian.

Urriak 6

Marimendi proiektua ezagutzen.

Urriak 8

Gau izoztuak Kangchen mendian.

Alberto Zerain.

Urriak 13

Bilboko Espeleologia taldearen esperientziak.

Urriak 15

Euskal Herriko paisaiaren historia.

Jakoba Errekondo eta Asier Galdos.

Urriak 6, 7 eta 8 an

18:00etik 20:00etara Kulturako Jokin Zaitegi gelan, Besaideko Mendi zeharkaldien argazki proiektioa.

MENDI IRTEERAK**Urriak 10-11-12**

Pirinioetan zeharkaldia, Midi-ko magaletatik Belaguara. Izenematea: Urriak 5 eta 6, 19:30-20:30, Besaide Elkartearen egoitzan.

Urriak 24

Arrasateko bide zaharretatik zehar ibilaldi zirkularra: Monterron-Udal-Besaide-Meatz Ereka-Monterron. Irteera: 9:00etan, Monterronetik.

BETERANOEN MARTXAK**Urriak 18**

Euskal Mendi Federazioko beterano-

en martxa. Izenematea: Urriak 13-14-15, 19:30-20:30, Besaide Elkartearen egoitzan.

Urriak 25

Gipuzkoako Mendi Federazioko beteranoen martxa. Izenematea: Urriak 19-20-21, 19:30-20:30, Besaide Elkartearen egoitzan.

ARRASATEKO MTB MARTXA**Urriak 17**

Izenematea: 09:30ean, Musakolako kirolegian. Irteera: 10:00etan, leku berean. Ibilbidean zehar jateko egongo da eta bukaeran dutxak eta mangerak. Info gehiago: www.goienkaria.net/blogak/debagoinamtb

ESPELEOLOGIA IRTEERA**Urriak 24**

Garagartzako Koba Haundi leize zulora. Informazio gehiago eta izenematea: Urriak 13 eta 14, 19:30etik 20:30era, Besaideren egoitzan.

MENDIKO ORIENTAZIO IKASTEROA**Urriak 31 Azaroak 1**

Iparorratzet, Irun - Hondarribia.

Azaroak 7-8

GPSz. Arrasate-Pagoeta. Izenematea: Urriak 19 eta 20, 19:30etik 20:30era. Federatuta egotea beharrezkoa da.

ARETO FUTBOLA > ZALDIBARKO TXAPELKETA

Zaldibarren izena emateko eguna: astelehena, hilak 5

Antolatzaileak 18:00etatik 20:00ak arte egongo dira izenak hartzen, Kulturaten

X.U. > ARRASATE

Aurtengo Zaldibarko Txapelketa motorrak berotzen dabil. Antolatzaileak datorren astelehenean, hilak 5, egongo dira Kulturaten taldeen izenak hartzen, eta hilaren 17an jarriko da baloia jokoa. Hala, talde bakoitzak 200 euro ordaindu beharko ditu txapelketaen esku hartzearen eta, horren batera, 75 euro jarri beharko dituzte fidantza modura.

Izena ematera doazen ordezkarietan taldeakide guztien izenak

eta abizenak eraman beharko dituzte, eta baita nortasun agiri zenbakia ere.

HAINBAT BERRITASUN

Txapelketa arrakastatsuagoa izan dadin, antolatzaileek urtero egiten dute berrikuntzak sartzea ahalegina. Aurtengo, hasieratik ezarriko dute urte osorako egutegi finkoa, eta talde bakoitzak birritan baino ezingo du partida egunez aldatu –astebeteko lehen-tasunaz eta kontrarioarekin ados



Paulaner Dribling taldeko mutilak, garaikurra eskuan dutela.

jarrita-. Gainera, ligako azken fasean eta kopa txapelketan antolatzaileek ez dituzte ordu aldaketak onartuko.

TALDE BAKOITZAK, ORDEZKARIA

Txapelketa zehar egon daitezkeen tirabirak saihesteko, talde bakoitzak ordezkari bat izango du, erantzule lana egingo duena. Hau da, liskar baten aurrean antolatzaileek ordezkari horregatik jokatzen. Bestalde, antolatzaileek txapelketa-rekin aurrera egiteko lagunza beharko balute, talde bakoitzeko ordezkarietan egingo lukete lan hori.

J.A.

MERKATARITZA > KOMERTZIO TXIKIA

Bedelkarko denden azoka dago bihar eta etzi Udal Pilotalekuuan

Zapatuan egun osoz eta domekan goizetik egongo da zabalik azoka

Denboraldiko gaiak salduko dituzte, eta baita deskontuak egin ere

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Bedelkar dendarien elkarteko dendek azoka egingo dute aste bukaeran. Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, egingo dute, Udal Pilotalekuuan. Bihar, egun osoan egongo da zabalik, 10:00-20:00 ordutegian, eta domekan, berriz, goizetik, 10:30-14:00 ordutegian.

Iaz egin zuten Bedelkarko dendek halako azoka lehenengoz. Orduan egun bakarrekoan izan zen eta aurten, berriz, bi egunekoia izango da: "Iazko oso ondo joan zen eta horregatik erabaki dugu, besteak beste, egun bat luzatzea. Herritarren artean harrera ona izan zuen", dio Maria Eugenia Igartzak, Bedelkarko presidenteak. Bestalde, lanari etekina atera behar zaiola ere aitor du: "Lan handia da azoka antolatzea, eta behin lan hori hartuta, bada, behintzat bi egunekoia egitea merezi du".

Dendarien asmo nagusia da daukaten generoa erakustea; izan ere, "saltzeko modurik onena era-kustea" dela konbentzituta daude Bedelkarko dendariak. Horrekin batera, erakutsi nahi diete herritarrei "Bergarako komertzioa bizirik dagoela; gogoa dugula gauzak egiteko eta lanerako prest gaudela. Komertzioa bizirik badago, herria ere bizirik dago", gehitu du Igartzak.

DENBORALDIKO GAIAK

Azokan 17 denda egongo dira: jantzi-dendak, burdindegia, lore-



Iaz egin zuten moduan, pilotalekuko kantxan egokituko dituzte saltokiak.

GOIENKARIA

dendak, etxetresna etxeak, mertzeriak, zapata-dendak eta osagarrí dendak, hain justu. Eta salduko dituzte denboraldiko produktuak. Gainera, deskontuak ere egingo dituztela aurreratu du dendarien elkartekoak: "Deskontuak egingo dira, baina dendari bakoitzak erabakiko du zenbateko deskontua egingo duen", argitu du Maria Eugenia Igartzak.

Udal Pilotalekuko kantxan egokituko dute azoka. Denda bakoitzak bere erakusmahaia

izango du eta bakotza arduratuko da hura atontzeaz.

Bestetik, azokaren osagarri moduan, musika emanaldiak ere egingo dira. Hain justu ere, Musika Eskolako Txaranga Gazetteak, Trikitixa Taldeak eta Hazezka orkestrak egingo dute emanaldia. Emanaldiok izango dira pilotaleku barruan, baina baita kalean ere. Horrekin guztien batera, haurrendako puzgarriak jarriko dituzte Fraiskozuri plazan.

BEDELKAR TXARTELA

Azokarekin batera, dendarien elkartekoak gogora ekarri du irailean promozio berriari ekin ziona. Hain justu ere, irail, urri eta azaroan %5eko deskontua egingo du erosketa Bedelkar txartelarekin eginez gero eta egubakoitz edo zapatuan egin baldin bada.

Bedelkar txartela eska daiteke elkarteko dendetan; egitea doakoa da eta ez da inolako kuotarik ordaindu behar.

DATUA

2

EGUNeko AZOKA

Iaz egun bakarreko azoka antolatu zuten, eta, izandako harrera ikusita, aurten bi egunekoia egitea erabaki dute. Hala, zapatuan egun osoz eta domekan goizetik egongo dira Bedelkarko dendariak Udal Pilotalekuuan.

UDALA

Udalak kudeatzen du eguenetik ur zerbitzua

M.B. > BERGARA

Azkeneko urteetan betebehar hori Gipuzkoako Ur Kontsor-zioak egin badu ere, kudeaketa berreskuratzea erabaki du Udalak. Hori horrela, udaletxean egin beharko dira aurre-rantzean gestioak: alta eta baja ematea, matxuren gai-neko jakinarazpenak, kexuak...

Argibidetarako telefono zenbakia ere egokitu dute: 902 54 02 77.

KALE GARBIKETA ZERBITZUA


Astelehenean egindako osoko bilkuran, kale garbiketa zerbitzua Cespa enpresarekin urtebete luzatzeko erabakia hartu zuen udalbatzak, aho batez. Zortzi urteko hitzarmena izan du Cespak Udalarekin eta, irailean bukatu egin zenez, bada, urtebetez luzatzea era-baki dute.

Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariek bakarrik urtebe-tez luzatzeko arrazoia galde-tuta, Agurne Barruso alkateak azaldu zuen, "gehiago luza-tu aurretik zerbitzua bera eta emateko modua aztertu" nahi dituztela.

> AISIALDIA

Egun osoko skate jaia egingo dute bihar, zapatua, kirolegia

Bergarako skate taldeak Skate jaia antolatu du biharko, zapatua, Labegaraietako kirolegiko skate-gunean. 10:00etan hasiko da eta egun osokoia izango da. Hain justu ere, ordu horretan hasi eta 14:00ak arte, skate librea egiteko aukera egongo da skate taldekoek egokituko dituzten tramankuluetan. 12:00etan grafiti erakustaldia egongo da eta, gero, baziaria. Arratsaldean, berriz, hainbat talde kontzertua egingo dute.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37



Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Argazkia Kiñu

HIRIGINTZA > APARKALEKUAK

Beste 11 autorendako aparkalekua Irizarren

Taxi geltoki zaharrari aparkaleku erabilera eman dio Udalak; atzo, eguna, egokitu zuten

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Dagoeneko egokitu dute Irizar kaleko taxi geltoki zaharra aparkaleku moduan.

Atzo, eguna, margotu zituzten marrak zoruan udal langileek, eta, azken orduko eragozpenik egon ezean, aste bukaerarako erabilgarri egotea zen asmoa.



Udal langileak zamalanetarako gunea margotzen.

M.B.

Diagonalean margotu dituzte marrak, eta hamaika autorendako lekua dago. Kalearen beheko aldean hasi eta erdia baino pixka bat gehiago hartuko du aparkalekuak. Kalearen goiko aldean, berriz, zamalanetarako gunea egokitu dute.

Irail erdialdera Ibargarai kalea eroan zuten taxi geltokia, eta azken horrek hutsik lagatako lekuak aparkalekuak egokitzea erabaki zuen Udalak. Bideberriko lanengatik Eroski aurrean galduko direnak ordezkatuko dira horrela, neurri baten.

oharrak

IKASTAROA

> **Yoga eskoletan izena emateko epea zabalik dago**

Astean behin izango dira, martitzetenetan, 18:45-20:15 ordutegian. Izena emateko edo argibide gehiagorako deitu 943 79 66 98 zenbakira (Antonia).

KINTADA

> **1968an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Urriaren 24an egingo dute. Izenematea da urriaren 15a baino lehen, Deportivo tabernan. 10 euro aurreratu behar dira.

KINTADA

> **1940an jaiotakoek kinto bazkarria egingo dute**

Urriaren 17an egingo dute, Torrekua erretegian, 14:30ean. Izena emateko deitu 943 76 55 41 zenbakira.

TXARTEL SALMENTA

> **Pelloren Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude**

Herritar talde batek Pello Garitanoren omenaldi eguneko antolatu duten bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko. Lazkano zapata-dendan eta Ariznoa tabernan daude salgai, 20 eurotan. Azkeneko eguna da urriaren 12a. Omenaldia urriaren 18an izango da.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

Udaltzainak joaten dira Kruz Gallastegi kalera?



Herritar bat kexu da Kruz Gallastegi kalean auto ugari egoten delako bigarren ilaran eta, hala ere, udaltzainek ez dutelako "ez erigit". Dio bozina-zarata handia egoten dela, "autoa ondo aparkatuta dutenek askotan ezin izaten dutelako atera bigarren ilarakoen erruz", eta udaltzainak "ia ez direla handik pasatzen".

Zure bizikleta denda Bergaran **BICIPRECISIÓN IGARTUA**



**Etor zaitez urriaren 4an
Mendi Bizikleta Martxara!**

ESKAINTZA:

**Spinning bizikleta Lehen: 1.100 € ... Orain: 680 €
Errepideko karbonozko 2010eko Goka ultegra Lehen: 2.100 € ... Orain: 1.549 €**

BERGARAn, Zubieta kalean 943 76 11 21

KULTURA > ERAKUSKETA

Simon Arrietaren lan ezezagunak bildu dituzte erakusketa batean

Bergararrek eta legazpiar batek utzitako margolanak bildu dituzte Aroztegi aretoan

Guztira, 30 koadro daude ikusgai; batzuk bukatu barik eta beste batzuk itsasoari buruzkoak dira

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Simon Arrieta (Bergara, 1915-1969) hil zela 40 urte bete direla eta, haren lanekin erakusketa zabaldutu dute gaur Aroztegi aretoan. Erakusketa ikusgai egongo da urriaren 18ra arte, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

Guztira, 30 lan bildu dituzte. Bergarako bizilagunek utzitako lanak dira. "Bagenekien Arrietaren lan batzuk etxe partikularretan zeudela. Pertsona horiek jarririk ginen harremanetan, eta Arrietaren heriotzaren 40. urte-mugan egiteko asmoa genuen erakusketarako margolanak

ESANAK

"Simon Arrietarena da Bergaran horrenbeste margolari egotearen 'errua'; erakusketa egitea merezi zuen"

Luis Laskurain > Antolatzalea

DATUA

30
KOADRO

Simon Arrietaren 30 koadro daude ikusgai Aroztegi aretoan. Batzuk margolariaren lan ezezagunak dira, besteak beste, itsasoari buruzko lanak; beste batzuk lan ezagunagoak dira.

eskatu genizkien. Lanak Bergarako bizilagunenak dira, bat izan ezik, Legazpitik ekarri duguna", esan digu erakusketa antolatzen ibili den Luis Laskurainek.

Partikularrek utzitako lanekin Simon Arrietaren bizitzako etapa ezberdinak erakutsi nahi dituzte. "Ez genuen erakusketa antologikorik egin nahi. Arrietaren etapa batzuk azpimarratu nahi genituen; besteak beste, hasierako urteak eta Arrietaren une onenak", dio Laskurainek.

BUKATU BAKO LANAK
Aroztegin bildu dituzten margolanetako batzuk bukatu barik daude eta beste batzuk ezezagunak dira. "Arrietaren alor ezkutua, ezezaguna erakutsi nahi genuen. Ez zen ohikoak itsasoari buruzko margolanak egiten ikustea, baina egin zituen. Ikuileak harritu egingo dira", esan digu Laskurainek.

Arrietaren gaineko erakusketa antolatzen buru-balarri ibili dira azken hilabeteotan. Prosesu luzea izan da. "Erakusketa ezberdina egin nahi genuen. Ideia garbi izan genuenean, koadroak topatu, jabeekin hitz egin eta erakusketa muntatu dugu. Azken egunotan ordu asko egin ditugu Aroztegin erakusketa muntzen", diote.

ERREFERENTZIA
Lan astuna egin arren, gustura daude erakusketarekin. Arrieta erreferentzia izan da margolari bergararrendako: "Herrian horrenbeste margolari egotearen errua Arrietarena da. Arrietaren meritik handiena pinturarako zaletasuna besteengan piztea izan zen. Zaletasun horrek aurrera egin du urteetan, eta orain iku daitezke emaitzak".



Simon Arrieta, haren estudioan lanean.

GOIENKARIA

15 urterekin hasi zen Eustakio Agirreolearekin

Simon Arrieta Arostegi Bergaran jaio zen 1915. urtean. 15 urterekin hasi zen margotzen, Eustakio Agirreolearekin. Pradoko Museoan erakusgai zeuden lanen kopiak egin zituen. Mallorkara bidali zuten soldadutzera egitera, eta Palman Arte Ederretako Zirkuluak antolatutako udaberriko lehen erakusketako ohorezko aipamena jaso zuen. Bergarara itzuli zenean, Gipuzkoako Artista Berrien XII. sarietako lehen saria lortu zuen. 1945. urtean Bilboko Eskulangintza Galerian 24 mihise jarri zituen erakusgai eta kritikariek maisulantzat jo zituzten. 1950eko irailean Madrilera joan zen bizi izatera. Arte Ederretako Zirkuluko Minerva aretoak atek zabaldu zizkion 1952ko maiatzean. 1953. urtean, Bergarara itzuli zen, Bergarako Eskola sendotzeko asmoz. Donostian eta Bilbon erakusketak egin zituen. 1969ko otsailaren 15ean hil zen, Bergaran.

ZINEMA

Eguenean hasiko dute zineklub denboraldia

M.B. > BERGARA

Eguenean, urriaren 8an, hasiko dira zineklubeko pelikulak eskaintzen Zabalotegi aretoan. Emanaldiak egunero egingo dituzte, 20:00etan. Prezioari dagokionez, bi euro balio du sarrerak, eta leihatilla irekiko dute emanaldi bakotza hasi baino ordubete lehenago.

'BIENVENIDOS AL NORTE'

Zineklubeko lehen emanaldian *'Bienvenidos al norte'* pelikula eskainiko dute. Belgikarekin mugan dagoen herri batera bidalzen duten postari baten istorioa kontatzen du. 2008. urtean zuzendu zuen Dany Boonek. Bestalde, Kad Merad, Zoe Felix, Phillippe Duquesne eta Line Renaud dira protagonistak. Frantzian egindako pelikula arrakastatsuena izan zen 2008an.

Hurrengo pelikulak izarago dira, urriaren 15ean, *Vals con Bashir*; urriaren 22an, *Honeydripper Blues Bar*; eta urriaren 29an, *La clase*.

> ERAKUSKETA
Canteroren eta Gurrutxagaren lanak, Gure Ametsan ikugai

Benito Cantero eta Jose Agustin Gurrutxaga argazkilarien erakusketa jarriko dute astelehenean. Hain zuzen ere, San Antonio auzoko Gure Ametsa elkartean egongo da ikusgai urriaren 18ra arte.

Canterok eta Gurrutxagak *20 urte hegaletan* izenburua jarri diote erakusketari. 1988. urtean erabaki zuten argazkiareniko zaletasuna mendi jarduera ezberdinarentzat bideratzea; besteak beste, alpinismoa, mendi bikiak eta izotz eta harkaitz gainezko eskaladari buruzko argazkiak egin dituzte. Emaitza erakusketan bildu dute.

trinmer
telecomunicaciones

tdt
televisión
digital
terrestre

Bergaran ere badago
Lurreko Telebista Digital!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu,
ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

Goierri
Autogidarien Eskola



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Soraluce Bergara senior mailako taldeak ondo estreinatu du denboraldi berria.

BKE

Kategoriaz igo berri diren Unai Iñarraren mutilek 62-57 irabazi zioten joan den astean Beasaini; Bergarako mutilek domekan Zarautzera egingo dute bidaia

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergara uste baino hobeto moldu da kategoria berrira; hori erakutsi zuten, behintzat, joan den astean jokatutako lehenengo jardunaldian. Mahoneroek 62-57 irabazi zioten kategoriarri eusteko kontrario zuzena izango den Beasaini. Oraingo asteburuan izango dute bigarren azterketa (domeka, 17:00), *iritsi berri* izate-

aren beldurrrak uxatu eta Leiohak Zarautz taldearen kantxan lan ona egiteko asmoz kantxaratuko dira Unai Iñarraren mutilik.

HIRUGARREN LAURDENA, ONA

Beasainen kontra hirugarren laurdenean egindako lana erabakigarría izan zen lehenengo garapena poltsikoratzeko. Urduri hasi zuten partidua (15-20), euren errit-

moa ezarri ezinka, baina atsedenerako defentsan hobetu eta markagailuak 31-31 erakusten zuela joan ziren aldagelara.

Hirugarren laurdenean, berriz, kanpoko jaurtiketei eta pibot postuan jokatu zutenei esker aurre hartu zuten markagailuan (55-49). Hori bai, laugarren laurdenean urduritasunak azaldu ziren berriro ere, baina

beasaindarrik ez ziren gauza izan kontrarioaren urduritasunaz balitzeko. Amaierarako bi minutu falta zirela, hiru puntuera gerturatzen Beasain, baina ez zuten erasoaldia errematatu (62-57). Lortutako puntuak: Aizpurua (2), Blazquez (10), Arazkona (9), Jakue (6), Mancha (3), Ugarte (3), Beistegui (7), Arteaga (4), Murillo (8) eta Eraña (10).

ZIKLISMOA > UDAZKENEKO KRITERIUMA

Arantzetak podiumera igota amaitu du denboraldia

Sumofic Lokatza taldeko zazpi ziklista izan ziren Udazkeneko Kriteriumean esku hartzen

X.U. > BERGARA

Sumofic Lokatzako ziklistek oso ondo amaitu dute denboraldia, taldeko ordezkari bat Udazkeneko Kriteriumeko podiumera era-manda. Xabier Arantzetak, urte osoan moduan, asteburuan era-kutsi du gazte mailan puntako ziklista bilakatu dela, podiumeko bigarren posturaino igota.

Udazkeneko Kriteriuma kadete eta gazte mailetako ziklistei zuzendutako azterketa da. Zapatuan 70 kilometroko etapa izan zuten, eta domekan bi saio:

goizean 50 kilometroko etapa eta arratsaldean 8 kilometroko erlojupekoak.

Zapatuan Unai Intziarte izan zen azkarrena eta domeka goizeko sektorean Pierre Comet frantzarra gailendu zen. Arratsaldeko erlojupekoan ere Intziarte izan zen onena, baina bi segundoko aldea baino ez zion atera ziklista antzuolarrari. Erlojupeko on horrek eman zion Arantzeti sailkapen orokorrean bigarren postua, Comet frantzarraren aurrelik.



Arantzeta protagonista, azterketan zehar egindako erasoaldietako batean.

WWW.TXIRRINDULARI.NET

> MOTOAK Ipar zonako lehen motokros lasterketa, datorren asteburuan

Eguraldi txarraren eraginez orain dela 15 egun zuten Bergara Hiria motokros lasterketak zapore gazia utzi zuen ibarreko moto-zaleen artean, lokatzak erabat baldintzatu zuelako moto lasterketa.

Datorren asteburuan, baina, (urriaren 10ean eta 11n) motokrosa itzuliko da Bergara, Ipar zonako lehenengo motokros lasterketa egingo dute-eta, Angiozarrera bidean dagoen zirkuituan. Hala, azterketan izango dira Euskal Herriko, Asturiasko, Errioxako eta Gaztela Leongo pilotuak.

Bergara Hiria lasterketa egin aurretik antolatzaleek azpimarratu zuten ze ondo geratu zen Debagoienean egindako moto zirkuitu bakanra, eta Ipar zonako lasterketa ibarrera ekarri izanak berresten du hori.

> XAKEA Taldeka, Valentziako Sillak irabazi zuen Bergara Hiria torneoa

Bergara Hiria xake torneoko irabazlea, taldeka, Silla Valencia izan zen. Eta Madrid, Solvay, San Viator eta Santurtzi taldeak sailkatu ziren atzetik. Bergara, berriz, 19. postuan sailkatu zen, Abadiñoren aurretek.

Bakarka, berriz, xakelari onena Isan Ortiz kubatarra izan zen, bigarren sailkatu zen Alekxa Strikovic eta hirugarren postuan Miguel Muñoz.

Aipatzekoia izan zen txapelketak izan zuen parte-hartzea: bertako eta nazioarteko 72 xakelarik jardun zuten.

kanpotarrak bergaran

Fatima Saidi > Marokoarra
Bergaran bizi da

"Ogia eta eztiarekintegindako postreak egiten ditugu etxean"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Fatima Saidi marokoarra aspalditik bizi da Bergaran. Lehenengo urteetan une gogorrak pasa ondoren, gustura bizi da hemen. Bost seme-alabek ditu eta Helduen Hezketa Eskolan dihardu, irakurtzen eta idazten ikasten.

Egun, 48 urte ditu Fatimak eta ez du gogoan orain dela zenbat urte etorri zen Bergarara. Senarrak Mayc enpresan –egun, Candy Hoover– egiten zuen lan, eta lau seme-alabak hartuta Maroko utzi eta Euskal Herrira etorri zen. "Senarra lanean zegoen, eta pentsatu genuen bizitza

hobea izango genuela hemen. Erabaki gogorra izan zen, gurasoak Marokon utzi behar nituelako. Bainak une latzak pasa arren, erabaki zuzena izan zela esango nuke".

Bergarara etorritako lehen emakume marokoarra izan zen. Hasierako urteetan etxetik irten

"Hasieran ez nuen hizkuntza ulertzen eta senarrarekin joaten nintzen toki guztietaera; gogorra izan zen"



Fatima Saidi.

barik egon zen, inorekin hitz egin barik. Negar asko egin zuela esan digu: "Ez nuen hizkuntza ulertzen eta toki guztietaera senarrarekin joaten nintzen. Gainera, gizartezko prozesua oso luzea izan zen. Aldiz, seme-alabek ez zuten arazorik eduki".

Fatimaren atzetik beste hainbat emakume marokoar heldu dira Bergarara, eta orain, Saidik egiten ditu interprete lanak.

JANARIA ETA EGURALDIA
Marokoko jakia jaten dituztela esan digu –ogia etxeen bertan egiten dute–, baina hemengo janariarekin arazorik ez dutela azpimarratu digu: "Denetarik jaten dugu: frutak, barazkiak, arroza, pasta, lekaleak... Gainera, eztiarekintegindako postreak egiten ditugu etxeen".

Abuztuan Marokon egon dira familiari bisita egiten. Oraingoz, ez dute itzultzeko asmorik: "Oppretan joango gara senitarteko ei bisita egitera, baina orain, gure tokia hemen dago".

hau be badaukogu!

Santa Cruz de Bolivia hiria sortu zeneko 128. urtemuga ospatzeko afaria egin zuten

Santa Cruz de Bolivia hiria sortu zeneko 128. urtemuga ospatzeko elkartu ziren 25 boliviarr hilaren 26an. Bergarako Kaixo tabernan afaldu zuten, eta Boliviako jaki tipikoak dastatu zitztela esan digute. Afaldu ondoren ospakizunekin jarraitu zuten, eta batzuek, behintzat, goizaldera arte ospatu zuten. Lagun koadrila ederra elkartu zen. Afaltzen hasi aurretik, ospakizunen parte hartu zuten bederatzi emakumek argazkia egin zuten. Arropa zuriak jantzi zituzten eta berde koloreko gerrikoarekin Boliviako banderaren azpian jarri ziren, ondoko irudian ikusten denez.



GOIENKARIA

bere ustez



Lander Juaristi

Txapa Irratiak,
25 urte
uhinetan

Aurten txapada galanta emango dou; Txapa Irratiak 25 urte betezen ditxu! eta izenai kasu einez, herritxaren belarriak berotzeke prest gare! Kontzertuak, jaixak, irratsaio berezixak, eta beste mila ideia be irteten die asanbladatan, beraz adi! 25 urte honetan, Bergarako irrati libria gizartean aldaketen testigo izan da, herritxar ezberdinaren ahoitsan bitxartzet urtian-urteko gorabeherak emitidi ditxu! Beti be, modu ez profesional, subjetibo eta hala-moduzko

**"Txapa Irratia
gaztia izan dala
esan geinke, libre
eta pirata
jaiotzetik"**

baten. Irrati gaztia izan dala ezan geinke, libre eta pirata jaiotzetik.

25 urte honetan, gizartia asko aldatu da, azken urte honetan irratixa bera be bai. Japonesak inbadidu gaitxusste (teknologia japonesak behintzat bai) eta beraien gaineran surfeatzentik ikasi dou, nahiz eta batzutan ur trago gazi batzuk be joten ditxugun!

Gaur inoiz baino gehixau, irrati libre, rebelde eta pirata baten biarra sentitzen dou, egunerokotasunian bizi doun zirkor handi hau ikusi eta ostia batzuk emititzeko. Umorez edo zorrotz, gai sakonak edo intimuak jorratz, musika jarriaz edo hitzen bitartez.

Zorionak, inoiz irratian parte hartu dozuenei!



Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

OSOKO BILKURA > TAXIEN TARIFAK

Taxien elkartea proposatutako tarifa guztiak ez dituzte onartu

Dauden bi tarifek igoerarik ez izatea proposatu dute, eta udalbatzak, onartu

Hirugarren tarifa bat egiteko eskatu dute jai gauetarako; udalbatza ez da ados azaldu

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Udalbatzako sei kide elkartu ziren asteleheneko ohiko osoko bilkuran eta Gipuzkoako taxien elkartea proposatutako tarifik eztaba idatzi zituzten.

ASTEBURU ETA JAIETAKO GAUAK
Agitax elkartea proposatu du indarrean dauden bi tarifik dagoenentan uztea 2010ean; hau da, igoerarik ez aplikatzea. Eta udalbatza ados azaldu da. Proposatu du, gainera, hirugarren tarifa bat onartzea. Tarifa hori izango



Debagoineneko taxia erabiltzaile bat jasotzen.

MIRARI ALTUBE

lizateke egubakoitzetik zapatu; zapatutik domekara eta jai bezperatik jaiegunera aplikatzeko 22:00ak eta 07:00ak bitartean. Ordu horietan egon daitezken segurtasun arazoak eta zerbitzua emateko jende gehiagoren beharra arrazoitu du elkartea tari-

fa hori eskatzeko. Eusko Alkartasuna eta Aralar alderdietako zinegotziak, baina ez ziren bat etorri hirugarren tarifarekin, esanaz hiri handietako arrazoia izan daitezkeela, baina ez gure herrikoak. Hala, ezetza eman zioen azken horri.

ASTELEHENEAN, ZERGAK

Astelehenean ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak ordenantza fiskalak onartzeko. Beste gairen bat ere izango da zerrendan, oraingoan ezin izan zutelako sartu azken orduan -zazpi kide behar dira sartu edo ez esateko.

GAITZESPENA

Zapatuko atxiloketak gaitzetsi ditu Aralarrek

San Migel jaietako giro lasaian lau gazte atxilotzea gaitzetsi du

M.A. > ARETXABAleta
Joan den zapatuan, San Migel jaietan, ertzainek egindako atxiloketak gaitzetsi gura izan ditu Aretxabaletako Aralar alderdiak, eta honako esan du: "San Migel festak giro lasaian eta bake-tsuau ospatzen ari ginen bitartean lau gazte atxilotu izana, herritar hauen aldetik inolako probokazio edo istilurik eragin ez denean". Eta atxilotzeko modua neurrikanpokoia izan zela ere azpimarratu dute: "Ume eta beste askoren aurrean eskuberdinak ipini, eta harrokeriaz beteta eraman dituzte".

Era berean, Aralarrek hauxe eskatu gura du: "Herri honek dituen arazoak polizia-eteetan barik mahaiaren bueltan konpon daitezela".

OSASUNA > ODOL ATERATZEAK

Odol ateratzeak egubakoitz arratsaldeetan egingo dituzte

Arabako odol bankuko arduradunak gaur etorriko dira osasun etxera (16:15)

M.A. > ARETXABAleta
Arabako odol bankuko arduradunek jakinarazi dute hemen-dik aurrera, astelehenetan beharran, egubakoitzetan etorriko direla Aretxabaletara odola jasotzera. Hala, gaur da lehen eguna eta hurrengoak urriaren 9an eta 14an izango dira, azken hori eguztena (16:15-20:00).



Erizaina odola ateratzen emaile bati.

GOIENKARIA



Jaiki elkartekoek ekainean egindako dantza erakustaldia.

M.A.

IKASTAROA > DANTZAK

Afrikako eta Karibeko dantzen ikastaroa Jaikirekin

Martitzenean, hilak 6, hasiko dituzte eskolak kuartel zaharrean (19:30-21:00)

M.A. > ARETXABAleta

Funk eta Afrika eta Karibe inguru dantzen gaineko ikastaroa antolatu du Jaiki elkartea. Martitzenean, urriak 6, hasi eta abendu arte iraungo dute eskolek (martitzenetan, 19:30-21:00). Iaz legez, kuartel zaharrean elkartuko dira.

Oraindik badagoela izena emateko aukera jakinarazi dute Jaikiko kideek. Interesatuek dei egin dezatela telefonoz (653 70 50 68) edo mezu bat bidal dezatela (jaikielkarte@yahoo.es). Prezioa 35 euro da.

DRUMMING IKASTAROA

Bestalde, drumming ikastaroa antolatu du Jaiki hilaren 13an, 14an eta 15ean egiteko. Trantze egoeran murgiltzeko perkusio ikastaroa da eta Nick Twilley irakasleak egingo du. Interesatuek dei egin diezaiotela Pacori (618 04 67 43).

> INTERNET
Arratsaldeetan dago zabalik Markoleko KZgunea urrian

Arratsaldeetan zabalduko dute urrian KZgunea (16:00-20:00) eta hainbat ikastaro eskainiko dituzte, tartean berriak: *Megaupload, Softonic, Google Docs...*

Gainera, Ona eta Izenpe txartelak eskura daitezke KZgunean. Osakidetzarekin eta beste erakunde batzuekin gestioak egiteko erabil daitezke txartel horiek. Zelan erabili ere erakusten dute bi orduko ikastaroak eginda.

Eta IT txartela eskuratzeko azterketak antolatu dituzte. Aurrez deitu behar da txanda hartzeko (943 79 94 44).

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta



Labordetak kontzertua eskainiko du urriaren 17an.

GOIENKARIA

KIROLA > DIRULAGUNTZAK

Laguntzak eska daitezke kirol taldeen jarduera arruntendako nahiz bereziendako

Laguntzak ematea arautzen duten oinarriak astehenean irten ziren GAOn

M.B. > ARETXABAleta
Kirol taldeek eta entitateek antolatutako jarduera arruntetarako zein bereziatarako zuzendutako dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarriak argitaratu zituzten joan den astehenean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO).

Jarduera arruntei dagokienez, dirulaguntza eskabideak 30 laneguneko epean aurkeztu behar dira, GAOn deialdia argitaratu zenetik hasita. Aurkeztutako eskaera eta frogatzeko doku-

mentazio guztiak aurkeztu ondoren, herriko alkateak dirulaguntzak emateko akordioa hartuko du, eta ondoren, onartutako laguntzaren %100 ordainduko da, gehienez ere hilabeteko epean. Programa horren bidez deiutako dirulaguntzen zenbatekoa 19.000 euro da.

3.500 EUROKO AURREKONTUA
Jarduera bereziatarako edo noizean behingo jardueretarako laguntzendako aurrekontua, berriz, 3.500 euro da. Eskabidea abenduaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute interesatuek, dokumentazio grafiko, argazki edo ikus-entzunezkoarekin batera; diruz lagundu den jarduera egin dela egiaztatzeko balioko dute horiek.

oharrak

ERRETIRATUAK > Asturiasko bidaiarako izena eman daiteke datorren astean

Basotxo erretiratuen elkarretek irteera antolatu du urriako. Hain justu ere, Asturiasera joateko asmoa dute, urriaren 18tik 24ra. Besteak beste, Oviedo, Covadonga, Cangas de Onis, Luarca, Cudillero eta Gijon bisitatuko dituzte erretiratuek egun horietan. Bidaia horretan izena eman ahalko dute nahi duten guz-

tiekin astehenean eta martitzenean, urriak 5 eta 6, elkarteak duen bulegoan, 11:00etatik 12:00etara.

IKASTAROA > Eguena baino lehen eman behar da izena idazketa tailerrean

Hilaren 10ean amaituko da Karmele Igartuak hilaren 21etik abenduaren 9ra emango duen idazketa tailerrean izena emateko epea. Argitaratzeko moduko irizti artikulua idazten irakatsiko du.

KULTURA > ARKUPEKO URRIKO EGITARAUA

Belceblues eta Labordeta igoko dira urrian Arkupeko agertokira

Bihar, zapatua, 22:00etan, Bergarako Belceblues taldeak kontzertua eskainiko du Arkupen; sarrerek zortzi euro balio dute

MIRIAN BITERI > ARETXABAleta
Aretxabaletako Kultura Sailak dagoeneko prest du urrirako egitaraua. Betiko moduan, askotariko ekimenak daude aurreikusita Arkupen. Musikaren alorrean, bihar, zapatua, Belceblues taldearen emanaldia ikusi ahalko dute 22:00etan Zaraia aretoara joaten direnek. Kontzertu horretako sarrerek zortzi euro balio dute. Urriaren 17an, berriz, Jose Antonio Labordetak hartuko du talde bergararraren lekuoa.

Ordu berean emango dio hasiera saioari hark eta prezioa ere zortzi euro izango da.

Bestalde, helduendako bi antzezlan egongo dira hasi berri den hilabete honetan zehar: lehengoan, urriaren 10ean, Txalo konpainiak *Ni Hektor naiz* lana aurkeztuko du; bigarrena Ester Bellverren *Yo prota-agonizo* izango da. Esandako antzezlanak 22:00etan hasiko dira.

HAURREN IKUSKIZUNAK
Haurren ikuskizunei dagokiez, etzi, domeka, Deabru Beltzak taldearen *Nora zoaz Txanogorritxu* ikusi ahalko dute etxe txikienek; urriaren 11n, Trikuharriaren *Galtzaggerrie to, Inaxito*; eta urriaren 18an, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoaren *Martingala*. Emanaldi guztiak 17:00etan izango dira Zaraia aretoan. Prezia hiru euro da.

Ikus-entzunezkoak ere ez dira faltako eguenetan. Hilaren 8an, *Sahara barrena miatzen* eskainiko dute eta urriaren 15ean, aldiz, Josune Bereziartu eskalatzailea egongo da. Bestalde, dagoeneko erakusketa berria dago ikusgai Arkupen: *Pertsonaien erakuseta: madarikatuak eta apartekoak*. Urriaren 31ra arte egongo da ikusteko aukera. Ikastaroetan izena eman nahi dutenek kultura etxera joan edo bertara dei dezakete.

Zinema gustuko dutenek ere euren tokia izango dute. Zineklubaren harira, hilaren 22an, *Bienvenidos al norte*; eta 29an, *Lejos de la tierra quemada* emango dute. Helduendako, *Gran Torino* eta *Slumdog millionaire* filmak; eta umeendako *La Pantera Rosa* 2 ere egongo da urriaren 25ean. Haurren zinemak hiru euro balio du eta gainontzekoena, lau.



LANGILE ETA LANGABETUENTZAT PRESTAKUNTZA IKASTAROAK %100 DIRUZ LAGUNDUTA

Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotzen zaion Katalogo Modularra.

LANGILEEI ZUZENDUAK

IKASTAROAK	ORDUAK	HASIERA
Fabrikazio elektromekanikoa		
Automatismos pneumatiko eta elektroneumatikoak	40	2010 otsaila
Automatismo hidraulikoak	36	2010 martxoa
Automatismo programagarriak	40	2010 apirila
CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa	46	2009 azaroa
CNC fresatzeko makinako mekanizazioa	50	2010 urtarrila
Fundizioa eta galda		
Kalitatearen kudeaketa	20	2009 azaroa
Kalitate tresnak	24	2009 azaroa
Teknika metrologikoak eta kalibraketakoak	50	2010 otsaila
Grabitatezko galda		
Grabitatzeko galda makineria eta materialak	60	2009 azaroa
Presiozko galda makineria eta materialak	60	2010 martxoa
Grabitatzeko galda makineria tresnerien lanak eta mantentzea	70	2010 urtarrila
Presiozko galda makineria tresnerien lanak eta mantentzea	70	2010 maiatza
Soldadura eta galda		
Kalitato estali bidezko angeluko soldadura	80	2009 urria
Elektrodo estali bidezko topekako soldadura	80	2009 azaroa
Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura	80	2010 urtarrila
Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura	50	2010 otsaila
Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura	50	2010 martxoa
Posizio horizontaleko TIG soldadura	50	2010 apirila
Beste posizio batzuetako TIG soldadura	50	2010 maiatza
Kualifikazio sistematiak kanpoko ikastaroak		
Ibilgailuen elektromekanika		
Ibilgailuen oinarrizko mekanika	14	2009 azaroa

LANGABETUEI ZUZENDUAK

Mekanizatua	520	2009 azaroa
Ibilgailuen elektromekanika	485	2009 azaroa
Geriatriako laguntzailea	359	2009 iraila

ETXEBALEI AUZOA, Z/G / 22 Pk.
20550 ARETXABAleta (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABAleta.COM
IA@IARETXABAleta.COM
T: 943 797 900 / 943 797 943
F: 943 770 955



JAIAK > SANMIGELAK ETA ERROSARIOAK

Sanmigelak giro onean ospatu ondoren, gaurtik Errosario jaiak

Eguraldi onarekin jende asko ibili da ekitaldi guzietan, eta Makalena elkarteko herri antzerkiak lepo bete zuen plaza San Miguel egunean



Txantxika parrokiatik txosnagunera jaitsi zen.



Danborradako sukaldarrien konpainia Santa Marinatik pasatzen.



Arno etxeko sokamuturraren aurrean korrika ibili ziren.



Plater tiroketako irabazleak: Iturbe, Intza (irabazlea), Sanchez (2.a) eta Telleria (3.a).



Eriz Magoa eta Gorka.



Zirka Zirkusekoek *Ilargian* antzezlana egin zuten.



Jammu perkusio taldeak ikuskizuna egin zuen kalerik kale.



Ume txikiiek ondo pasa zuten barraketan.

Txosna batzordearen egitaraua

EGUBAKOITZA, 2	22:00 Kontzertua Miren, Agur eta Gorka taldearekin. Ondoren Impekables taldearen azken kontzertua.
ZAPATUA, 3 Herri Eguna	21:00 Afaria. 22:00 Musika jaialdia: Klavo Oxidado, RDT, Ford Eskor-Buto, Gargantas Profundas eta Erantzun taldeak.
DOMEKA, 4 Errosaiko Eguna	17:30 Patata tortilla lehiaketa. 23:00 Laburmetraien emanaldia.
ASTELEHENNA, 5 Errosaiko Bixamona	14:00 Paella jana. 17:00 Bertsioen kontzertua.



Makalenakoek herri antzerkia egin zuten, eta plaza lepo bete zen.

ARGAZKIAK: MIREIA BIKUÑA, OIHANA ELORTZA ETA ANTONIO BIKUÑA.

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Txantxikuaren jaitsierarekin jai giroan murgildu ziren oñatiarrak astelehenean. Herriko jai nagusietako lehen etapa erre dute dagoeneko, eta eguraldiak lagunduta jai giroa izan da nagusi herrian. Batez ere, plaza inguruaren eta txosnagunean.

Ekitaldi gehienek erantzun ona jaso zuten herritarren aldetik: danborrada, musika bandaren kontzertua, Etxaluzeko haur

parkeak eta San Miguel Bixamon eguneko sokamuturrak. Baino, duda barik, herritar gehien bildu zuena Makalenako herri antzerkia izan zen. Plaza ingurua lepo bete zen 1542-Oñatiko hitzarmena delako antzezlana ikusteko. Era berean, Senegalgo Jammu perkusio taldearen emanaldiak ikusmin handia pitzu zuen.

Txosnagunean ere giro ona egon zen. San Miguel egunean koadrilen arteko olinpiadak egin

zituzten eta Eriz Magoak ikuski-zuna egin zuen hainbat herritarren laguntzarekin.

Samigelen ondotik, Errosario jaiak ospatuko dituzte gaurtik astelehena arte. Hala, bertsos-ekin hasi eta mozorroekin bukaturko dituzte jaiak oñatiarrek. Mendiluze, Lujanbio, Lizaso, Iturriaga, Irazu eta Egaña ibiliko dira bertso-tan kirolegian eta herri kirolen jaialdia plazan.

askotariko erakusketa eta lehiaketak eta sagardo dastatzea egingo dituzte. Gainera, herri bazkaria egingo dute kirolegian eta herri kirolen jaialdia plazan.

AUTO KLASIKOAK

Domekan, besteak beste, auto klasikoekin erakustaldia izango da eta profesional mailako pilota partiduak jokatuko dituzte. Astelehena mozorroak kalera ateratzeko eguna izango da. Zein izango da mozorro originalena?

Udal egitaraua

EGUBAKOITZA, 2

22:30 Zubikoa pilotalekuaren Bertso Jaialdia.

Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Uxue Alberdi eta Andoni Egaña.

ZAPATUA, 3 Herri eguna

09:00 Txistulari Bandaren Goizeresia.

10:30 Unibertsitate inguruaren:

- > Herri mailako behi erakusketa.
- > Herri mailako ardi, ahari eta bildots lehiaketa.
- > Asto erakusketa.
- > Behor eta zaldi erakusketa.
- > Euskal Txerri eta Oilo erakusketa.
- > Pottoka erakusketa.
- > Gazta Lehiaketa.
- > Herri mailako fruitu eta barazki lehiak.
- > Lore eta landare erakusketa.
- > Artisau erakusketa.

11:00 Oñatioko musika eskolako trikitilariek eta Tolosako gaitariak herriko kaleetan.

12:00 XXIII. Sagardo dastaketa Foru plazan.

- Sagardotegiak:
> Abaltzisketa: Zalbide.
> Aduna: Aburza, Zabala.
> Asteasu: Sarasola.
> Astigarraga: Astarbe, Bereziartua, Etxeberria, Larrarte, Lizeaga, Petritegi, Sarasola.
> Ataun: Urbitarte.
> Azpeitia: Añota.
> Donostia: Barkaiztegi.
> Hernani: Otsua-Enea, Altzueta, Akarregi, Larre-Gain, Itxas-buru.
> Legorreta: Aulia.
> Tolosa: Isastegi.
> Urnieta: Altuna.
> Usurbil: Saizar.
> Zerain: Otatza.

13:15 Lehiaketen sari banaketa.

14:30 Zubikoa kirolegian, herri bazkaria.

18:00 Foru plazan Herri Kirolen jaialdia. Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoa.

19:30 Parrokian F. Esnal Salbea, Parrokiako Koruak eta Oñati Abesbatzak abesturik.

20:30 Foru plazan, AMAIUR taldearekin erromeria.

20:30-23:30 Unibertsitate etorbidean Borondatezko alkohol-probak.

22:00 Zubikoa pilotalekuaren, 26. San Migel Pilota Txapelketako finalak.

23:00 Foru plazan, AMAIUR taldearekin erromeria.

DOMEKA, 4 Errosario eguna

09:00 Txistulari Bandaren goizeresia.

11:00 Parrokian Elkarmeza Nagusia, Parrokiako Koruak abestuta.

12:00-14:00 Etxaluzen, haur eta gaztetxoentzako parkea (zezen mekanikoa, rokodromoa tirolinarekin, giza futbolina eta quad pista).

12:00 Oñatioko Musika Bandaren Kalejira.

13:00 Oñatioko Musika Bandaren kontzertua Foru plazan.

- > Simba (pasodoble). Ricardo Dorado
- > Titanic. James Horn
- > Elvis Selection 1. Willy Hautvast
- > The Blues Brothers Revue. Jak Bocock

17:00-20:00 Etxaluzen, haur eta gaztetxoentzako parkea (zezen mekanikoa, rokodromoa tirolinarekin, giza futbolina eta quad pista).

17:00 Zubikoa pilotalekuaren, Profesional mailako pilotak partiduak.

Partidu nagusia: Titin III.a-Zubieta eta Xala-Eulate. Sarrera bakarra: 20 euro. Sarrerak aurrez salgai Kultur Etxean, irailaren 28an eta urriaren 1 eta 2an.

18:30 Foru plazan, Azulkillas taldearen *La historia de un baul* kale antzerkia.

20:00 Foru plazan Varadero orkestrarekin dantzaldia.

20:30 Balkoitik balkoiarako bertso saioa Kale Zaharrean.

23:30 Foru plazan Varadero orkestrarekin dantzaldia.

ASTELEHENA, 5 Errosario bixamona

09:30-10:00 Poney eta adardun animaliak Foru plazan.

10:00 Sokamuturra Foru plazan: ARNO Abeltzantzako zezenak.

12:00 Oñatioko Musika Bandaren Kalejira.

12:30 Mozorrotutako taldeen kalejira Incansables txarangak lagunduta.

16:30-17:00 Zezentxo eta Poneyak Foru plazan.

17:00 Sokamuturra Foru plazan.

Arratsaldean zehar Incansables txarangarekin kalejira.

20:00-21:00 eta 23:00 Foru plazan, Egan taldea.



Jokin Telleriak Santa Marina plaza margotu zuen Patrue kaleko bidegurutzetik begiratuta.

MIREIA BIKUÑA

KULTURA > AGERIKO VII. PINTURA LEHIAKETA

Lehen saria Telleriaren olio-pinturarendako

15 margolarik hartu zuten parte ageriko margo lehiaketan; irabazleak 600 euro eroan zituen

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Jokin Telleriak irabazi zuen Oñart taldeak antolatutako ageriko VII. margo lehiaketa. Beasaindarra 600 euro irabazi zituen egindako olio-pintura-rengatik. Bigarren sariko 400 euroak Esteban Oroz eibartarrak irabazi zituen. Bestalde, lehiaketara oñatiarrik aukeztu ez zenez, herriko margolan one-narendako zituzten 300 euroak hirugarren sarirako gorde zituz-

ten. Hala, 300 euroko bi sari eman zituzten: hain justu ere, Ekora (Araba) herriko Luis Gonzalezendako eta Juan Jose Altuna berigararrarendako.

Epaimahaiko kideak (Luis Laskurain, Mirari Sagartzazu eta Mila Azkue) oso gustura zeuden margoen mailarekin: "Ezusteko izan da guretako. Lan bikainak zeuden. Guztiak olio-pinturak ziren, akuarelaz egindako bat izan ezik".

PINTURAK ETA ESKULTURAK

Ageriko pintura lehiaketara aurkeztutako 15 margoekin eta Luis Laskurain irakaslearen ikastaroetan egidako lanekin erakusketa egin dute. Urriaren 12ra arte ikusgai egongo da kultura etxeko gelan, astelehenetik domikara, 18:00etik 20:00etara.

Gainera, margoen artean Gotzon Huegun eskultorearen lanak jarri dituzte. Hernanaria-rak hainbat sari lortu ditu; azkena, Morgesko (Suitza) simposioan lortutako saria; hain zuzen, egurrarekin egindako lan onenaren lehen saria.

> MUSIKA

Musika eskolakoek herri bazkaria girotuko dute bihar

Jose de Azpiazu musika eskolako 39 lagunek biharko herri bazkaria girotuko dute. Kan-tuan letrekintzak paperak banatuko dituzte, guztiak kan-tuan egin dezaten. Bestalde, bihar, 10:30ean, San Martin egoitzan hasita kalejira egingo dute akordeoi eta triki-pandero taldekoek.

> DEIALDIA

Bilera irekia egingo dute herri batzarra sortzeko asmoz

Egunkaria-ren itxieragatik auzipetutu dauden pertsonaien elkartasuna adierazteko herri batzarra sortu gura dute. Horren harira, bilera irekia egingo dute urriaren 8an kultura etxearen 19:00etan.

PREBENTZIOA > KANPAINA BEREZIA

Unibertsitate aurrean egingo dituzte bihar arratsaldean borondatezko alkohol probak

Iaz 401 proba egin zituzten eta %64,84 positiboak izan ziren; 181 gizonezkoenak izan ziren, eta 79, emakumezkoenak

tarako aukera izango dute. Sasoiak elkarteko kideek Ertzaintzak erabiltzen dituen alkoholi-metroak erabiliko dituzte. Gainera, hainbat aholku emango dizkiete; besteak beste, positibo eman dutenei autoa hartzeko zenbat denbora itxaron behariko duten esango diete.

47 PERTSONA, GIDATU EZINIK

Iaz, Herri Egunean 401 proba egin zituzten. Egindako alkohol-proben %64,84 positiboak izan ziren, 181 gizonezkoenak izan ziren, eta 79 emakumezkoenak. Gainera, positibo eman zuten 47 pertsona (hiru emakume eta 44 gizon) odoleko alkohol maila handia zuten eta Sasoiak elkartekoek autoa ez hartzeko aholkatu zieten.

OSASUNA > SENDAGAIAK

Martxan da sendagaien erabilera egokia bermatuko duen programa

Dagoeneko bi eskoriatzarrek eman dute izena programa berri horretan

Abuztuan hitzarmena sinatu zuten Gipuzkoako sendagaigileen elkartea eta Udalak

A.EZKIBEL-M.BITERI > ESKORIATZA
 Joan den abuztuan Eskoriatzako Udalak eta Gipuzkoako sendagaigileen elkartea etxez etxez zerbitzua jasotzen duten gaixoei zuzendutako programa hitzartu zuten. Hilabete pasatu da, eta zerbitzu berri hori dagoeneko martxan dagoela azaldu digu Gizarte Zerbitzuetako langile Agurtzane Altubek.

Gipuzkoako sendagaigileen elkarteko presidente Francisco Asis, eta Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabaster, hitzarmena sinatu zuten egunean.

Asis Etxebestek honako hau esan du: "Konturatu gara pertsona nagusiek eta sendagai asko



Gipuzkoako sendagaigileen elkarteko presidente, Francisco Asis, eta Eskoriatzako alkatea, Pedro Lasagabaster, hitzarmena sinatu zuten egunean.

ARANTZAZU EZKIBEL

hartu behar dituztenek ziur ez dutela jakiten sendagaia hartu duten edo ez. Hala, batzuetan ez dute sendagairik hartzen eta beste batzuetan birritan hartzen dute. Modu honetan, medikuak esandako besterik ez dute hartuko". Bestetik, programa horrek sendagaiak errazago eskuratzea ere ahalbideratzen duela dio.

HAMABOSTEAN BEHIN

Hortaz, gaixoak farmazian jasotzen du, hamabost egunean behin, egunero eta ordu bakoitzean har-

tu behar duen sendagai kopuru. Programak dosifikazio sistema personalizatuak erabiltzen ditu. Horietan, gaixoak une bakoitzean hartu beharreko konprimituak prest ditu eta dosia zuen hartzeko beharrezko informazioa du. Horretarako, Eskoriatzako farmaziak programan parte hartzeko beharrezkoaren baimena lortu behar izan du.

Oraingoz, etxez etxez zerbitzua jasotzen duten gaixoei dago zuzenduta zerbitzu hori. Eskoriatzan 25 inguru dira zerbitzu hori

erabiltzen dutenak. Altubek jakinarazi digunez, apurka ari da jendea programan sartzen: "Gaur egun bi eskoriatzar daude eta asteon hirugarren batek informazioa eskatu du". Horrekin batera, esan du zerbitzua erabiltzen hasi diren bi herriar horiek "pozik" daudela, "erosoa" delako.

ESKAERA AURKEZTEKO

Horrekin batera, programan parte hartzeko interesa dutenei zer egin behar duten azaldu gura izan die: Gizarte Zerbitzuetako bule-

gora joan behar dute; han, etxez etxez zerbitzua jasotzen dutela ziurtatu eta eskaera herriko farmaziara bidaliko dute, dagokion zigiluarekin. Jarraian, herriar horien laguntzailearekin harremanetan jarriko dira arazorik ez dagoela ziurtatzeko eta dosifikazio sistema prestatzeko.

DEBAGOIENEKO LEHENA

Debagoienean Eskoriatza da lehenengo herria programa horretan parte hartzen duena; eta, Gipuzkoan, seigarrena.



Bisita berezia jaso zuen martitzen goizean Sabina Artatzak egoitzan.

JENDARTEA > URTEBETETZEA

Sabina Artatzak 102 urte bete ditu asteon

Martitzenean omenalditxoa egin zioten etxekek, udal ordezkariek eta Olazar elkartekoek egoitzan

M.B. > ESKORIATZA

Sabina Artatza eskoriatzarrak urteak bete ditu asteon. Hain justu ere, 102 urte egin zituen joan den martitzenean, hilak 29. Hori dela-eta, omenalditxoa egin zioten herriko zaharren egoitzan, orain dela hiru urte bizi den tokian.

Opaiak ez ziren falta izan ospakizunean: besteak beste, bonboiak, landare bat eta negurako artilezko xal ederra oparitu zizkioten martitzen goizean egoitza joan zirenek. Senitartekoez gain (semea eta haren emaztea), Udalaren izenean Dorleta Leze-

ta eta Begoña Eraña zinegotziak eta Gizarte Zerbitzuko langile Agurtzane Altube izan ziren, besteak beste. Olazar erretiratuen elkarteko zuzendaritzako kideek eta egoitzako arduradunek eta zenbait lagunek ere eskoriatzarra zoriondu gura izan zuten egun berezi hartan.

ROSALIA BLANCO

Bestalde, datorren astean ehun urte beteak dituen beste eskoriatzaren urtebetetzea izango da. Rosalia Blancok 101 urte egingo ditu eguztenean, urriak 7. Zorionak, hemendik, bio!

MIRIAN BITERI

MINTEGIA > OSASUNA

Emozioen tailerrean izena eman daiteke gaur arte

Interesatuek kultura etxera joan behar dute; matrikulak 58 euro balio du

M.B. > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, amaitzen da Udalak antolatutako *Gure emozioak nola gobernatu* mintegian izena emateko aukera. Horretan parte hartu nahi dutenek kultura etxeekin jarri behar dute harremanetan. Tailer horretako matrikulak 58 euro balio du.

Pepa Bojo psikologoak eskainiko du mintegi hori. Emozio-

ak ezagutu, ulertu eta gobernatzen erakutsiko die partaideei. Hala, bakoitzaren beldurak ezagutu eta horiek nola gobernatu eta ondo sentitzeko beharrezko oreka lortzen ikasiko dute.

GUTXINEZ 20 LAGUN

Guztira, bi orduko hamar saio izango dira, eguenetan, 18:00etik 20:00etara bitartean, kultura etxeen. Lehenengo saioa urriaren 8an egitea aurreikusi dute; eta azkena, abenduaren 10ean. Dena den, Udalak jakinaz digu, mintegia aurrera atera ahal izateko, gutxienez 20 lagunek eman beharko dute la izena horretan.

oharrak

IKASTAROA

> **Helduendako pintura ikastaroari hasiera emango diote bihar**

Kultura etxeak helduendako antolatutako pintura ikastaroa bihar, zapatua, hasiko da. Bihartik ekainera bitartean, 14:30etik 17:30era bitartean izango dira eskolak .

KINTADIA

> **1959an jaiotakoek bazkaria egingo dute urriaren 24an**

1959an jaiotako eskoriatzarrrek bazkaria egingo dute urriaren 24an. Bazkaria 14:30ean izango da Apotzagako elkartean. Interesatuek 50 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutzako 3035 0044 84 044.1.035241 kontuan egubakoitza, urriak 9, baino lehen.

EUSKARA

> **Leintz euskaltegian izena emateko afea zabalik dago**

Matrikula zabalik dute Leintz udal euskaltegian. Euskara ikasi edo hobetu gura dutenek 943 79 21 38 telefono zenbakira deitu behar dute.

KIROLA

> **Denboraldi berriari hasiera eman diote hainbat taldek**

Kiroletan denboraldi berriari hasiera eman diote dagoeneko herriko hainbat taldek. Bihar, 16:00etan, saskibaloiko junior mailako neskek Bera Bera Ulia taldearen kontra jokatuko dute; eta 18:00etan, Ohorezko Ligako areto-futbol partidua egongo da. Norgehiagokak Intxaurtxuetan izango dira.



Domekan 180 lagun inguru elkartu ziren herriko pilotalekuaren.

JOSETXO ARANTZABAL

ERRETIRATUAK > OMENALDIA

Herriko erretiratuak ezin hobeto ibili ziren domekan, 65 urtetik gorakoei eskainitako omenaldian

Bestalde, astelehenean, urriak 5, Andorrara joango dira herriko erretiratuak; bost eguna emango dituzten han

MIRIAN BITERI> ESKORIATZA

Gustura ibili ziren domekan herriko erretiratuak. Dena aurreikusi bezala irten zen. Goizean, 11:00 pasatxo zirenean, salda beroa hartu eta handik, meza entzutera

joan ziren gehienak; San Pedro parrokian izan zuten meza. Jarraian, pilotalekurantz abiatu ziren 180 erretiratu inguru. Gustura geratu ziren partaideak bazkariko menuarekin. Hasteko, urdaiazpikoa, esparragoak eta patea jan zuten; eta bigarrenik, legatza saltsan. Tarta eta izozkik rako tokia ere gorde zuten.

100 OPARI INGURU

Bazkaldu ostean, pilotalekuaren bildutako artean opari banaketa egin zuten. Guztira, aurten omenaldirako, herriko merkatarien pareko autobus geltokitik. Zapatuan opari inguru eman zituzten,

eta erretiratuen artean zozketatu zituzten. Bitartean, bazkarian zeuden eskoriatzar nagusienek, Bernabe Errastik eta Rosalia Blancok, aipamen eta opari berezia jaso zuten. Eguna behar bezala amaitzeko, dantzaldia izan zuten. Juan Carlos Zubia arduratuko zen pilotalekuaren girotzeaz.

ASTELEHENEAN, ANDORRARA

Bestalde, datorren astean, bost eguna emango dituzte erretiratuek Andorran. Astelehenean, urriak 5, 07:30ean irtengo dira estanko pareko autobus geltokitik. Zapatuan itzuliko dira herrira.



GOIENKARIA

Larruzalaz hitz
egin zuen
Marisol Rebollok

Amuska emakumeen elkartearren eskutik, joan den astelehen arratsaldean larruzalaren gaineko berbaldia egon zen kultura etxeen. Marisol Rebollo aditua arduratu zen han bildutako hamabi bat emakumeei horren gaineko azalpenak eta hainbat gomendio emateaz. Besteak beste, larruzalaren zahartzean eragiten duten hainbat faktore aipatu zituen, hala nola eguzkia, alkohola, tabakoa, estresa eta kutsadura. Horretaz gain, azal bakoitzari ondo datozkion kremak probatu zituzten han.

> INFORMATIKA

KZguneak urriko egitaraua gertu du: urriaren 14an eta 28an eskainiko dira han ikastaroak

Eskoriatzako KZguneak urriko egitaraua kaleratu du asteon. Urriaren 14an eta 28an bisitatu ahalko da, goizez: 10:30etik 13:00etara bitartean. Betiko moduan, Aitor Madrid tutorea gertu egongo da kurtsoak eskaintzeko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

Besteak beste, honako ikastaroak egin daitezke egun horietan: sare sozialak, Skype, Google tresnak, Blogger, Youtube, Wikipedia, Google Maps eta Earth, zuhaitz genealogikoa egitea, Megupload, Softonic, Gmail eta Flickr zerbitzuak.





Antzuolako eta Aiherrako ordezkariak senidetzearen urteurreneko aurkezen ekitaldian.

ARGAZKI PRESS

SENIDETZEA > ANTZUOLA-AIHERRA

Bi herrien senidetzearen sortzaileek aurkeztu dute 25. urteurrena

Antzuolako Juan Antonio Iturberi eta Ima Beristaini eskerrak eman dizkiete, bultzatzaileak izateagatik

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Astelehenean aurkeztu zituzten, Donostian, Aiherraren eta Antzuolaren arteko senidetzearen 25. urteurrenako ekitaldiak. Aurkezpenean izan ziren Antzuolako eta Aiherrako alkateak, Pedro Iturbe eta Jean Paul Basqueretxe; Jean Mixel Barbier, Aiherrako Beltzuntze elkartekoak; eta Juan Antonio Iturbe eta Andre Martinon, Antzuolaren eta Aiherraren arteko harremannaren sortzaile eta bultzatzaileak. Han izan ziren, baita ere, 25 urteotan bi herrietako alkate izan direnak ere.

Kontuan hartuta bi herrien arteko harremana Aiherrako Beltzuntze elkarteko eta Antzuolako lagun talde baten adiskidetasunetik sortua dela, senidetze

horren bultzatzaileek hartu zuten hitza urteotako bizipenak kontatzeko. Bestalde, Antzuolako udal-batzarrak urriaren 7ko osoko bil-kuran onartuko duen adierazpena irakurri zuen Aiherrako alkateak, eta Antzuolako alkateak, urteurrenaren harira egingo diren ekitaldien berri eman.

ERAKUNDEEN DEKLARAZIOA

Adierazpen horretan eskerrak ematen dizkiote Andre eta Aña Mari Martinoni eta Juan Antonio Iturbe eta Ima Beristaini harremana hastearren. "Herritarrek sustatutako harremana, herritik sortua eta azkartua, gure altxorra", dela dio adierazpenak. Bestalde, herritarrei eta elkarteari harremana indartzeko eta urteurrenako ekitaldietan parte

hartzeko dei egiten diete eta etorkizuneko udal hautetsiei senidezeari laguntzen jarraitzen.

BAZKARIRAKO TXARTELAK SALGAI

Urriaren 11n izango dira ekitaldi nagusiak, baina gerora ere ez da ekintzarik faltako urteurrenaren harira. Azaroan Antzuolako Los Viernes al Ron taldeak Aiherrako gaubelan hartuko du parte; abenduan Thomas Ospital aiherraren organo kontzertua izango da Antzuolan, eta otsailean antzuolarrek Aiherrako Santa Ageda bezperako ekintzetan hartuko dute parte, eta bertso saioa ere izango da Antzuolan, hango eta hemengo bertsolariekin. Urriaren 11rako bazkarirako txartelak salgai daude jadanik herriko tabernetan, gaztetxean, liburutegian eta udaletxean; umeendako sei eurotan eta heldunden-dako 12 eurotan. Txartelak eros-teko azken eguna urriaren 7a da.

LARREA**TABERNA**Kalebarren 17
ANTZUOLA*Tomas Gezalaga***Zoruen kutxilatu eta bernizatzea**Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA**GAILUR**taberna eta
gozategiaBuztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

MENDIA > KILIMANJARO

Hiru antzuolar Kilimanjaro mendiko gailurrean izan dira

I.A. > ANTZUOLA

Aurten 60 urte bete dituzte Migel Angel Lizarralde eta Jose Antonio Ugarteburuk; eta biek eta azken horren seme Jonek modu ezohikoa aukeratu dute ospatzeko: Tanzaniako Kilimanjaro mendiaren gailurrera igotzea.

Irailean egin dute espedizioa, Machame Gate bidetik. Polita izan dela esan digu Ugarteburuk, baina aklimatazioa zen euren kezka nagusia: "Pirinioetan ibiliak ginen, baina Kilimanjarok 5.795 metro ditu".



Clinton (gidaria), Lizarralde eta Jon eta Joxean Ugarteburu, tontorrean.

> TIROA

Eskopeten eta kartutxo-en gaine-ko ikastaroa izango da eguztenean eta egunean

Eperra elkartea eskopeten, kartutxo-en eta tiro tekniken gaine-ko ikastaroa antolatu du urriaren 7 eta 8rako. Olaranen izango da, 19:30ean, eta sarrera doan da. Ikastaroan, eskopetaz, kartutxoez eta horien erabilera eta ehizarako eta plater eta usakume tirorako teknikez jardungo dute. Ehizan eta tiroan jarduten dute-nendako ikastaro interesgarria izango da zalantzak argitzeko.

> ERRETIRATUAK

Meriendara eta irteera joan nahi duten erretiratuek aurrez eman beharko dute izena

Erretiratuen kultura astearen harira, hainbat ekintza antolatu dituzte, baina horietako bitan parte hartzeko, izena eman behar da, aurrez: urriaren 13an hitzaldiaren ostean izango den meriendarako eta urriaren 14an Bizkaira, Portugaleterea, egingo duten irteerarako zabalduko dute izenematea, hain zuzen ere. Hilaren 7an edo 8an 16:00etatik 18:00etara bitartean erretiratuen elkarteara jo beharko dute interesatuek.

Tomas Gezalaga

Apaintetarako eta

industriarako pinturak

•

Paper margotuak

•

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21 ANTZUOLA

676 997 400

Biltegia: 943 78 70 40

ANTZUOLAApaintetak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioakKalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

LANAK > ASENTZIO

Angiozarkoek salatu dute Asentzion badutela zer esan

Elgetarekin lantaldea osatu, eta erabakiak elkarrekin hartzeko proposatu dute

Udalak dio, berriz, ez dela Elgeta zer den eta zer ez den eztaba idatzen hasiko

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Angiozarren kexu agertu dira Elgetako Udalak ez duelako Asentzioko lanak egiten hasi aurretik eurekin ezartarako kontatu. "Hedabideen bitarte izan dugu egitasmoaren berri eta Asentzio Angiozarrena da". Eskritura batzuen kopia esku artean duela egin ditu adierazpenok Angiozarko auzo-alkate Mila Elortzak. Idatzi horretan agertzen da nola 1864ko ekainaren 28an Juan Blas de Berraondok Angiozarko parrokiari eman zizkion Asentzioko bere lurra. "Naturguna mantentzearen aldekoak gara", azaldu du Elortzak, "eta badakigu Elgetako Udala ere iritzi bereko dela. Baina gaizki iruditu zaigu putzuan egin duten dragatzera". Elortzaren ustez, urteotan guztietan putzuan pilatutako materialaren artean informazio ugari egon zitekeen; esaterako, Spainiako gerran putzuari emandako erabilera inguruakoa. "Gauzak ezin dira horrela egin. Adituak kontsultatu behar dira, ekintza horiek inpaktua izan dezake-eta ingurumenean".



Asfaltoa kendu egin dute Asentzion, eta harrizko bidea egin. Gainera, putzua dragatu egin dute.

LEHIAKETA

Urrian 'Elgetaklik' lehiaketa abian

Argazki erakusketa eta sari banaketa hilaren 18an egingo dituzte

L.Z. > ELGETA
Elgetako zure txokorik maiteenak izenburuean Udalak argazki lehiaketa deitu du. 14 urtetik gorako herriko guztiek har dezakete bertan parte eta lanak urriaren 5etik 13ra bitartean aurkezta behar dira udaletxeen.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkezta ahal izango ditu, eta lanak digitalean, JPG formatuan aurkezta beharko dira udaletxeen. Herriko argazkilari profesionalek egingo dituzte epaimahai lanak. Sei sari daude jokoan, guztiek ere Eibarko Ikatz dendetan trukatzeko bonuak. Pintxo lehiaketaren egunean, urriaren 18an, banatuko dira guztiek.

> MERKATARITZA
Astebete barru zabaldu gura du harategia Albizuk

Lehenbailehen zabaldu gura du harategia Imanol Albizu harakinak. Lanak amaituta dauzka Salvador kaleko lokalean, eta adierazi du bere esku ez dauden zenbait gauza zintzilik dituela oraindik. Oke-laz gain, kontserbak, ogia eta aurrez prestatutako jakia ipiniko ditu salgai.

KIROLA > ATE IREKIAK

Udaleko kirol saioetan doan parte hartzeko aukera dago

L.Z. > ELGETA
Bi asteko irekiak egingo dituzte Udaleko kirol saioetan. Hilaren 15era arte, beraz, jarduera, taldea edo irakaslea gustukoak diren doan komprobatzeko aukera izango du Udalak.

Orain arteko izenemateei dagokienez, spinningak arrakasta handia izan du: 24 lagunek hartuko dute parte jarduera horretan eta jendea kanpoan gelditu da, Udaletik adierazi digutenez. Aurten berria den karate ikastarorako 11 lagun daude izeana emanda eta yoga saioetarako beste horrenbeste. Tai txirako bederatzia laguneko taldea osatu

da, sasoian egoteko gimnasiarako sei eta erretiratuen kirol saioetarako sei. Aurten berria den GAP/streching jarduerarako, berriz, bost lagunek eman dute izena.

DEIA GAZTEEI
Udalak bereziki animatu nahi ditu gazteak ate irekietan parte hartzera. Gazte multikirol saioetarako jende gutxi animatu da, eta plaza libreak gelditzen dira oraindik.

Bi asteko ate irekiak egin ostenan zehaztuko dira Udaleko kirol eskaintzako taldeak ikasturte osorako.



EMILIO MANDALUNIZ

Elgetarrak Gasteizko Magialdian

Emilio Mandaluniz eta Kontxi Gorroxategi Gasteizko Magialdian izan ziren irailaren 18an. Elgetako Magia Mostraren irabazi zituzten Gasteizko emanaldirako bi sarrerak, eta Mandalunizen hitzetan "fenomeno" ibili ziren. Goi mailako magia emanaldia ikusi eta afari dotorea egin zutela kontatutu dute.

Espaloian Magia Mostrarenurrengoa edizioa prestatzen hasiak dira, eta ikusleen artean sariak banatzen jarraituko dute. Nork daki, akaso hurrengoa zuri egokituko zaizu!

> MUSIKA

Jones & Marauri
bikoteak kontzertua
emango du zapatuan

Michael Kevin Jones biolontxelo-jotzaile britainiarra eta Agustin Marauri gitarra-jotzaileak kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua. Emañaldia San Martin elizan izango da, 20:30ean.

Jones & Marauri bikotea 1990ean sortu zen Madrilgo Udaleko ganbera musika jaialdiaren ondorioz. Bakarra nork bere ibilbidea jarraitzen duen arren, noizean behin elkartu egiten dira birak egiteko eta diskoberriak prestatzen. Joaquin Rodrigo, Benedetto Marcello eta Manuel de Falla autoreen abestiak joko dituzte, bes-teak beste, Aramaion.

**barikuetako
filmak****Urrak 3, zapatua**

Slumdog millionaire
> Zuzendaria: Danny Boyle
> 14 urtetik gorakoendako.

Urrak 9, barikua

La duda
> Zuzendaria: John Patrick Shanley
> Adin guztiendako.

Urrak 16, barikua

El curioso caso de Benjamin Button
> Zuzendaria: David Fincher
> Adin guztiendako.

Urrak 23, barikua

La clase
> Zuzendaria: Laurent Cantet
> 16 urtetik gorakoendako.

Urrak 30, barikua

Home
> Zuzendaria:
Yann Arthus-Bertrand
> Adin guztiendako.

Emanaldi guztiek 22:15ean
izango dira, kultura etxearen.
Filmak ikusteko euro bat
ordaindu beharko da.

HIRIGINTZA > AZTERKETA

Arkitekturako 70 ikasle inguru etorriko dira bihar Madrildik

Ikasleek hirigintza
antolamendurako
proiektuak garatuko
dituzte zapatuko
bositaren ostean

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Arabarri Arabako Diputazioaren sozietae publikoa da eta lan-kidetza eskaintzen du Arabako 25 udalteen, tartean Aramaion. Haren helburua da Arabako kultura ondare eraikian ezagutzea eta kontserbazioa sustatzea.

Oraingo honetan, Aramaion kokatuko da euren lana. Madrilgo eskola politeknikoko arkitektura eskolarekin hitzarmena dauka sinatuta Arabarrik eta hainbat proiektu egiten dituzte elkarlanean. Zapatuan 70 ikasle inguru etorriko dira Madrildik



Aramaioko hirigintza antolamendua aztertuko dute, herrigunekoa eta auzoetakoia.

JONE INUNTIAGA

DATUA

70**IKASLE ETORRIKO DIRA**

Eguerdi partean iritsiko dira
ikasleak Aramaiora eta Ibarra
ezagutzeaz gain herriko auzo
guztiak bisitatuko dituzte.

JAIAK > UNTZILLA

Barikutik domekara arte festa nagusituko da Untzillan

A.B. > ARAMAIO

Oraingo honetan Untzillako bizi-lagunei tokatzen zaie festa giroan ibiltzea. Barikua eta domeka bitartean auzoko jaiak ospatuko dituzte, eta izango da zer egin.

Barikuak etxfuegoekin
emango diete jaiei hasiera; zapatuan goizaldera arte ibiliko dira festan, tartean bolo txapelketa eginda. Domekan, bermutarekin amaituko dira festak.

Untzillako jaietako egitaraua**Urrak 2, barikua**

19:00 Jaiei hasiera kanpai-jotze eta
etxfuegoekin.
20:00 Auzo afaria Anjel Mari
Peñagarikano eta Joxe Agirre
bertsolariekin.

Urrak 3, zapatua

12:00 Meza.

13:00 Trikitilariek.

18:00 Antzerkia.

22:30 Dantzaldia: Lotxo taldea.

23:00 Bolo txapelketa.

Urrak 4, domeka

12:00 Meza.
13:00 Bermut dantza Nikolas
Gardokirekin.

Unzueta sagardotegia

**sagardoa txotxetik**

•

sagardotegiko menua

•

karta**eguneko menua**

•

ospakizunak

•

enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95



Soran Etxea hoteleko Montse Valerio pintxoak banatzen joan den zapatuan, Aretxabaletako plazan.

gabiltzan menu horren bila, baina gero gustura hartzen dute. Erakundeetik datozenek, ostera, izaten dute berri eta aurrez lotzen dute".

Onddoak eta bildotsa erabili eta jatetxe bakoitzak norberaren menua gertatuko du eta bi lehen plater, bi bigarren plater eta postrea izango ditu. Soranek umeendako menuak ere gertatzen ditu. Martitzenetik domekara bitartean eskainiko dute eta aurrez txanda hartzea komeni da.

URTEBETEKO JARDUNA

Iraialaren 11n bete zuen urtea Soran Etxeak eta bertso afaria eginda ospatu zuten: "Oso giro polita izan genuen; ni Katalunia-ko naiz eta ez ditut ulertzten bertsoak, baina izugarri gustatu zitzaiakidan eta oso ondo pasatu genuen. Egia da jende asko ez ginela elkartu, herriko jaiak pasatu berri zeuden-eta; horregatik, beste bat antolatu gurako nuke aurrerago. Hurrengoan sagardotegiko giroa sortuko dugu, menu bereziarekin eta kupelak ekarri-ta", azaldou Valeriok.

Pozik daude urtebetean Soranek izan duen jardunarekin, nahiz eta hotelera jende gutxi joan: "Datorren astean dator Copreciko lagun batzuk, baina bestela geldi dago hotela. Nik uste dut denbora behar duela", dio. Jatetxearekin, ostera, oso pozik daude: "Lehendik geneuzkan bezeroak dator, baina berriak ere bai, asko. Gainera, lagunarteko bazkari asko izaten ditugu, eta benetan pozgarria da hori, krisi sasoian bizi arren elkartzeko ahalegina egiten delako".

ESANAK

"Donostia aldetik gurera jendea ekartzea ez da samurra eta edozein publizitate kanpaina da ona"

Montse Valerio > Soraneko jabea

TURISMOA > III. GASTRONOMIA JARDUNALDIAK

Soran Etxean ere emango dituzte jardunaldiak menu bereziak

Hilaren 12tik azaroaren 15era bitartean onddoekin eta bildotsarekin egindako menu bereziak eskainiko dituzte

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Joan den zapatuan aurkeztu zituzten Debagoineneko III. gastronomia jardunaldiak Aretxabaletan. Mokadutxoa eskaini zuten Herriko Plazan, Lumagorri oilaskoarekin eta onddoekin eginda-

ko pintxoak eta ardo beltza euro baten truke; halako eskaintzari ezin muzin eginda, jende asko elkartu zen. Debagoineneko zazpi jatetxek hartuko dute parte hirugarren jardunaldi horietan, eta tartean dago Gatzagako Soran Etxea hotela.

EZAGUTARAZTEKO BIDEA

Soran Etxeak orain arte egindako hiru jardunaldiak hartu du parte. Bertako nagusi Montse Valerio pozik dago jardunaldi horiek: "Publizitatea egiteko modu ona da eta ezagutarazteko egiten den guztia ongietorria da. Jardunaldiak berri ematen

dut esku-orriak ateratzen ditu Mankomunitateak eta horiek Euskal Herriko turismo bulego guztietara doaz. Inguru hone-

ESANAK

"Donostia aldetik gurera jendea ekartzea ez da samurra eta edozein publizitate kanpaina da ona"

Montse Valerio > Soraneko jabea

tan zerbaite badagoela erakustea da helburua; non ote dago Gatzaga zalantza sortzea, esaterako. Izan ere, Donostia aldetik gurea jendea ekartzea ez da samurra eta edozein publizitate kanpaina da ona".

Urriaren 12an hasiko dira jardunaldiak gertatutako menu bereziak eskaintzen eta azaroaren 15a arte iraungo du. Onddoak eta bildotsa izango dira oraingoan menuetako protagonista. Herritarrek menu horien berri izaten duten galdetuta, baietz dio Valeriok: "Egia da oraindik gutxi datozena jardunaldiak direla-eta eskaintzen

ESANAK

"Lagunarteko bazkari asko izaten ditugu, eta pozgarria da hori, krisi sasoian bizi arren elkartzeko ahalegina egiten delako"

Montse Valerio > Soraneko jabea

HEZKUNTZA > IBILBIDEAK IKASLEENDAKO

Gatzagako inguruak ezagutzeko aukera eskaintzen die Mankomunitateak ikasleei

Trenbidea, gatz museoa, Erdi Aroko gunea eta natura ezagutzeko aukera daukate gazteek

M.A. > GATZAGA
Ezagutu Debagoinen leloarekin hainbat bisita antolatu ditu Debagoineneko Mankomunitateak ikastetxeendako. Gatzagara ere iritsiko dira ikasleak, hainbat ibilbide dituztelako aukera.

HAINBAT ERATAKO IBILBIDEAK
Lehen Hezkuntzakoei, hau da, 6 eta 12 urte arteko ikasleei, bi ibil-

bide eskaini diete: *Leintz Gatzaga eta trenbidea*, batetik, eta *Uraen erabilera*, bestetik. Vasco-Navarro trenbidea nondik pasatzen zen ezagutzeko aukera eskaintzen die lehen ibilbideak, Landan hasi eta herrira bitartean. Ondoren herria ezagutuko dute ikasleek: gatz museoa eta Erdi Aroko gunea. Era berean, landaretza eta herriko jarduera

ekonomikoak ezagutzeko aukera izango dute.

Uraren erabilera ibilbidea Hiruerreketan hasten da eta Urkulu urtegiko araztegian bukatu. Helburua da Deba ibaiaren ibilguak eta uraren erabilera ezagutaraztea ikasleei.

16 urtetik gorako ikasleei, ostera, ibilbide artistikoak eskaini dizkiete; horien artean, Debagoineneko museoak ezagutzeko aukera. Hala, gatz museoa eta Erdi Aroko gunea ezagutuko dituzte Ibarraundirekin batera.

HERRITAREN BISITAK

Ikastetxeetako ibilbide horiek herritarrek ere eska ditzakete. Horiek batera beste bat dago: *Iturriko gatz maiaian gozo*.

Jakionera bisita egiteko aukera da; hau da, barazkiak eta frutak zelan kontserbatzen dituzten ezagutzeko. Eta ibilbidean gatz museoak bisita dago sartuta. Gatz museoa aste bukaeran egoten da zabalik (12:00 eta 13:00) herritarrendako eta aste barruan bakarrik bisitari taldeendako, aurrez eginez gero hitzordua.

> DEIALDIA

Egurra eskatzeko epea astelehenean bukatuko da

Erabilera publikoa duten mendietatik ateratako egurrazen zozketan parte hartzeko izenemate epea astelehenean, hilak 5, bukatuko da. Udaltxean egin behar dute eskaera interesatuek.

Gatzagan erroldatuta egotea da izena emateko baldintza bakarra. Eskaera egin dutenen zerrenda osatu ostean egingo dute egurrazen zozketa, baina izenemate epea bukatu arte ez dute zehaztu-ko zein egunetan. Zozketa jendaurrean izango da; horiaz, denboraz iragarriko die Udalak interesatuei noiz egingo duten.

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

Maritxuren kalteak 'txikitze' Mondrak domekan jokatuko du

Arrasateko mutilek Beti Gazte hartuko dute domekan Mojategin; UDAk Getxon jokatuko du eta Aloña eta Bergara ere kanpora joango dira

XABIER URTZELAI > ARRASATE Hirugarren mailan, Aretxabalek Getxora egingo du bidaia bihar (18:00), kategoria horretako talde historikoetako baten kontra indarrak neurtzera –Arenas Getxo 100. urteurrena ospatzen dabil aurten, eta 1919an

Espaniako Kopa irabazi zuen talde horrek–. Aretxabaletak eta Arenas Getxok 1988an jokatu zuten azkenekoz, ondoren UDAk kategoria galdu zuen-eta. Orduan, aretxabaletarrek 0-1 hartu zuten mendean talde bizkaitarra, eta bihar ere UDAko muti-



Mondrako Muruamendaraz, atzean Ekain baloia urrunzeko eskatzen.

GOIENKARIA

MENDIA > NATURGAS HORNBEIN 09

Eguraldiak ez die aukerarik ematen Naturgas espedizioko kideei; domekara arte, zain

Bazirudien asteburuan ona izango zutela, baina azken iragarpeneak bestelakoa diote

X.U. > ARRASATE

"Everest mendiak beste aukera bat emango digu", zioen Alberto Iñurrategik domekan, baikor. Aste barruan ere GOITBko Magazinea saioan gauza bera berretsi zuen Aretxabaletakoak, eta

eguzten ilunkeran jasotako azken berriek zioten asteburuan beste ahalegin bat egiteko moduan egongo zirela. Joan den zapatu goizaldean bi elur-jausik japoniarren korridoretik ihes eginarazi zientik, Naturgas Hornbein espedizioko kideek hainbat egun izan dituzte erre-kuperatzeko, eta ez dute gehiagorik behar, gertu daude.

Atzo goizeko eguraldi iragarpenearen zain geratu ziren espedizioko kideak, baina BAT fun-

lak beste ezuste bat emateko asmoz joango dira Getxora, azken bost jardunaldietan partidurik galdu ez duen eta sailkapenean laugarren dagoen kontrarioaren kontra jokatzera.

MONDRAK, DOMEKAN

Normala den moduan, Mondrak zapatuaren beharrean gurago izan du partidua domekan jartzea (Mojategi, 16:30), jokalarien artean Maritxuren eragina txikia-goa izan dadin. Joan den astean Irunen berdindu ostean, Azkar-gortak zera adierazi zuen: "Irunen batutako puntuoa ona izango da baldin eta datorren astean Beti Gazteri irabazten badiogu". Mondrarekin batera, lesakarrek ere ez dute liga ondo hasi, horiek ere puntu bakarra batu dute-eta.

ALOÑAK ETA BERGARAK, KANPOAN
Oñatioko taldeak ere aspaldi ez du liga aurten bezain makal hasi, eta joan den asteko jipoia (1-6) ondo astindu du talde gorria. Zaleek bakarrik ez, jokalariek ere ezin zuten sinetsi Idiazabalek zelaian emandako errepasoa; izan ere, Azkoagainen horrelakoak ez dira ohikoak. Aurrera begira, Aloñak EHU Vasconiarren kontra jokatuko du bihar Herrerako zelaian (15:30), eta punturik batu ezean, bati baino gehiagori San Migelak ospatzen jarraitzeko gogoa ere kendu behar zaio.

Hain zuzen, Bergarak egiaz-tatu ahal izango du bihar Idiazabalen (16:30) joan den astean Oñatin gertatutakoa merituzkoa izan zen ala ez. Noski, Idiazabali meri-tua kendu barik –golak inork ez zizkion-eta oparitu–, sailkapenean laugarren postuan dagoen taldea horren indartsua den ala ez bertatik bertara ikusi ahal izango dute Manu Diazen mutilek.

daziotik GOIENKARIari jakin-arazi diotenez asteburuan ez dute ahaleginik egingo, alde batera utzi dute asmo hori, azken iragarpeneak ez direlako batere onak izan. Biharko, zapatua, hezesasun handia iragarri dute mendian, eta horrek elurra botako duela esan nahi du.

Eta, joan den asteburuan bizi-takoak bizi ostean, mendizaleek domekan edo astelehenean jaso-ko duten hurrengo iragarpenean zain geratzea erabaki dute.



Oñatioko martxan egindako erretretuan, ziklista bat aldapa behera.

J.A.

MENDIKO BIZIKLETA > IRTEERA

Bergarako mendi bizikleta irteera domekan 09:00etan

Debagoieneko mendi bizikleta zirkuituko hirugarren proba izango da domekakoa

X.U. > BERGARA Mundumira jaian mendiko bizikleta irteerak izan zuen arrakastarekin animatuta, domekan egingo dute Bergaran mendiko bizikleta irteera; eta asmoa da uteroko hitzordu bilakatzea.

Bergarako irteerarako antolatzaileek hiru ibilbide prestatu dituzte. Motzak 22 kilometro izango ditu (600 metroko malda), baina kontuan izan behar da zikistek Gorla igo beharko dutela, kantinaraino. Hortik aurrera, fisikoki ondo daudenek bi aukera izango dituzte: Elosumendiraino joan eta 38 kilometroko ibilbidea bete (1.036 metroko malda), edota Kurutzebakar igotzen animatu eta 44 kilometroko ibilbideari aurre egin



ANTXINTXIKA

Bartzelonako ironmanera, bihar

Antxintxika triatloj taldeko Javier Arconada eta Miguel Vazquez arrasatearrak Bartzelonan izango dira bihar, Kataluniako hiriburuan egingo duten lehenengo ironmanean esku hartzen. "Zirkuitu azkarra dela diote, batez ere bizikletako tartea oso laua delako, baina egia esan, ez dakigu askorik", adierazi dio Arconadak GOIENKARI. Bestalde, astelehenean irekiko da Antxintxikak urriaren 31n egingo duen 5. krosean izena emateko epea, Lazkano oinetakoak dendant, Goiena asegurueta, 0 km dendant eta www.antxintxika.org-en.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Numancia-Realia
Domeka. 17:00. Soria.

Hirugarren maila
Arenas C.-Aretxabaleta
Zapatua. 18:00. Getxo.

Gazteen liga nazionala
Antiguoko-Aretxabaleta
Zapatua. 17:15. Berio.

Gazteen euskal liga
Bergara-Zarautz
Zapatua. 16:30. Ibarra.

Ohorezko erregionala maila (lehengo preferentea)
EHU Vascónia-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Herrera.

Idiazabal-Bergara
Zapatua. 16:30. Arizkorreta.
Mondragón-Betxi Gazte
Domeka. 16:30. Mojategi.

Erregional preferentea
Antzuola-Iñarra
Zapatua. 17:30. Martutene.
Aretxabaleta-Borlaiza-Domeka. 16:30. Ibarra.

Lehen erregionala
Mondragón-Gazteak
Domeka. 12:00. Mojategi.
SBB Mutriku-UDA Arizmendi
Domeka. 17:00. Errortzaz.

Gazteen ohorezko maila
Urola-Mondragón
Zapatua. 16:00. Argiako.
Aloña Mendi-Anaitasuna
Zapatua. 12:00. Azkoagain.

Gazteen lehen maila
Urola-Bergara
Zapatua. 11:30. Argiako.
Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 16:00. Almen.
Aretx.Arizmendi-Soraluze
Domeka. 10:00. Ibarra.

Ohorezko kadeteak
Aretx.Arizm-Aurrera Ond.
Domeka. 12:00. Ibarra.

Aloña Mendi-Ordizia
Zapatua. 10:00. Azkoagain.
Eibar-B-Bergara
Domeka. 10:00. Azkoagain.

Kadete gizonezkoak

Urki-Arizmendi
Domeka. 17:00. Unbe.
Bergara-Elgoibar
Zapatua. 15:30. Ipintza.
Arrasate-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Mojategi.
Aretxabaleta-B-Eibartarrak
Zapatua. 11:30. Ibarra.

SASKIBALOIA

Lehenengo maila
MU-Mikeldi
Domeka. 18:00. Iturripe.

Senior autonomikoak
Santurtzi-Aloña Mendi
Zapatua. 20:30. Santurtzi.

Gipuzkoako seniorrak
Leioha Zara-Soraluce BKE
Domeka. 17:00. Zarautz.

Gazte mailako gizonezkoak
MU A-Zarautz Zast
Domeka. 11:30. Musakola.

Gazte emakumezkoak
Eskoriatza-Bera Bera Ulia
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.

Kadete gizonezkoak
Kraft Atco-MU A
Domeka. 10:00. Donostia.

ESKUBALOIA

Euskadiko seniorrak
Ford Mugarri-Corazonistas
Domeka. 12:30. Iturripe.

MENDIKO BIZIKLETA

Bergarako mendi bizikleta
irteera

Domeka. 09:00. Agorrosin.
Izenematea 08:00etan.



Mondragon Unibertsitatea lehenengo mailan lehiatuko da aurten ere, ligako talde gazteenarekin.

OINTEX!

SASKIBALOIA ETA ESKUBALOIA > LIGA HASIERA

Saskibaloit eta eskubaloit talde nagusiak liga hastera doaz

Saskibaloian MU izango da ibarrean maila goreneko taldea, eta eskubaloian Ford Mugarri

X.U > ARRASATE

MUk domekan hasiko du liga, Mikeldiren kontra (18:00, Iturripe). Zurbanoren mutilek iazko helburu bera dute, kategoriarri eustea. Iaz moduan, aurten ere ez da batere erraza izango, moreek oso talde gaztea dutelako. Gai-

nera, Zeziaga anaiekin (Cafes Aitonak) batera Kintanak (Iraurgi, EBA) ere taldea utzi du. Bestalde, ederto indartuta, Aloñako mutilak kategoriaz igo dira eta senior autonomikoan lehiatuko dira. Bihar (20:00), Santurtzin estreinatuko dira oñatiarrak.

ESKUBALOIAN, FORD MUGARRI

Edu Orgazan mutilak izango dira eskubaloian ibarreko aurreneko taldea, Euskadiko Txapelketan. Domekan bigarren jardunaldia jokatuko dute, Corazonistasen kontra (12:30).

Emakumezkotan, berriz, Verkol Aloña Mendi taldeko neskak izango dira erreferente, bai gazte mailan eta baita senior kategorian ere.

Boulevard Udazkeneko Moda Zuzenean BIHOTZERA



10.000 euro irabazi Boulevard dirutan eta lagundu gaitzazu CARITASEKIN elkar-lanean aritzen.

Saritutako 6€ bakoitzeko €1 erakundeari emango zaiolako. Parte hartu zure erosketa txartelarekin urriaren 1etik 10era arte Nodal Plazako saltokian eta 5 eta 100€ arteko Boulevard diruko baleak lortu ahal izango dituzu udazkeneko erosketetarako.

Informatu eta parte hartu Caritaseko projektuetan, behe solairuan gaitutako lokalean.

Konpromisoz beteta. ZUTAZ beterik.



www.el-boulevard.com
Bezeroarenenganako Arreta: 945 155 440

*Zazpi ahizparen gai den oihala
ebakirikan erditik,
alde batera hiru soineko,
utzirikan lau bestetik;
guraiziakin berezi arren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oihal batetik.*

*Oihaltzat hartu zاغun Euskadi
guraizitzat Bidasoa,
hibai koxkor bat besterik ez da
hutsa... balitz itsasoa.
Elkarren hurbil daude zazpiak,
muga daitzen da Pausoa.
Zergatik izan ez behar degu
famili bakar osoa?*

*Arbola baten zainetatikan
sortzen diran landareak
bezala gara Bidasoaren
bi aldetako jendeak;
berdinak dira gure jatorri,
ohitura eta legeak,
ama euskarak magal berean
hazitako senideak.*



Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

**Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati,
Muxibar, Taupa eta Gure Leku.**





> MUSIKA

Organo erromantikoaren zikloa Bergarara iritsiko da > 39



> ARGAZKI LEHIAKETA

Astelehenean ezagutuko ditugu irabazleak > 39

> MIREN ZUBELDIA

Matematika Leioan ikasi eta hainbat hiritan master bat egin ostean, matematika arloko ikerketan dihardu. Kirolaria ere bada > 42



Argazkian, aurreko domekan Aramaioko plazan egin zuten bisita gidatu antzeztuko irudi bat. Bihar, zapatua, euskarazko emanaldia izango da, 18:00etan.

JOSETXO ARANTZABAL

Bisita gidatu antzeztuak XV. mendeko Aramaio ezagutzeko

BIGARRENA Domekan egin zuten lehena eta Bihar, Zapatua, euskarazko emanaldia izango da 18:00etan

ONDAREA Zuiako Koadrilaren eskutik, herriko ondarea eta historia aditzera ematea da helburua

EDU MENDIBIL > ARAMAIO Zuiako Koadrilak antolatuta, bisita gidatu antzeztuak egiten hasi dira Aramaion. Aurreko domekan egin zuten lehena eta Bihar, Zapatua, izango da bigarren hitzordua, 18:00etan. Herriko plazan egingo dute emanaldia, 45 minuto inguruko. Domekako gazteleraiz izan zen eta Bihar-koa euskaraz izango da. Asier Alvarez de Arkaia da bisita gida-tuen koordinatzailea: "Domekako bisita gidatu antzeztura 80 lagun inguru etorri ziren; leku ezberdinatik, gainera: besteak beste, Santurtzi, Gasteiz eta Arrigorriagatik, eta pozik gau-

de jasotako erantzunarekin. Ea zapatuaren ere jendea animatzen den... Doaneko emanaldia izango da eta bertaratzen direnek XV. mendean Aramaio nolakoa zen ezagutzeko aukera izango dute. Bisita hauen helburua zera da: Zuiako Koadrilako lekuak ezagutzen ematea, modu ezberdinean. Iaz Zuijan egin genituen bisita hauetan, berriz, Goiuri-Ondonan eta Aramaion. Gainera, udazkena sasoi aproposa da horretarako, udan jendea *harrapatzea* zailagoa izaten delako, han eta hemen eskaintza ugari izaten dira-eta".

XV. MENDEKO ARAMAIO

Gasteizko lau aktorek hartzen dute parte, tartean Amaia Cid aktore oñatiarrak. Esan bezala, antzerkiaren bitartez Erdi Aroan kokatutako kondairak plaza-ratzen dituzte. Asier Alvarez de Arkaiaren hitzetan, "leku zapaldua zen Aramaio XV. mendean, herriko Juan Alonso de Muxika jauntxoaren menpe zeudelako. Tirania baten azpian egoten, herrikoak ez ziren batere pozik eta Turriaren izenez ezagutzen zen gaztelua botatzen parte hartu zuten biztanleek. Aramaiko udalerrian, Barajuenen zegoen aipatutako gaztelua". Hain zuzen ere, aktoreek dorretxeen,

gune historiko edo arte erromantikoaren gaineko azalpenak ematen dituzte. Aramaioko kasuan, Olatezar gaztandegiari esker, artzainen bizimodua ere

ezagutzeko aukera izango da bihar.

Alvarez de Arkaiak azpimarratzen duenez: "Bereziki gure historian eta kulturan murgildu

nahi direnei daude zuzenduta bisita hauetan eta herriarrak animatu nahi ditugu, parte har dezaten". Zapaturako gonbita, horrenbestez, hortxe.

Amaia Cid > Aktore oñatiarra

"Bisita hauetan kontu bitxi asko ezagutzeko aukera dago"

E.M. > BERGARA

Amaia Cid oñatiarrak (24 urte) Ingles Filologia ikasten dihardu Gasteizen eta, horrez gain, Ortzai antzerki taldean dabil. Aramaioko bisita gidatu antzeztuetan hartzen du parte, beste hiru aktorerekin batera.

Nola sortu zitzaitun Aramaioko bisita gidatu antzeztuetan parte hartzeko aukera?

Lehen ere Xenda eta Arabarri enpresekin ibilbidea nengoen, Arabako herri historikoetan horrelako bisitak eginez. Iaz Goiuri-Ondonakoetan hartu nuen parte eta aurten Aramaioko hauetan parte hartzeko deitu zituen.

Zein da zure pertsonaia?

Berta de Ibabe. Aitarekin eta anaiek bizi den neska gazte bat da, Alvaro de Arriolarekin maiteminduta dagoena. Baina Alfonso de Turriaren Berda de Ibaberaren atzetik dabil eta horrek



GOIENKARIA


Zer da Aramaioko historiatik gehien harritu zaituena?

Ez dakit. Kontu bitxi asko dago, baina gazteluak bereziki gustatzen zaikit eta ez neki Erdi Aroan Turriaren izeneko gaztelu bat zegoen Aramaion. Azken baten, horrelako bisita gidatu antzeztuak kontu bitxi asko ezagutzeko aukera ematen dizu. Gainera, gipuzkoarrontzat nahiko ezezaguna gertatzen zaigu Araba; Gasteiz kenduta, ezditugu Araban dauden txoko eder asko ezagutzen.

Bisita gidatuekin amaitu ondoren, hurrengo lana antzerkian zein?

Ikusi behar... Hasiera baten, zapatukoa izango da Aramaio egingo dugun azken bisita antzeztua, baina baliteke jarrai-pena izatea etorkizunean... Bestela, Ortzai taldearekin lan berria prestatu nahi dugu urtarilerako. Aurrekoan Oñatiarrera eraman genuen: *Las bodas de Fígaro*.

PRESTA ZAITEZ UDAZKENERAKO



Ilargi umeen denda
BERGARA
Ibargarai 14 • 943 08 29 65
Umeentzat behar duzun guztia



Join Us
ARRASATE
Maalako errebala 13 • 943 79 70 67
Umeen moda merke-merke



JOLAS arropa eta osagarriak
BERGARA
Barrenkale 27 • 943 76 46 48
Zenspirit arropak



MARKELÍNE haur moda eta puerikultura
BERGARA
Herrilagunak 6 • 943 76 05 24
Neurriak Otok 16 urtera



Tipi-Tapa
ARRASATE
Otalora Lizentziaduna 21 • 943 79 67 78
Umeendako oinetakoak eta abar...

MUSIKA > X. ORGANO ERROMANTIKOAREN ZIKLOA

Organo erromantiko zikloa abian

Fabiano Maneiro tronpeta-joleak eta Silvio Celeghin-en kontzertua zapatuan San Pedron

Aretxabaleta abesbatzak amaiera emango dio organo erromantikoaren zikloari urriaren 25ean

EDU MENDIBIL > BERGARA
Organo erromantikoaren nazio- arteko zikloaren barruan, Fabiano Maneiro tronpetak-joleak eta Silvio Celeghin organo-joleak kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Bergarako San Pedro parrokian, 20:00etan.

Aurtengoa zikloaren 10. eki- taldia da eta, aurrekoetan bezala, kontzertua Azkoitian (Santa Maria La Real elizan), Azpeiti- tan (Loiolan) eta Bergaran izango dira. Hamargarren urteur- rrena ospatzeko, Donostiako Orfeoiaren emanaldiarekin abia- tuko da kontzertu sorta. Gerardo Rifen organo-jolearekin bate- ra, Sainz Alfarok zuzendutako abesbatzak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Azkoitiko elizan, 17:00etan. Cavaille-Coll organo- aren soinu berezia izango da kon- tzertuko protagonistako bat.

LAU EMANALDI BERGARAN
Bergarara, San Pedro parroquia- ra, datorren zapatuan, urriaren

10ean, iritsiko da Orfeoiaren eta Rifen organo-jolearen emanal- dia. Aipatutako bi horiez gain, beste bi emanaldi gehiago egin- go dira Bergaran: hilaren 17rako Cyril Schmiedlin organo-jolearen kontzertua iragarrita dago eta urriaren 24rako egitarauko emanaldi bitxieta bat, Andoni Egaña bertsolariak, Jose Inazio Ansorena txistulariak eta Aitor Olea organo-joleak elkarrekin eman- go dutena.

HISTORIA LUZEKO ORGANOA
Bergarako San Pedrokoa 1889ko Stoltz Freres organoa da. Martina Maiz, De Blanc-en alargunaren dohaintza da. Bernardo de Gabiolak inauguratu zuen 1889ko martxoaren 18an. Egun hartako emanaldian Otaño Aitak parte hartu zuen, bere burua Madrilgo Kontserbatorioko irakasle iza- teko aurkeztuz. Eraiki zutenetik organoa diapasoiaik baino tonu erdi gutxiago dauka eta 56 nota- dun hiru teklatuez gain 30eko



Cyril Schmiedlin-ek Bergaran joko du urriaren 17an.

GOIENKARIA

pedala ere badauka. 1973an zahar- berri zuten Jose Mari Galdos eta Alejandro Usabiagak hernan- niarrek eta datorren urtean organoa zaharberritzeo asmoa dago. Gipuzkoak organo mailan duen ondare izugarria nabarmendu dute antolatzaleek.

ARETXABAleta ABESBATZA
Aretxabaleta abesbatzak amaie- ra emango dio organo erromantikoaren zikloari, urriaren 25ean. Mokoroa maisuaren *Misa In*

Honorem S. Joannis Baptisteae eskainiko dute egun horretan Loiolan, Jose Luis Frantzesena organo-jolearekin batera.

Beste bi abesbatzak hartuko dute parte aurtengo ekitaldian: Tolosako Santa Maria Kaperak ere Mokoroaren lanak eskainiko ditu hilaren 24an Azkoitien; eta Capella Joan Baptista Comes delakoak Lorenzo Perossiren *Missa de Réquiem La Creatività Inedita* interpretatuko du urria- ren 19an, Loiolan.

HEZKUNTZA

'Bularretik mintzora' kanpaina Aramaion

Haurrengan irakurketa bultzatzea da helburua

E.M. > BERGARA

Iaz Oñatin egin bezala, *Bularretik mintzora* kanpaina abian jarriko dute Aramaion urriaren 15ean. Galtzagorri elkartearren eskutik, 0-6 bitarteko haurrengan -gurasoen eta haurren heitzaleen laguntzarekin- irakurketa ohitura sustatzea da kan- painaren helburu nagusia. Azken finean, etxeen, eskolan eta liburutegian giro irakurlea sortzeko bideak jorratu eta modu naturalean irakurtze- ko, kontatzeko eta entzuteko ohitura sustatu. Egitasmoa iaz jarri zuten abian Euskal Herriko hainbat herritan, AEBetan, Britainia Handian, Italian, Suedian eta Katalu- nian egindako antzeko egitas- moen ildotik.

HAINBAT IKASTRO

Pello Añorga idazle eta ipuin kontalari ezagunak *Haur txiki- kiei nola kontatu, kantatu...* ikastaroa eskainiko du. Besteak beste, Juan Kruz Igera- bide idazleak, Juan Carlos Alonso psikologoak eta Itziar Zubizarreta narratzaileak ere hartuko dute parte.

'ASTELEHENeko GOIENKARIA' > UDAKO ARGAZKien V. LEHIAKETA

Lehiaketan 137 lehiakide izan dira eta, guztira, 416 argazki jaso ditugu; leku exotikoetan zein gertukoetan egindakoak dira

GOIENKARIA > BERGARA
Astelehenean, hilaren 5ean, adi- tzeria emango dugu zeintzuk diren Udal Argazkien Asteleheneko Goienkaria V. lehiaketa irabazi dutenak.

Honako sariak banatuko ditugu: lehiaketako argazki onenaren egileak Olympus E-420 reflex argazki kamera digitala eskuratu du Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik; bigarren argazki onena egin duenak Kantabriako Treceño herriko Hotel



Pontevedran ateratako argazkia, iazko edizioko argazki irabazleentako bat.

MIREIA LIZARRALDE

Palacio de Guevaran asteburu- bateko egonaldia irabaziko du bi lagunendako. Gosaria eta zapatu- tuko afari berezia ere barne izan-

go dituzte, Arrasate Bidaien esku- tik; eta, bukatzeko, hirugarren argazki onena egin duenak, berriz, bi pertsonarendako baz-

kari edo afari ederra izango du aukeran; hura Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxe ezagunean egingo dute.

Aurten 137 lagunek esku har- tu dute lehiaketan eta guztira 416 argazki jaso ditugu. Iaz bai- no bi lagunek gehiagok esku har- tu dute; baina iazko argazki kopu- rua handiagoa izan zen (447 argaz- ki). Kontuan hartu behar da parte-hartzaile bakoitzak auke- ra daukala gehienez bost argaz- ki bidatzeko, eta guztiak ez ditu- te horrenbeste lan aurkeztu.

ILUNABAR UGARI

Debagoiendarrek, ohiko duten moduan, mota eta leku oso des- berdinak argazkiak aurkeztu dituzte lehiaketara. Badira ibar- rean bertan egindakoak (Urku- lu, adibidez) eta baita leku urrun eta exotikoetakoak ere. Badira pertsonen lehenengo planoak, paisaia ikusgarriak, bitxikeriak eta bestelakoak.

Bestalde, bitxikerien artean aipatu beharra dago aurtengo edizioan ilunabarren argazki ugari jaso ditugula.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo alokagai. Sukaldea, hiru gela, egonela, bi bainugela, bi balkoi eta despentsa. Jantzia utziko genuke, garaje itxiarekin. 687 11 07 21.

Aramaio. Bi familiendako harriko etxeak, lorategiak, salgai. Paraje lasalain (Erratubarrin) eta herrigalde oso gerto. Prezio integrasgarria. 685 71 35 63.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera osoa. Prezio negoziarria. 659 64 67 38.

Aretxabaleta. Markole. 100 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi terraza (150 metro koadro), ganbara eta garajea. 650 34 89 85.

Eskoriatza. 80 metro koadroko etxebizitza saldu edo errentan ematen da Intxaertxuetan. 30 metro koadroko garajearekin. 686 92 55 71.

Oñati. Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egonela, bi bainugela, sukaldia eta ganbara. Garajea aukeran. 620 02 51 95

102. EROSI

Arrasate. Berriztatzeko basearra, etxea edo txalea erosiko nuke Arrasate-Garagarra edo Gesalibarren. Interesatuak; mesedez bidali e-posta mezu bat gurekontaktu@gmail.comhembidera edo deitu 689 54 32 85 telefono zenbakira.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Duplexa ematen da errentan erdiaildean. Jantzia, la berria. Bi aurorentzako garaje, itxiarekin. Raquel. Deitu 629 46 93 91 telefonora.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean. Unibertsitateko ondoan. Sukaldea, komuneta eta hiru dela. Guztik kanpora begira. 652 71 16 20 edo 943 79 81 63.

Arrasate. Hiru ikaslerentzako pisua. Unibertsitatetik 5 minutura oinez. Logela individualak 175 euro hileko. 628 22 45 09.



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berriuta.
- Aranerreka 85 m². Berriuta.
- Elusu baserria. Berriuta. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berriuta. Gazeintzat.
- Zubiaurre 67 m². Berriuta. Eguzkitsua. Wi-fi-rekin. Unibertsitatetik gerto.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berriuta.
- San Antonio, 46 m². Berriuta.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbarekin.
- Osintxu 64 m². Berriuta. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorenzo 68 m². Berriuta.
- Zubiaurre 52 m². Berriuta.
- Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- San Lorentzon etxe berriak.**

Antzuola:

- Buzinzu, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Behoko auzoa. Etxe onak.
- Errekale 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berriuta. 135. 000 €.

Elgeta:

- San Roke 72 m². Berriuta.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berriuta.

Soraluze:

- Atxuri 49 m². 117.618 €.

Arrasate. Lau logelako etxebizitza ematen da errentan. Bi komun, sukaldia eta egongela. Eguzkitsua. Deitu 669 05 80 33 telefono zenbakira.

Donostia. 2009-2010 ikasturteko etxebizitza ematen da errentan. Antiguak. Bi logela, sukaldia, egongela eta komuna. 618 01 51 44.

Oñati. Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Bikote batentzat aproposa. Deitu 20:00ak eta 22:30ak bitartean. 699 78 47 49.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza edo base-rra errentan harko nuke. Deitu 675 77 90 46 zenbakira.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 600 25 98 54 edo 687 61 63 00 telefono zenbakietara.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Partekatutako etxe batean bi gela daude alokagai. Etxeberria. 250 euro, gas-tu barne. Deitu 616 75 41 30 zenbakira.

Aretxabaleta. Partekatutako etxe batean bi gela ematen dira errentan. Internet erabiltszeko aukerarekin. Deitu 600 09 56 18 telefonora.

Arrasate. Bi pertsona behar dira etxea osatzeko erdiaildean. Egoera oso onean. Hiru logela, bainugela, egongela, sukaldia eta bakoia, 235 euro. Deitu 606 74 42 37 telefonora.

Arrasate. Ergun aldean pertso-na bat behar da etxebizitza osatzeko. 628 76 25 00.

Arrasate. Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egon-gela eta sukaldia handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fi-rekin. Unibertsitatetik gerto. 699 28 99 06.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. Deitu 686 02 56 56 telefono zenbakira.

IRAGARKI SAILKATUAK

943 25 05 05

sailkuak@goiena.com

<http://www.goiena.net/sailkuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Irakari partikularretan astebete baino gehiago argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garajea hartuko nuke errentan Bolu inguruan. Deitu 675 70 50 43 telefonora.

304. ERRENTAN HARTU

Debagoina. Taberna hartuko nuke errentan. 638 10 29 63.

4/ LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Alfonbra eta moketak garbitzen ditut, leho-rrrean, etxez etxe. Deitu 659 62 02 49 telefonora.

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Mutila gertu edozein pertsona bat behar da. Egon-gela eta sukaldia handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fi-rekin. Unibertsitatetik gerto.

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbi-keta lanak gertu edo pertsona nagusiak zaintzeo. Deitu 650 17 46 10 telefonora.

Debagoina. Emakumea garbi-keta lanak gertu edo pertsona nagusiak zaintzeo. Deitu 638 18 07 23.

Debagoina. Asteburuetan edo zein brikolaje edo etxeko konponketa egiten dut. Merke. Deitu 686 99 23 94 telefonora.

Debagoina. Emakumea garbi-keta lanak gertu edo pertsona nagusiak zaintzeo. Deitu 605 76 05 59 telefonora.

Debagoina. Emakumea garbi-keta lanak gertu edo pertsona nagusiak zaintzeo. Deitu 638 10 29 63 telefonora.

Debagoina. Emakumea gertu edo pertsona nagusiak zaintzeo. Deitu 679 04 42 68.

Debagoina. Neska gertu edo pertsona nagusiak zaindu edo garbi-keta lanetarako. 660 56 65 58.

Debagoina. Neska gertu edo pertsona nagusiak zaintzeo. Deitu 635 25 54 44 zenbakira.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Pertsona bat behar da bi mutikori eskola partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako 2 eta 3 mailan daude. Deitu 639 03 43 58 telefonora.

Leintz Gatzaga. Ingelosko esko-lak emateko irakaslea behar da Leintz Gatzagan. Eskolak bi arratsaldetan izango lirateke eta urtarrilaren hasiera baten. Autoa derrigorrezko. Deitu 678 22 27 zenbakira.

502. EMAN

Arrasate. Ingeniaritzak duen mutil batek Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko eskola partikularrak emango lituzke. 664 66 73 09.

Bergara edo Arrasate. Eskola partikularrak ematen ditut. Deitu 699 39 20 29 zenbakira.

Bergara. Ingelosko esko-lak emateko irakaslea behar da Leintz Gatzagan. Eskolak bi arratsaldetan izango lirateke eta urtarrilaren hasiera baten. Autoa derrigorrezko. Deitu 678 22 27 zenbakira.

Debagoina. Arkiteturak lizen-tziadun batek matematika, fisika, kimika, natur-zientziak, marrazketa... eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. 639 46 07 26.

Kataku meak opari egiten dira. Baserriko 10 bat kataku. Abuztu bukaeran jaiotakoak. 943 79 10 95.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Aluminiozko ahunak (llantak) kubiertekin saltzen ditut. Neurriak: 185/60 R14. 638 10 29 63.

BH bizikleta salgai. 2009ko eta errepideko. Campagnolo freno eta osagaiak. Egoera oso onean. 617 89 34 15.

802. EROSI

Oñati. Iur saila erozi edo alokatuko nuke. Deitu 609 11 72 96 telefono zenbakira.

804. HARTU

Bizikletarako umeen jarleku behar dut. Eskarne. Deitu 608 49 94 15 telefonora.

806. GALDU

Belarritako. Arrasateko tan-toorio inguruan edo Bedoñako eliza inguruan perla, ilundun belarritako galdu dut. Balio sentimentaldu. Aldez aurre-tik, mila esker. 626 32 04 72 edo 943 76 47 56

Eguzkitako betarrekoak galdu nituen irailaren 20an, igande-an, Urbatik jeisten. Mesedez, norbaitek aurkitu baditu deitu zenbakihonetara. 615 79 27 44.

Sakelako telefonoa galdu dut Labegarajeta inguruan, irailaren 19an. Udaltzangorun utzi edo deitu, mesedez. 943 76 29 09.

Urbiako bidean eguzkitako antijo pare bat galdu giuan joan zan domekan, Iralak 27. 615 79 27 44.

807. AURKITU

Jertse grisá aurkitu nuen irai-laren 28an Bergarako Ibargarai kalean, ziburuen parean. Emakumeen da, izuzketa eta aurreko alditek zabalik. Deitu 943 76 26 82 telefonora.

BERGARA

BERGARAKO industrialdean PABILIOIA ERRENTAN. 1.000 m².
Tarteko solairuan 120 metro koadro bulego eta zerbitzuetarako.
Instalazioa eginda dago.
630 96 71 00

EUSKALTEGIKO IRAKASLEEN LAN POLTSIA

Izangaiak Kulturaten (Otalora kalea 7) aurkeztu behar dira urriaren 13an, 10:00etan, proba praktikoa egiteko.

Oinarri-arauak: BAZen (goiz eta arratsalde) edo <http://www.arrasate-mondragon.org> webgunean.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Kataku meak Hiru aste duten lau kataku oparitzen ditut, bi eme eta bi ar. 685 79 07 61.

INGELESEKO IRAKASLEAK

Debagoienean ingeleseko eskolak emateko irakaslekak behar

KIBUC GURE AMETSA ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK WWW.KIBUC.COM NIRE ETXEA DUT



AZPEITIAN GAUDE, ALTZARIAREN SORLEKUAN, ETA ARLO HONETAN 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU.

4.000 METRO KOADROTIK GORAKO GUZTIZ ERABERRITUTAKO ERAKUSKETA DUGU.
ESKATU ORDUA ETA GURE DEKORATZAILE PROFESIONALEN AHOLKULARITZA.
ESKATU PARKING ZERBITZU PRIBATUA.



KIBUC
altzari eta osagariak

Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC Gure Ametsa
altzari eta osagariak

www.kibuc.com

Miren Zubeldia > Matematikaria eta kirolaria

"Zientzia guztieta aurreratzeko matematikan aurreratu behar da"

Oñatiarrek eskubaloiko kan-
txan, zapatilak jantzi eta korri-
ka, azken batean kirola egiten

ezagutuko dute neska gazte
hori. Baino, beharbada, gutxik
jakingo dute zein den haren

eguneroko lana. Matematika
Leioan ikasi eta hainbat hiritan
master bat egin ostean, mate-

matika arloko ikerketan dihar-
du. Miren Zubeldia da hura;
matematikaria eta kirolaria.

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Kirola eta matematika asko gusta-
tzen zaizkio gazte oñatiarrari. Esku-
baloi jokatzen du eta orain mate-
matikai ikerkuntzan ere badihardu.
Bilbotik bueltan tarte bat hartu du
gurekin matematikaz eta kirolaz
berba egiteko.

**Matematika gustuko duzu. Ona
zinen eskolan matematikan?**

Beti moldatu izan naiz ondo
matematikan. Aukeratzeko
ordua iritsi zenean ez neukan gar-
bi zer ikasi nahi nuen unibertsitatean.
Pentsatu nuen Soin Hezkun-
tza ikastea, baina inguruko
esaten zidaten matematikan
hain ondo moldatuta zergatik ez
nuen matematika ikasten. Irakas-
leek ere animatu ninduten.


Gainera, eskolan, matemati-
kan, ez nuen gustuko esaten zigun-
tenean "hau horrela da eta horre-
la egin behar duzue". Jakin nahi
nuen zergatik egin behar zen
modu horretan eta ez beste batean.
Bultzatu ninduen pentsatze-
ak karreran ikasiko nuela zerga-
tik ziren gauzak eskolan esaten
ziguten moduan. Ikusi dut mate-
matikan dena dagoela frogatuta,
denak duela arrazoien bat.

**Orain ikerketan diharduzu.
Zer ari zara ikertzen?**

Tesia egiten ari naiz Hezkun-
tza Ministerioko beka batekin
eta ekuazio baten gaineko iker-
keta batekin dihardut. Matema-
tikan atal asko daude eta nirea
analisia da. Nabil fisikako eku-
azioak eta problemak era matema-
tikoan askatzen. Ikerkuntzaren
bitartez ikasten ari naiz: teknika
berriak, beste jendeak egiten
duena nire problemetara nola
molda daitekeen... Nire lana da
ikastea eta pentsatzea. Irakurri
behar izaten ditugu artikulu eta
lan asko eguneratzeko. Kontuan
hartu behar da esku artean ditu-
gun problemak berriak direla
eta ez daudela askatuta. Esatera-
ko, ekuazio bat izan eta nahi
dugu horren soluzioa aurkitu.

**Matematikan dena asmatuta
dagoela uste duzu?**

Ezta gutxiago ere. Gainera,
zuzenean ez izan arren gero eta
gehiago aplikatzen da matema-
tika beste esparru batuetan: fisi-
kan, biologian, medikuntzan...
Beharbada asko esatea da, baina
zientzia guztieta aurreratzeko,
matematikan aurreratu egin
behar da. Zenbat eta gehiago ika-
si, konturatzentz naiz ez dakidala
ezer ere. Ez nuen uste horrelako
mundua izango zenik.



IRATI AGIRREAZALDEGI

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 24 urte, laster 25 beteko ditut.
Ikasketak: Matematika. **Gaur egungo gizartetik zer
kenduko zenuke?** Hipokrisia. **Eta gehitu?** Elkar uler-
teza falta zaigu. **Zein da mila aldiz bisitatuko zenu-
keen tokia?** Berlin, oso gustuko dudan hiria da.

Zein jatekoren zatitxo bat hartzen duzu gustura?
Txorizoarena. **Gomendatzeko moduko liburu bat?**
Un burka por amor. **Kirol bat?** Eskubaloia. **Zure
bitzzarako leloa?** Denbora aprobetxatzea ahal
dudan guztia egiteko.

**Daukagun matematikarien
irudia da gela itxi batean sar-
tutako pertsonarena. Hala da?**

Badira horrelako matemati-
kariak, baina orokorrean ez gara
halakoak. Gure lanean kontzen-
tratuta egoten gara, baina beste
edozein lanbidetan bezala. Lan-
tokian elkarren artean oso ezber-
dinak diren problemak ditugu
esku artean, baina teknikez edo
erremintez egiten dugu berba.

**Ekuazio, zenbaki... artetik ate-
ratzeko zer egiten duzu?**

Kirola. Deskonektatzeko era-
rik onena da. Korrika egiten dut.
Orain, Behobia-Donostia laster-
ketarako gertatzen ari naiz. Bes-
te karrera batuetan ere hartu
izan dut parte, baina gehienak
motzagoak: Soraluze-Bergara,
Oñatioko San Silbestrea, Donos-
tian hiru hondartzetako... herri
lasterketak. Igeri ere egiten dut
eta Getaria eta Zarautz arteko
zeharkaldia egina dut. Bizikletan
iaz Santagoko bidea egin nuen
eta eskubaloian, Aloña Menden
txikitatik jokatzen dut.

**Kirolaz gain, zein dira zure
beste zaletasunak?**

Irakurtzea eta bidaiatzea.
Udan Finlandian izan naiz eta
herrialde guztia zeharkatu dugu,
abentura bila. Tesiaren aitzak-
tian ere, kongresuetara eta ikas-
tarotetara joateko asko bidaia-
tzen dut. Iaz Parisen, Madrilen,
Sevillan... izan nintzen, eta, eguna
hitzaldietan eman arren, izaten
da tarteren bat bisitetarako.

**Ateratzen duzu nahiko den-
bora zaletasunetarako?**

Nire egun arrunt batean Bil-
bora joaten naiz lanera, bueltatu
eta kirola egin eta berriz etxera.
Baina eskertzen dut kirola egite-
ko tartea izatea. Askotan buru-
kominarekin bueltatzen bainaiz.
Askok uste duena baino nekag-
rriagoa da gure lana; oso kontzen-
tratuta egotea eskatzen du.

**Etorkizunean zertan jarduteko
aukera izango duzu?**

Medikuntzan, ospitaletako
ikerketa unitateetan eskatzen dira
matematikariak. Nik Galdakaoko
ospitalean egin dut lan eta mate-
matika modu estatistikoan erabili-
z aurreikuspenak egiten dira.
Logistikan, supermarketu han-
dieta, edo enpresetan, program-
atzalee moduan, informatikare-
kin lotuta egonik ere badira mate-
matikariak. Nik gurako nuke
unibertsitateko irakasle izan eta
ikerkuntzan jardun.



Amaia Txintxurreta gida tuko du lehiaketa.

GOIENKARIA

100 euro arteko dirusariak emango dituzte egunero

'Magazinea' programaren barruan lehiaketa egingo dute astelehenetik aurrera

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

100 euro arteko dirusariak emango dituzte egunero *Goiena magazinea* programan. Izen ere, lehiaketa bat egongo da saio horren barruan datorren astelehenetik aurrera. Amaia Txintxurreta oñatiarrak aurkeztuko du lehiaketa hori eta hark egindako gal-

derari zuzen erantzuten dion ikus-entzuleak dirusaria eskuratu ahal izango du. Lehiaketa-ko panelak zortzi laukitxo izango ditu goitik behera, eta hiru ezkerretik eskuinera. Deitzen duenak laukitxo bat aukeratu beharko du, eta horren atzean dagoen galderari zuzen erantzun behar dio dirusaria eskuratzeko. Galderak birziklaketaren inguruoa izango dia; edukiontzi horien gainekoak, zehazki.

GOITB, 'Magazinea'

> Aste barruan, 19:45


Osasunaren tarte irratian

O.E. > ARRASATE

Neguko programazioarekin hasiko da Arrasate Irratia datorren astean. *Igo autobusa* saioak, gainera, geltoki berriak izango ditu aurren- go neguan. *Ahotsak.com* proiektuan oinarritutako saioa, tarotaren inguruko kontuak eta osasunari eskainitako tarte izango ditu, besteak beste. Azken tarte horretako lehen gonbida- tuak, esaterako, dentistak izango dira eta ahoaren osa- sunaz jardungo dute.

Arrasate Irratia,
'Igo autobusa'

> Egunero, 10:00



GOIENKARIA

Onatiko Herri Eguna 'Magazinea' programan

Onatiko San Migel eta Errosario jaien berri emango dute asteleheneko *Goiena magazinea* programan. Adibidez, zapatuan egingo duten urteroko Herri Egunaren berri emango dute: plazako sagardo dastatzea, talogile- ak, gazta eta beste lehiaketetako irabazoleak, kaleko giroa...

GOITB, 'Goiena magazinea' > Astelehena, 19:45

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda Giroan

> Albistegia
> Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
> Astelehenetan Kirolak
> Ilunpean (elkarriketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
> Soziokonomia, gaiak, iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
> Udal Gazte Bulegoa
> Sexologia Zerbitzu
> Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneuko oharrak...
> Astearen errepasoan (Goienkariarekin)
> Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarriketak
> Zozketak (egubakoitzean)
> Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com))

12:05 Euskadi Irratiko albistegia

12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Uda Giroan

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegilaburra.

astea GOITBn

Egubakoitzza, 2	Zapatua, 3	Domeka, 4	Astelehena, 5	Martitzena, 6	Eguaztena, 7	Eguena, 8
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.	09:00 Marrazki bizidunak.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.	10:30 Trikitraka trikiton.	11:30 Kantari.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	14:00 Elkartsun bideak.	11:30 28 klip.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Elkartsunaren bidean..	14:30 Ikusmira.	12:00 Erloklip	15:15 Mugaz kanpo.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	15:15 Gipuzkua kultura.
15:45 Ur eta lur.	15:00 Gipuzkoa Kultura.	12:30 Ikusmira.	15:45 Elkartsunaren bidean.	15:50 Solaskide.	15:50 Golb tb.	15:45 Ur eta Lur.
16:15 Ikusten.	15:30 Trikitraka trikiton.	13:00 Erreportajea.	16:15 28 klip.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 28 Klip.	16:15 28 Klip.
16:45 Berriak.	16:30 Marrazki bizidunak.	13:45 Solaskide.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.	18:00 Wazemak.	14:15 Eltze beroa.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.	18:30 Solaskide.	15:45 Kantari.	17:45 Wazemank	17:35 Erreportajea.	17:45 Solaskide.	18:00 Elkartasun bideak.
18:45 Berriak.	19:00 Ikusmira.	18:15 Trikitraka trikiton.	18:15 Musikantoi	18:05 Solaskide.	18:15 Ur eta lur.	18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:30 Ur eta lur.	19:15 Erreportajea.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.	20:00 Erreportajea.	19:45 Solaskide.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.	20:30 Golb tb.	20:15 wazemank.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.	21:00 Ikusten.	21:15 Ur eta lur.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Gipuzkoa Kultura..	21:30 Ilunpean.	21:45 Musikantoi.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Gipuzkoa Kultura.
22:45 Musikantoi.	22:45 Musikantoi	22:45 Wazemank.	22:45 Elkartsun bideak.	22:45 Goiena Magazinea.	22:45 Goiena Magazinea.	23:15 Musikantoi.
23:45 Goiena Magazinea.	23:30 Wazemank.	23:15 Ilunpean.	23:00 Erreportajea.	23:00 Goiena Magazinea.	23:15 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.
14:00 Uda Giroan	00:30 28 klip.	00:00 Itsasora begira.	23:30 Goiena Magazinea.	22:15 Ilunpean.	23:00 Lamien artean.	00:45 Emisio amaiera.
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegilaburra.	01:00 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:15 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.

telebegi

Gorka Etxabe

> getxabe@arteman.org

Telebisten iraultza

urreko Telebista Digitalaren Euskalteko deskodegailua erosu dugu. Telebista kateen eskaintzak, beraz, gora egin du nabarmen gure etxeen, eta horien artean asko hazi da tokiko telebisten eskaintza. GOITB ikusteko aukera izateaz gainera, orain Hamaika telebista Bilbo, 28 kanala, Goierri Telebista, Txingudi Telebista, Gipuzkoa Telebista eta Teledonostik ikusteko aukera dugu. Azken hiru hauen eremua Gipuzkoa den arren, azken biak Donostiatik ez dira sarritan irteten. Era berean, Lurreko Telebista Digitalak mundura gerituratu gaitu, Portugal, Alemania, Errumania, Frantzia, eta beste zenbait herrialdetako telebistak eskainiz. Tartean, Al Jazerra telebista ikusteko aukera ere badugu. Horren eskaintza zabalaren aurrean, ordea, telebista ikusteko nire aukerak murritz tu egindira. Telebisten iraultzari bizkarra eman diot, eta zorio- nez, ez dut faltan botatzen.

herritarrak galdezka

UDALTZAINIK EZ KRUZ
GALLASTEGI KALEAN

Bergarar batek deitu digu esanez herriko beste kale batuetan, Matxiategin edo Ibargarain, esaterako, udaltzainak egoten direla, baina Kruz Gallastegia ez, eta jendeak ohiko bihurtu duela bigarren ilaran autoa aparkatzea eta kaltetuak ibili behar direla bozina jo eta jo, jabea tabernaren batetik irteten den arte... Hortaz, haren galdera da: "Zergatik udaltzainak ez dira egoten Kruz Gallastegi kalean, bigarren ilaran aparkatzea galarazteko?".

Bergarako udaltzainei egin diegu herritar horrek helarazitako galdera eta esan digute ez dela horrela, hori kexa ipini duenaren edo galdera egin duenaren irudipena dela. Izan ere, eurek berdin-berdin jokatzen dute la herriko gune edo kale guztietan. "Gertatzen dena da bakoitzak arazoa ikusten duela berak aparkatzen duen tokian edo bizi den gunean. Hortaz, Matxiategikoek diote han ez garela ibiltzen isunak ipintzen edo zaintza egiten eta Kruz Gallastegikoek, berriz, han ez dugula galarazten bigarren ilaran aparkatzea", esan digute udaltzainek.

Bigarren ilaran autoa edo kamioia aparkatuz gero, jabeari 100 euroko isuna ipintzen diotela ere jakinarazi digute udaltzainek. Hori izaten da jendeak autoa aparkatuta izan eta horren erruz beste autoa atera ezinda zain eduki duelako, nahiz eta bozina jotakoan bigarren ilaran dagoen ibilgailua jabea azaldu.

Bestalde, inor autoa edo kamioia kentzera azaldu ezean eta gidariren bat horren erruz bere autoa atera ezinik badago, garabiari deitzen diote bigarren ilaran traban dagoen autoa kentzeko eta besteak berea atera ahal izateko.



Bisitariak Seminarioko elizan indusketa lanei begira.

GOIENKARIA

ZER EGIN BEHAR DA BERGARAKO SEMINARIOKO INDUSKETA LANAK IKUSTEKO?

Arrasateko bizilagun batekidatzidiguz esanez interesgarria iruditu zaio eta gustatuko litzaiokeela Bergarako Seminarioko elizako indusketa lanak ikustea, eta honako galdera egin digu: "Zer egin behar dut lanok ikusteko?".

Galdera egiteko:

Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin.

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goienna.com

Bergarako Turismo Bulegoan esan digute bi aukera daudela Seminarioko indusketa lanak bisitatzeko.

Lehenengo aukera bisita librea litzateke. Seminarioa zabalik egoten da goizez 08:30etik 13:00etara bitartean eta arratsaldez 14:30etik 17:30era arte. Ordutegi horren barruan edonor sar daiteke lanak ikustera eta arkeologoak elizan lanean ikusteko aukera ere izango da.

Beste aukera bisita gidatua egitea da. Astegunetan bi bisita izaten dira eguneko (11:30ean eta 16:30ean); zapatuetau aukera bakarra dago, 11:00etan, eta domeketan, berriz, ez da bisitarik egoten. Bisitatan arkeologoek ematen dituzte azalpenak.

Bisita gidatuak egiteko aurrez eskarria egin beharra dago Bergarako Turismo Bulegoan. Hortaz, interesatuek eskarria egiteko hiru aukera dauzkate: udaletxeen dagoen Turismo Bulegora joatea; telefonoz deitzea (943 77 91 28); edo e-posta bidaltzea honako helbide honetara: turismoa@bergara.net.

bono fotoa



Gure bailarako zein herritan dago baserri hau eta nola du izena?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Bergarako Julia Flores.
Zorionak!
Erantzun zuzena:
Errekalde jauregia.



Garmendia Ardoek emandako
Ardo botila packa*
zozketatuko du GOIENKARIK asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltza berezia botila bat. Larchago kriantza botila bat.

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
HERRIA TELEFONO
Ekarri txartela MARTITZEN EGUERRIRAKO Goienako edozein egoitzara

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 10

Zapatua eguzkitsu esnatuko den arren, arratsalde partean hodeiak sartuko dira. Temperatura epel mantenduko da, hala ere.



Domeka, 11

Egun lainotsua iragarri dute domekarako. Temperaturek apur bat gora egin arren, baliteke iluntzean euri pixka bat egitea ere.

EUSKAL HERRIAN

Eguraldiak egonkortzera egingo du. Toki gehienetan zapatuau zerua nahiko garbi agertuko da eta giro atsegina izango da. Domekan ere eguzkiak eutsiko dio, nahiz eta laino batzuk agertu.



TENPERATURAK

MINIMOA	12ºC	Max. °C	Min. °C	Euria l/m³
Eguena, 25		28	15	-
MAXIMOA	28ºC	24	12	-
Eguaztena, 23		23	12	-
Astelehenak, 27		24	13	-
Zapatua, 26		24	14	-
Domeka, 27		24	14	-
Astelehena, 28		25	13	-
Martitzena, 29		27	13	-

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 3	Azkoaga	Ferreras, 1	943 79 18 65
Domeka, 4	Azkaga	Iturriotz, 17	943 79 19 99
Astelehena, 5	Fernandez	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Martitzena, 6	Irizar	Erguina, 11	943 79 12 39
Eguaztena, 7	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 18 65
Eguena, 8	Espaniol	Araba Etorbidea, 14	943 79 18 65
Egubakoitza, 9	Ruiz	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09

BERGARA

Zapatua, 3	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Domeka, 4	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 5	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 6	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguaztena, 7	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguena, 8	Camacho	Oixondo 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 9	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87

ONATI

Zapatua, 3	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 4	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 5	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 6	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 7	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 8	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 9	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16

ARETXABAleta

Zapatua, 3	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Domeka, 4	Anitua	Fraile	943 08 11 43
Astelehena, 5	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 6	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 7	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 8	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 9	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.



Bergarako **Lidia Diez** eta Santurtziko **Igor Guirles** joanden zapatuan, irailaren 26an, ezkondu ziren Santurtziko udaltxean. Berangon baziak zuten eta bidaian New Yorkera joan dira. Bergarako lagunek primeran pasatu zuten, eta, zorionak, euren partetik.



Eskoriatzako **Egoitz Beamurgia** eta **Juli Herruzo** urriaren 3an ezkondu dira Ibarraundi museoan. Eztei-bidaian Thailandia-jaongo dira. Zorionak, bikote, etxekoien, lagunen, Patxi eta Olga osaba-izeben eta Asier eta Mikel lehengusuen partetik.



Juan Mari Azpiazu Txistu eta **Esperanza Altube** orain dela 50 urte ezkondu ziren, urriaren 3an, Osintxun. Etxeko-ekin ospakizuna egingo dute Kirurin eta ondoren, balneario batera joango dira "eztei-bidaian" lasai-lasai egotera. Zorionak, etxekoien partetik.



Bergarako **Imanol Alberdi** eta **Mertxe Baltzategi** ezkondu zirela 50 urte beteko dira urriaren 8an. Urrezko ezteiak ospatzeko urriaren 18an meza egingo dute Santa Marinan eta baziaria Lasa jatetxeen familiakoekin. Zorionak, familiakoien partetik.



Bergarako **Bittor Irazola** eta **Jesusa Agirrezabalek** urriaren 8an beteko dituzte 60 urte ezkonduta. Diamantezko eztei ospakizuna etxekoekin egingo dute. Egun berezi horretan, gure etxeko bi diamanteendako, patxo bana familiakoien partetik.

hildakoak

- **Angel Gago Raposo.** Aretxabaletan, irailaren 23an, 100 urte.
- **Natividad Carmona Alonso.** Arrasaten, irailaren 25ean, 78 urte.
- **Pedro Arietaleanizbeaskoa Larrañaga.** Bergaran, irailaren 25ean, 76 urte.
- **Jose Miguel Irizar Laskurain.** Bergaran, irailaren 25ean, 82 urte.
- **Martina Larrañaga Enekotegi.** Antzuolan, irailaren 25ean, 87 urte.
- **Ana Isabel Gonzalez de la Rota.** Aretxabaletan, irailaren 25ean, 62 urte.
- **Jose Maria Jauregi Mardaras.** Osintxun, irailaren 26an, 74 urte.
- **Jose Ramon Ugarte Irazabal.** Bergaran, irailaren 27an, 65 urte.
- **Felix Bengoa Iturbe.** Aretxabaletan, irailaren 28an, 85 urte.
- **Maxima Arantzeta Zubala.** Elgetan, irailaren 28an, 79 urte.
- **Martina Sagasta Agirre.** Arrasaten, irailaren 28an, 84 urte.
- **Remigio Agirrezabalaga Pradera.** Bergaran, irailaren 30ean, 74 urte.
- **Mariluz Bengoa Bedia.** Arrasaten, irailaren 30ean, 77 urte.

ESKER ONA

Natividad Carmona Alonso

Miguel Casadoren alarguna

Arrasaten hil zen 2009ko irailaren 25ean, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko urriaren 2an.

URTEURRENA

Pilar Olabarria Larrañaga

Alberto Egidazu Mansoren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 4an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokiaren ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Martina Sagasta Agirre

Lankide Beatrizen ama

Arrasaten hil zen 2009ko irailaren 28an, 84 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.

A
Arizmendi
ikastola



Leintz bailaran, 2009ko urriaren 2an.

ESKER ONA

Jose Mari Igartua Larrañaga

Bergaran hil zen 2009ko abuztuaren 6an, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko urriaren 2an.

ESKER ONA

Rosario Zubizarreta Barrena

2009ko irailaren 20an hil zen, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko urriaren 2an.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. / Zerbitzu orokorrak: Basabe poligonoa EO5. 943 25 05 05.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 110 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

ASTELEHENeko GOIENKARIko harpidedunak: 100 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **140** euro.

Goienkaria: astero, 36.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.



Urriak 2-9

Zuon ekitaldien berri iragarteko, bidali informazioa
eguzteneko eguedia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



BERGARA

> Capsula argentinarrak eta El Desvan del Macho arrasatearrak gaztetxean bihar

Txapa Irratiaren 25. urteurreneko ospakizunen barruan, Capsula eta El Desvan Del Macho taldeek kontzertua emango dute bihar gaztetxean, 23:00etan. Capsula argentinarrek rock alternatiboa eta musika elektronikoa batzen dituzte.

Musika



ARETXABAleta

> Belceblues taldearen kontzertua zapatu gaeane Arkupen

Belceblues taldeak kontzertua emango du bihar Aretxabaletan. Asier Elortza, Ibon Larrañaga eta Oihan Vega hirukotearen azken diskoa *Infer* izenburuko da. Bihar, zapatua, Arkupen, 22:00etan. Sarrerak, 8 eurotan.

Erakusketa



ARRASATE

> Reuters agentziako argazkilarien irudiak Kulturateko erakustokian

Reuters, munduari begira izenburuko erakusketa ikusgai dago Kulturaten, urriaren 18ra arte. Mundu zablean ateratako argazkiak dira, hainbat gatz-karen berri ematen dutenak. Goiko argazkia Damir Sagolj-ena da.

Diaporamak

ARETXABAleta

> 'Ethiopia: un pais, multiples miradas'

Iñaki Kaperotxipirekin. Eguenean, urriaren 1ean, 19:30ean. Sarrera doan.

Antzerkia

ARETXABAleta

> 'Nora zoaz Txanogorritxu?' haurrendako ikuskizuna

Deabru Beltzak taldearen esku. Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.

ARETXABAleta

> 'Ni Hektor naiz' helduendako antzerkia hurrengo zapatuan

Txalo taldearekin. Urriaren 10ean, Arkupen, 22:00etan. Sarrerak, 8 eurotan.

Erakusketak

BERGARA

> Simon Arrietaren gaineko erakusketak Aroztegin

Simon Arrieta margolarri berargarriaren (1915-1969) lanari gainbegiratua.

Gaur, egubakoitza, zabalduko dute erakusketa, 19:00etan. Urriaren 18ra arte izango da zabalik. Martzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

ARETXABAleta

> 'Pertsonaien erakusketak: madariatuak eta apartekoak'

Urriaren 31ra arte. Aste barruan 11:00etik 13:00etara eta 18:00etik 20:00etara. Zapatuetan 11:00etik 13:00etara.

BERGARA

> Argazki erakusketa Gure Ametsa elkartean

Benito Cantero eta Agustin Gurrutxagaren argazkiak.

San Antonioko Gure Ametsa elkartean, urriaren 2tik 18ra.

Ikastaroak

ARRASATE

> Dantza garaikidea Arrasate Musikalen esku

Jana Fuente ballet irakasleak emango du ikastaroa. Arrasate Musikalen, Monterronen, urriaren 5ean hasita. Eguaztenetan 20:00etik 21:00etara.

Interesatuek Monterreron jo dezakete, aste barruan 16:00etik 20:00etara. 14 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroa da. Urriaren 5ean hasita.

BERGARA

> Film laburrak, barreterapia eta jostundegia

Film laburren tailerra urriaren 15etik azaroaren 15era, eguznetan, 19:00etik 21:00etara; barreterapia, urriaren 21etik abenduaren 16ra, eguznetan 19:00etik 21:00etara; jostundegia hastapena urriaren 13tik abenduaren 29ra, martzenetan

18:30etik 20:30era.

Izenematea eta argibideak kultura etxearen, 943 77 91 60 zenbakian.

ARRASATE

> Eskulan ikastaroa eta orratz lanena irailaren erdialdetik

Eskulan ikastaroa Bea Arregik emango du, abenduaren 23ra bitartean, martzenetan, 15:30etik 17:30era edo 18:00etik 20:00etara; orratz lanen ikastaroa Asun Mendizábalen, abenduaren 17ra arte, eguznero, 15:00etik 17:30era.

Argibideak Ekin Emakume Elkartean, 943 79 83 70 telefono zenbakian.

PROPOSAMENA



ARRASATE

> Dayna Kurtz domekan Amaia antzokian

Zenbait musika adituk kultuzko artistatzat daukate Dayna Kurtz iparamerikarra. Kurtzek kritika ezin hobea jaso zituen laugarren diskoarekin, *Another Black Feather* izenburuko lanarekin. Jazzaren eta emanaldi intimoen zalea da Kurtz. Etzi, domeka, Arrasatera ekarriko du *American standard* bira. Blue Mountain izango da talde *teloneroa* domekako emanaldian.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 20:00etan. Sarrerak salgai daude www.kutxa.net webgunean, 10 eurotan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, experimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiek-tatuta.

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa.

- Urriak 3: 18:00tan gaztelaniaz. Urriak 4: 12:00tan euskaraz

Itsua izar begiekin: Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

- Urriak 3: 15:30etan frantsesez. Urriak 4: 13:00etan gaztelaniaz

Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sisteman jatorria erakusten digun saioa.

- Urriak 3: 13:00etan gaztelaniaz. Urriak 4: 17:00etan euskaraz

Infinity Express: Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia

- Urriak 4: 15:30etan frantsesez

Kartoizko suziriaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa

- Urriak 3: 17:00etan euskaraz. Urriak 4: 18:00etan gaztelaniaz

Eboluzioa: Izakion historiako gertaera eta umerik garrantzisuenek azaltzen dizkigu

- Urriak 3: 12:00tan euskaraz.

ETA GAINERA...

Elektrizitate ikuskizuna: Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia Urriak 3: 13:45ean eta Urriak 4: 13:00tan eta 16:00etan

Planetarium Txikia: 4-8 urte bitartekoek ere

izarrak ikus ditzaten.

Urriak 3: 16:15ean eta 17:45ean. Urriak 4: 12:00etan eta 16:45ean

Esperimentuak zuzenean: Urriak 3an eta 4ean, 18:15ean.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78

www.miramon.org

BERGARA

> Pintura eta marrazketa ikastaroa haurrendako

Bearten lokalean 5-16 urte bitartekoendako pintura eta marrazketa ikastaroak. Astelehenetan 17:00etatik 19:30era edo zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.

Izenematea zabalik dago. Argibideak 653 71 53 82 (Mayra) eta 635 71 32 69 (Maite) telefono zenbakietan.

ARETXABAleta-ANTZUOLA

> Trantze sakratuaren erritmoak, Jaiki elkarrearekin

Urriaren 10ean eta 11n Antzuolan; urriaren 13an, 14an eta 15ean Aretxabaletan.

Izenematea eta argibideak: 618 04 67 43 (Paco, Aretxabaleta) eta 660 79 85 15 (Arantz, Antzuola). Plaza mugatuak.

Hitzaldiak

OÑATI

> 'Nola lagundu seme-alabeikasketetan?' hitzaldia

Juan Carlos Alonso psiko- logoaren eskuistik. 6-14 urte bitarteko ikasleen gurasoei zuzenduta.

Egunean, urriaren 8an, 18:30ean, Elkar Hezi Ikastetxeo Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikineko liburutegian.

Lehiaketak

ARRASATE

> Santamas irudi lehiaketa

Santamas Komisiñuek Santamas irudi lehiaketarako dei egin du. Kartel lehiaketa ez ezik, diseinu orokor baterako deialdia ere bada: egileek kartelaz gain eskuorrik zein kartel bateraturako (Santama-setako ekintzak garrantzi- tsuenak agertuko diren kartela) proposamena egin ahal izango dute. Lehiaketa edozein arrastearri zuzenduta dago eta urriaren 16a baino lehen aurkezta beharko dira lanak BAZen.

<http://santamasirudilehiaketa.blogspot.com>.

DEBAGOIENA

> Zugaz Bideo eta Argazki**Lehiaketa**

Zugaz.com-ek martxan jarri du Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa eta jasotako argazki zein bideo guztien arteko onenarentzat Eroski hipermerkatuak emandako Wii bat oparituko dute.

Argibideak ondoko webgunean: <http://goiena.net/blogak/kantari/>

ANTZUOLA

> XV. Argazki lehiaketa

Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake. Lanak jasotzeko epea urriaren 30era arte dago zabalik.

Argibideak Antzuolako udaltxean.

DEBA

> Tene Mujika beka, historia hurbilaz idazteko

Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka.

Proiektuak abenduaren 1era arte jasoko dituzte. Argibideak: 943 19 28 40.

**Malditos bastardos *****

Zuzendaria: : Quentin Tarantino.

Aktoreak: Brad Pitt, Christoph Waltz, Mélanie Laurent. AEB, 2009. 160 min.

Tarantinoren filmak ikus-teko aukera izan duenak badaki, gutxi gorabehera, zein osagai eta teknika era-biltzen dituen hark: zinema klasikoa eta kalitate gutxiko filmen eragina ikus daiteke haren lanetan, omenaldia eta parodia nahasturik joaten dira, era askotako musikak erabiltzen ditu, eta osotasunean baino gehiago filmek zatika funtzionatzen dute, eta horietan eszena zoragarriekin batera badira momentu batzuk nahiko zakarrak eta zalantzagarriak.

Malditos bastardos gerra- generoan kokatzen da, II. Mundu gerran, hain zuzen ere, eta Tarantinok ausardia erakus- ten du gerraren gertaera historikoak aldatzerakoan. Normalean oso sentiberak izaten gara gai horrekin eta kasu honetan nabarmenki aldatzen da historia. Aipagarria da, baita, filmean ingelesez, frantsesez, alemanez eta italieraz hitz egiten dela; herrialde ezberdinako pertsonaia asko daude eta hizkuntza nahasketatua hori momentu batzuetan modu dramatikoan eta beste batzuetan modu komikoan erabiltzen da. Horiek izan daitzke *Malditos bastardos*-en berrikuntza aipagarrienak. Filmaren estiloari dagokionez, istorioa kapituluz osatuta dago, honekin argi ikusten da Tarantinoren zinemak zatika funtzionatzen jarraitzen duela, ez dugu batasunik edo jarraipen dramatikorik nabarrizten. Iraupen handiko sekuentziak dira, batzuk zoragarriak, baina denak ez dira elkartzen tentsio dramatiko bat sortzeko. Egiturari dago- kionez film askea da, eta niri, behintzat, horrela gertatzen zait, filma ikusterakoan sen- tsazioa dut Tarantino-show baten aurrean nagoela. Isto- ria distantziatik ikusten dut, ez dut askorik sinesten kon- tatzentzaidana, dena nahiko sakabanatua dago. Hala ere, gozatzeko aukera ematen duten eszena ugari topa daitzke. Azkeneko eszena nahiko zalantzagarria bada ere, eszena onenek benetako zinea dute.

Antonio Zabala

Zinema**ARRASATE****AMAIK ANTZOKIA****Asalto al tren****Pelham 1, 2, 3**

Zapatua: 20:00.

Astelehenetan: 20:30.

Harry Potter y el misterio del príncipe

Zapatua: 17:00.

La escafandra y la mariposa

Eguena: 20:30.

BERGARA**ZABALOTEGI****El intercambio**

Zapatua: 19:30, 22:30.

Domeka: 19:30.

Madagascar 2

Zapatua eta domeka:

17:00.

Bienvenidos al norte

Eguena: 20:00.

GASTEIZ**GURIDI****Malditos bastardos**

16:55, 19:45, 22:35.

Vicky el vikingo

17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

El soplón

17:30, 20:00, 22:30.

Si la cosa funciona

18:00, 20:15, 22:30.

Up

16:45, 18:45, 20:20.

Rec 2

17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Qué les pasa a los hombres

22:30.

Los sustitutos

17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Rec 2

16:00 (zapatua eta

domeka), 18:00, 20:00,

22:00, 00:00.

Zapatua eta domeka.**FLORIDA-GURIDI****Gigante**

18:00, 20:15, 22:30.

Zorion perfektua

18:00, 20:15, 22:30.

Gordos

17:30, 20:00, 22:30.

La máquina de pintar nubes

17:30, 20:00, 22:30.

Frozen river

18:00, 20:15, 22:30.

Mapa de los sonidos de Tokio

22:30.

Vicky el vikingo

17:30, 20:00.

El secreto de sus ojos

17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzet egunera.**YELMO CINEPLEX****Oceanworld**

(3-D emanaldiak)

17:30, 19:15, 21:00.

San Valentín sangriento

(3-D emanaldiak)

22:45, 00:45.

Pequeños invasores

16:15 (zapatua eta domeka), 18:05.

El secreto de sus ojos

16:10 (zapatua eta domeka), 18:45, 21:40,

Up

(3-D emanaldiak)

15:30 (zapatua eta domeka).

Los sustitutos

16:05, 18:05, 20:05, 22:05,

00:05.

Malditos bastardos

17:00 (zapatua eta domeka), 18:30, 20:00,

21:30, 23:00, 00:30.

Rec 2

16:00 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:00,

22:00, 00:00.

Urriaren 2tik 8ra.**Gauerdiko emanaldiak**

egubakoitzean eta zapa-

tu.

ÁBACO BOULEVARD**Shorts: la piedra mágica**

16:05, 18:00.

Malditos bastardos

16:00, 19:15, 22:00, 22:30.

San Valentín sangriento

20:30, 22:40.

Rec 2

16:20, 18:15, 20:10, 22:15.

Resacón en Las Vegas

20:00, 22:20.

Vicky el vikingo

16:05, 18:00, 20:00,

22:00.

Qué les pasa a los hombres

16:30, 19:15.

Up

16:20, 18:20.

La máquina de pintar nubes

16:15, 18:20, 20:25, 22:30.

School Rock Band

16:05, 18:20.

Si la cosa funciona

16:00, 18:00, 20:00,

22:00.

District 9

16:00, 18:15, 20:30, 22:45.</div

Nobel saridunekin Donostian

DONOSTIA 'Atom by atom' biltzarraren barruan, ikasleekin topaketa egin zuten Harold Kroto eta Heinrich Rohrer-ek

BERGARATIK Kutxagunean batutako 180 ikasleen artean Aranzadi Ikastolako Batxilergoko hiru ikasle zeuden

JAKIN MINA Bergarako ikasleek 1986ko Fisika Nobel Saridunari galdera bat planteatzeko aukera izan zuten

EDU MENDIBIL > BERGARA
Zientziaren mundua ikasleei geratzen saiatu ziren Harold Kroto eta Heinrich Rohrer Nobel saridunak martitzenean, Zientziaren Kutxagunean, Donostian. 40 institututako 180 ikasle batu ziren han, tartean Aranzadi Ikastolako Batxilergoko 2. mailako Ainhoa Goienetxea, Asier Kortabarria eta Irene Larrañaga. Hainbat egunkaritan azaldu da gainera haien argazkia, Nobel saridunen ondoan. Arantza Gardoki kimikako irakaslearekin batera joan ziren ikasle bergararrak topaketara.

Pedro Miguel Etxenike euskal zientzialariak jardun zuen gidiari lanetan martitzenean, eta Harold Kroto (Kimika Nobel saria 1996an) eta Heinrich Rohrer (hamar urte lehenago Fisika Nobel sariduna) ikasleek luzatutako galderai erantzuten saiatu ziren. Antolatzailleek ikasle talde bakotzak aurretik bidalitako galderak galbaletik pasatu zituzten, galderarik ez errepikatzeo. Irene Larrañagaren arabera,



KUTXAGUNEAN Harold Kroto, Arantza Gardoki, Asier Kortabarria, Irene Larrañaga, Ainhoa Goienetxea eta Rohrer. ARANZADI IKASTOLA

bergararrek beraiena bota zuten: "Transistoreetan Moore-ren legea betetzen da, 18 hilabetero transistoreen tamaina erdibituz eta ahaldmena bikoitzuz eta hori mantendu egingo al den galduen genion Rohrer-i. Hasiera baten, uste genuen galdera ingelesez egin behar izango genuela eta, hain zuzen ere, ingeles maila hobea genuenok izan genuen Donostiara joateko aukera. Baino azkanean euskaraz egin ahal zen galdera, itzultzalea bazegoelako. Oso saio interesgarria izan zen eta gero Nobel saridunekin argazkia ateratzen genuen".

ZIENTZIALARI HARROBIA
Martitzeneko topaketa *Atom by atom* nazioarteko biltzarraren barruan egin zen. Mundu osoko zientzialariez, ikasleek ere protagonismoa izan dute. *Harrobia* zaindu beharra dago. Egun ederra pasa zuten ikasleek Donostian, gelatik kanpo. Orain hango esperientziaren berri ikaskideei emango diete, ikastolako *Aiba!* aldizkarian.

ahobero

"Uste dut badirela kokaina esnifatzen duten tenis jokalariak, baina dibertimendurako hartzen dute"

Flavia Pennetta > Tenislaria

Tenisean dopinik ba ote dagoen galdetuta hori erantzun du tenis-jokalari italiarrak. Dibertimendurako esnifatzen dutela dio; jakina, ez dute, bada, derrigortuta hartuko. Eta kokaina hartzen dute beste batzuek bizioarengatik. Bainan behartuta?

iturri onetik

Arrasaten jokatuko da Euskal Herriko squash txapelketa urriaren amaieran

Euskal Herriko squash txapelketa jokatuko da urriaren 30ean eta 31n Arrasaten, Musakolako kiroldegian.

Aurrez ere jokatu izan da taldeko Euskal Herriko squash txapelketa gurean, baina, aurtengoari garrantzi handiagoa eman nahi diotenez, urriaren 28an txapelketa aurkeztuko dute Arteaga jatetxeen. Horrela, antolatzainen asmoa da txapelketak oihartzun handiagoa izatea.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

Komunikatua

Zalaparta itzela eragin zuen larunbatean *Berria* egunkariaren akatsak *The Organisation*-ena omen zen komunikatuarekin. Martxelok *Mezularia*-n azaldu zigu arren "larria bai baina beste irakurketarik gabeko akatsa" izan zela, alderdiek eta hedabideek zuku oparoa atera zioten gaiari.

Ohi den bezala, bestalde. Izen ere, jardun armatuaren inguruabarrak hartua du *Espanian On Jose Miguel Barandiaranen* soinean ultzerak izan zuen papera. Hark zioen urdaleko gaitz kronikoak lagundi ziola neurrian elikatzen, eta horri esker iraun zuela 100 urte. Tarteka gertatzen diren attentatuak jasangarriak zaizkio estatuarri, eta unionistek haien mesederako erabiltzen dituzte behin eta berriz, neurri gabe. Ez al du, behintzat, egoera honek 100 urte iraungo!

ai, ene!



Zigarroz egindako lepokoak berezia

Toki askotan erretzea debekatu dutenean horrelako lepokoak jantea ere... usainik eta kerik, behintzat, ez du aterako.

www.nopuedocrear.com



**carrascal
aroztegia**

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUA
BESTELAKO ARMAIRUA

Ekutio 4, Pab. 14-15
Uribarri Auzoa
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943790182
scarrasc_1@infonegocio.com

ESKAINTZA BEREZIAK!



Ondo pasa Maritxu
Kajoi egunean!



ALTZARIEN RENOVE PLANA